# Goienkaria

2007ko irailaren 21a > Egubakoitza > VII. urtea > 301. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net




"Debagoiena iraunkorra izateko garraio ohiturak aldatu behar dira"

**Beatriz Martikorena**
Iraunkortasun teknikaria > 09

**G2a** **Ipuin kontalarien topaketa domekan Aramaion** > 43-44

**AZPIEGITURAK**
**Euskadour gasbidea eraikitzeko lanak martxa onean doaz** > 05

**ARRASATE**
**Arrasate Musikaleko ikasleak Monterronera denboladi batez** > 19

**OÑATI**
**Sei elizgizonek urrezko ezteiak egingo dituzte domekan** > 33

**ENPRESA** > ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

# Ikerlan plastikozko eguzki plakak egiteko lanean dabil

**AUKERATUA** HOPE deitzen da Ikerlanen proiektua eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak babesten du

**ONURAK** Gaur egungo siliziozko plakak ez bezala, plastikozkoak bihurkorrak eta gardenak izango dira

**ELKARLANA** 12 ikerketa zentrok eta unibertsitatek eta 70 ikerlarik dihardute proiektuan; horietako bost, Ikerlanekoak > 04

## On Jose Maria Arizmendiarrieta zenaren ideiak bultzatzeko elkartea sortu dute

Atzo, eguena, aurkeztu zuten eta Arizmendiarrietaren Lagunak du izena. Batez ere, kooperatibismoaren bultzatzaile eta ideologo nagusi izan zenaren figura eta ideiak bizirik mantentzea eta eguneratzea da elkartearen helburua. Ezagutu zutenek eta haren lanaren jarraitzaile izan zirenek bultzatuta sortu dute elkartea. > 07



**BULTZATZAILEETAKO BI** Jose Luis Madinagoitia elkarteko idazkaria da eta Jose Mari Larramendi, lehendakaria. T.M.

**OÑATI** > TXAPELKETA

## Artzain txakur txapelketa

Domekan jardungo dute buruz buru nazioarteko 12 parte-hartzaileek > 15

**GIZARTEA** > LAPURRETAK

## Furgoneta lapurrak bailaran

Debagoienean ere areagotu egin dira furgoneten lapurretak. Volkswagenak dira ia guztiak, California modelokoak. Ertzaintzaren ikerketen arabera, lapurrak Europa ekialdeko sare antolatuetako kideak dira. Furgoneta erabiltzaileen foroan, *www.furgovw.org* webgunean, gai nagusietakoa da. > 02-03

**KIROLA** > MENDI MARATOIA

## Zegama-Aizkorri domekan

Debagoieneko 25 korrikalarik hartuko dute parte mendi maratoian > 40-41

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55








**LAPURRETAK** > ANTOLATUTAKO FURGONETA LAPURREN SAREAK

# Debagoienera ere heldu dira furgoneten lapurrak azken asteotan

**GERTATUTAKOAK** Lo egiteko eta bertan bizitzeko gertatuta dauden furgonetak dira lapurtu dituzten ia guztiak. Gehienak, gainera, Volkswagenak

**ERALDATUTA** Ibilgailua lapurtu eta oso denbora laburrean bastidore zenbakiak aldatzen dizkiete, eta atzerriko matrikulak jarri

**FOROA** Furgoneta jabeek Interneten duten foro baten elkarri laguntzen diote, eta, hala, Ertzaintzari bidea errazten diote

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Aspaldi honetan furgoneta asko lapurtzen dabiltza Espainia osoan, eta herritar asko arduratuta daude gertaera horiekin. Gure artean ere izan dira halakoak. Hain zuzen ere, Arrasateko bikote bati Zarautzen lapurtu zioten furgoneta abuztu bukaeran; eta irailaren hasieran, berriz, Antzuolako bikote bati etxe alboan aparkatuta zeukan furgoneta ostu zioten.

**PRESTATUTAKO FURGONETAK**

Ezagun da Euskal Herrian gero eta furgoneta gehiago daudela. Hala ikus daiteke errepide eta gure kaleetan. Horretan zeresana izango du bidaiatzeko, eskiatzeko eta mendira joateko gure artean dagoen zaletasun handia, gero eta gehiago hazten dabilena. Horrez gain, gero eta ohitura handiagoa dago furgoneta erosi, barrualdea lo egiteko prestatu eta bidaietan lo-leku gisa erabiltzeko ibilgailua.

Zoritxarrez, halako ibilgailu bat izanez gero, kezkatuta egoteko arrazoiak egon badaude. Horixe eman digute aditzera.

Ertzaintzak eta furgoneta erabiltzaileek jakinarazi digutenez, osten dituzten ibilgailu gehienak mota berekoak dira, Volkswagenak ia guztiak: T4 California, T5 California, T3, Multivan, Transporter... Baina jakin dugu Mercedes Vito batzuk ere desagertu direla.

**CALIFORNIA, MULTIVAN...**

Aipatutako marka eta modelo horiek fabrikazioz barruan lo egiteko eta bizitzeko prestatuta dauden ibilgailuak dira; eta badirudi horregatik daudela lapur horien begi-puntuan. Aspaldian jasotako lapurreta uholdearen barruan, ibilgailu ia guztiek betetzen dituzte baldintza horiek.

**MATRIKULAK ETA BESTE ALDATUTA**

Furgoneta jabeek eta Ertzaintzak jakinarazi digutenez, ibilgailuak ostu eta berehala, lapurrek matrikulak eta bastidore zenbakiak aldatzen dizkiete, identifikatzeko gaitzak izan daitezen.

Ertzaintzak egin dituen ikerketen arabera, lapurrak Europa ekialdeko antolatutako sareetako kideak direla uste dute.

**Abuztu bukaeran Arrasateko bikote bati furgoneta lapurtu zioten Zarautzen; eta irailaren hasieran Antzuolan aparkatuta zuten beste furgoneta bat 'desagertu' egin zen**

Orain arte egin dituzten atxiloketetan, behintzat, kroaziarrak, jugoslaviarrak eta eslovakiarrak harrapatu dituzte.

**ANTOLATUTAKO LAPURREN SAREAK**

Ertzaintzak esku artean dituen hipotesien arabera, talde antolatu horiek familia klanek osatuta daude. Hain zuzen, ostutako ibilgailuak manipulatu eta *mozorrotu* ostean, euren joan-etorrietan ibiltzen dituztela, horietako asko nomadak dira-eta.

Nomada izaera horrek eta matrikulak eta bastidore zenbakiak aldatzeko azkartasun horrek asko zailtzen du furgonetak aurkitzea. Horregatik, orain arte Ertzaintzak bost ibilgailu bakarrik aurkitu ditu.

**GARAION ETA ZIERBENAN AURKITU**

Abuztuaren 29an, Barrundiako udalerrian kokatuta dagoen Garaioko parkean, Ertzaintzak hiru furgoneta aurkitu zituen atzerriko matrikulekin. Bastidore zenbakiak aldatuta zeuden itxura hartu zioten, eta egiaztatu egin zuten. Hala, Kroaziako dokumentazioa zuten bi lagun atxilotu eta espetxeratu egin zituzten. Horrez gain, orain dela aste bat Zierbenan (Bizkaia) ostutako beste bi ibilgailu aurkitu eta beste bi lapur atxilotu zituzten, haiek ere Europako ekialdekoak, hain zuzen ere.

**FURGONETA JABEEN FOROA**

Ertzaintzak onartu du aurkikuntza eta atxiloketa horietan zeresan handia izan duela mota horretako furgoneta jabeek Interneten duten foroak. Hain zuzen ere, *www.furgovw.org* webgunean azken hilabeteotan Espainian lapurtu dituzten furgoneten zerrenda eta zehaztasun ugari batzen dihardute.

Are gehiago, foroko kideek furgoneta bakoitzaren gaineko zehaztasun guztiak zerrendatu, argazkiak publikatu eta noiz eta non lapurtu zituzten zehazten dute. Gainera, elkarri laguntza handia ematen diote, baita Ertzaintzari ere.

**FOROKOEK ERE AURKIKUNTZAK**

Forokoek egindako lan handiaren adibide garbia da Apodakan (Araba) egindakoa. Foroan aritzen den furgoneta jabe batek atzerriko matrikulak zituzten furgoneta susmagarri batzuk ikusi zuten herri horretan. Badaezpada argazki batzuk egin zituen eta foroan sartu zituen.



**FOROARI ESKER** Argazkian, Mikel Lasaren furgoneta

## Furgoneta lapurtua dela frogatzeko zailtasunak izaten dituzte euren jabeek

Ertzaintzaren eta furgoneta jabeen esanetan, lapurrek ibilgailuak ostu eta berehala matrikulak, bastidore zenbakiak eta beste aldatzen dizkiete. Hala, Ertzaintzak arazo handiak izaten ditu lapurtutakoak diren edo ez egiaztatzeko.

Hori saihesteko, hainbat bide lantzen dabiltza. Horietako bat da matrikula eta bastidore zenbakiak ibilgailuaren kristaletan grabatzea. "Merkea da hori egitea, eta lapurrei lan eta denbora handiagoa emango die furgoneta guztiz *mozorrotzeak*", azaldu digu Mikel Lasak. Salgai daude, baita ere, GPS bidezko bilatzaileak. "Hala, furgoneta bilatzeko edo jarraitzeko erraztasun gehiago izan ditzakegu".

Bestalde, lapurreta gehienak errepide orokorren alboan gertatu dira. Hala, Lasak aholkatu du ahalik eta herri barruen aparkatzeko, eta badaezpada aparkaleku desberdinak tartekatzeko.



**LAPURTZEKO ERRAZTASUNA** Eskua daukate furgonetak zabaltzen. IKER BARANDIARAN




a (eskuman) Apodakan foroko erabiltzaile batek egindako argazkian, matrikulak aldatuta. Ertzaintza heldu orduko, hanka egin zuten lapurrek furgonetekin. GOIENKARIA

DATUA

# 4

**FURGONETA DENBORA LABURREAN**

Azken hamabost egunetan gutxienez lau furgoneta ostu dituzte Euskal Herrian: Berangon, Lasarten, Antzuolan eta Zarautzen (arrasatear batzuei). Baliteke gehiago lapurtu izana.

AIPAGARRIAK

**> PRESTATUTAKO FURGONETAK**
Orain arte lapurtu dituzten furgoneta ia guztiak prestatutako Volkswagenak dira: California, Multivan, Transporter... eta baita Mercedes Vitoren bat.

**> ASEGURU MOTAK**
Lapurreta egin dioten furgoneta jabe bati baino gehiagori gertatu zaio asegurua ez dela kargu egin. Hala, jakin dugu hirugarrenendako asegurua kontratatzeko aukeran badagoela, eskatuz gero, lapurreta ere kontuan hartzen duen modalitate bat. Bestalde, furgoneta erositakoan zuen balio bera berreskuratzeko ezinbestekoa da arrisku orotarako asegurua izatea. Baina bi urteko epea izaten da kasu gehienetan.

**> FOROA OSO LAGUNGARRI**
Lapurretak sufritutako ibilgailuen jabeek elkarri laguntzen diote foroaren bidez. *www.furgovw.org* webgunean lapurtutako furgoneten argazkien, zehaztasunen eta bilaketen berri ematen dute. Komeni da ibilgailuen detaile txikiak ere aditzera ematea: pegatinak, urradurak eta beste.

Hala, Ertzaintzari deitu zioten, baina polizia heldu orduko lapurrek hanka egin zuten furgonetekin. Horietako bat Mikel Lasa arrasatearraren ibilgailua zen. Egiaztatu egin zuen Lasak, leku berean euren arropa batzuk eta matrikula zaharra aurkitu zituen-eta.

**SALAKETA BATERATUAK**
Foroko erabiltzaileen asmoa da probintziaka edo lurraldeka epaitegietan salaketa bateratuak egitea. Euren kezka da orain arte atxilotutakoak fidantzapean askatu dituztela, eta ostutako furgoneta askok berreskuratu barik jarraitzen dutela.

LAPURRETAREN BIKTIMA

**Bego Oncala**
FURGONETA LAPURTU DIOTEN ANTZUOLARRA

## "Susmoa daukagu furgoneta '*fitxatuta*' zutela, duela gutxi sarraila bortxatu zutelako"

"Irailaren 11n, oporrak bukatu berri, Volkswagen T4 California lapurtu ziguten Antzuolan, etxetik hurbil aparkatuta geneukala. Batzuetan garajera sartzen dugu eta beste batzuetan kalean uzten dugu. Susmoa daukagu aurretik furgoneta ez ote zuten *fitxatuta*. Aste batzuk lehenago, mutila mendira joan zen baten, furgonetaren sarraila bortxatuta zegoela konturatu zen. Badirudi oporrak bukatu eta gu lanera noiz bueltatu itxaron dutela lapurreta egiteko.

Furgoneta hirugarrenendako aseguruarekin daukagu, eta, hortaz, ez digute ezer emango. Orain jakin dugu badagoela aukera lapurreta eta suteen aurrean halako asegurua eskuratzeko...".

LAPURRETAREN BIKTIMA

**Mikel Lasa**
FURGONETA OSTU DIOTEN ARRASATEARRA

## "Aseguruak ez digu furgonetarik emango eta barruan genuen materiala ere galdu dugu"

"Abuztu bukaeran, Italian egindako oporralditik bueltan gentozela, Zarautzen bazkaltzeko gelditzea erabaki genuen. Bertan bazkaldu eta furgonetara itzuli ginenean konturatu ginen norbaitek Volkswagen T5 California ibilgailua ostu zigula. Susmoa daukagu autobide sarreran zelatan egongo zirela, eta gero jarraitu egin gintuztela.

Furgonetak bi urte baino pixka bat gehiago daukanez, arrisku orotako asegurua kontratatuta izan arren, aseguru-etxeak ez digu furgoneta bat emango. Horren ordez, diru kopuru zehatz bat emango digute; eta jakina, oporretatik bueltan gentozela furgonetan geneukan material guztiaren kargu ez da inor egingo".

Omega Elevator, s.a.
• Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
• Gremioen koordinazioa
• Arkitektura-oztopoen kentze lanak
Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com

SSANGYONG ACTYON 4x4 BERRIA
Mercedes-Benz Motorrarekin: 200 Xdi 141 ZP
22.960 €-tik aurrera

SSANGYONG
VERTIZ MOTOR
Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10
Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66
Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99

**ENPRESA** > ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

# Plastikozko eguzki-plakak egiteko proiektu baten dihardu Ikerlanek

Espainiako eta Euskal Herriko 12 zentro eta unibertsitate dabiltza HOPE proiektuan

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak aukeratu du proiektu hori Consolider programan

**AINTZANE IRIZAR** > ARRASATE

Arrasateko Ikerlanek parte hartzen duen HOPE proiektua aukeratu du Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Consolider programan. Programa horren helburua da zientziaren hainbat alderdi estrategiko bultzatzea. 73 proiektu aurkeztu ziren eta 27 aukeratu dituzte, tartean HOPE izenekoa. Kontuan hartu behar da ministerioaren babesa lortzeko beharrezkoa izaten dela ondo finkatutako ikertzaile taldeak izatea eta kalitatezko ibilbide profesionala izatea.

**TALDE SENDOA**

Ikerlan ik4 izeneko sare estrategikoan dago. Sare horiek sortzen dituzte elkarrekin lan egiteko ikerketetarako osagarriak diren enpresek eta zentroek. Donostiako Cidetec teknologia elektrokimikoen zentroa ere ik4 sarean dago. Biek parte hartzen dute HOPE proiektuan, Espainiako beste hamar zentro eta unibertsitaterekin batera. Castelloko Jaume I unibertsitateko Juan Bisquert irakaslea da proiektuaren zuzendari eta koordinatzailea. Ikerlaneko HOPE proiektuaren arduraduna da Roberto Pacios.

Proiektuan parte hartzen duten gainerakoak honakoak dira: Institut Catala d'Investigacio Quimica (Tarragona); Universidad de Castilla La Mancha (Toledo); Universidad Miguel Hernandez de Elche; Universitat d'Alacant; Universitat Politecnica de Cataluña; Institut de Cencies Fotoniques (Bartzelona); Universidad Politecnica de Cartagena; Universidad Pablo Olavide de Sevilla eta Universitat Rovira i Virgili de Tarragona.

**SILIZIOTIK PLASTIKORA**

HOPE proiektuaren helburua da plastikozko eguzki-plakak egiteko ikerketak egitea. Lau urte iraungo du taldearen lanak eta proiektuaren aurrekontua da lau milioi eurokoa. Aurrekontuaren zati bat Espainiako Gobernuak finantzatuko du.

Gaur egun ekoizten diren eguzki-plaken %94 dira siliziozkoak; alternatiba berria ekarriko luke, hortaz, plastikoak, eguzki-plaken merkatura.

Plastikoaren abantaila nagusia izango da kostuak txikitu egingo direla. Silizio eskasiarik ez dago; alderantziz, asko dago naturan. Kontua da oso konplexua dela eguzki-plaketarako olatak ekoizteko silizioa purifikatu eta tratatzeko prozesua. Prozesu konplexu horrek izugarri garestitzen du eguzki-plaken kostea. Gainera, ekoizle gehienak ekialdeko herrialdeetakoak dira eta Europak dependentzia handia du.

Plastikozko eguzki-plakek ekarriko duten beste abantaila bat izango da elastikoak, malguak, izango direla. Baita gardenak ere. Horrela, leiho, teilatu edo balkoietan jarrita, ez dute begi-inpakturik eragingo.

Malgutasunak bestelako erabilpenetarako egokiak egingo ditu eguzki-plakak. Roberto Pacios Ikerlaneko proiektuko arduradunak adibide hau jarri du: "Poltsikoko telefonoak kargatzeko erabiliko dira; plastikozkoak izango direnez, malguak eta bihurkorrak, tolestatu eta poltsan sartzeko moduko plakak izango dira. Hortaz, bateria kargatu beharra dugunean, nahikoa izango da plaka eguzkitan jartzea eta telefonora konektatzea".



**IKERTZAILEAK** HOPE programan diharduten ikertzaileak, Ikerlaneko laborategian. A.I.



A.I.

**Roberto Pacios** > Proiektuaren arduraduna

## "Aurten bertan egingo dira plastikozko lehen plakak"

**A.I.** > ARRASATE

**Roberto Pacios da HOPE proiektuaren arduraduna Ikerlanen. Harekin berba egin dugu proiektuaren berri jakiteko.**

**Ze fasetan dago ikerketa lana?**

Lehendabiziko frogak egiten hasi gara laborategietan. Ministerioaren eta proiektuaren zuzendariaren artean oraindik ez dute ofizialki hitzarmena sinatu, baina gu hasi gara dagoeneko lanean.

**Zenbat ikertzailek diharduzue?**

Guztira, 70 bat ikertzailek. Ikerlanen bostek dihardugu; denok gara mikrosistemen departamentukoak.

**Noiz merkaturatuko dira plastikozko lehen eguzki-plakak?**

Plaka handiak merkaturatzeko urte batzuk pasatuko dira, baina lehenengo aplikazioak segituan egingo dira. Alemaniako enpresa batek aurten bertan egingo ditu lehendabiziko prototipoak. Gure helburua, bestalde, da proiektua amaitu aurretik plaka handi bat ekoiztea, ekoizle potentzialak topatzeko. Hala ere, gero jarraituko genuke ikerketa lanetan, produktua hobetzeko.

Hezurren kalitatea zain ezazu.
Hezur-dentsitometria orain Arrasaten.

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88

**BERGARA-ANTZUOLA** > EUSKADOUR GASBIDEA

# Ibarrean Euskadour gasbidea eraikitzeko lanak martxa onean doaz

Obrak ekainean hasi ziren eta proiektu osoa 2009. urteko udaberrirako amaituta egon daite. Zangak egiten eta hodiak sartzen dihardute

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Ekainean hasi ziren gurean Euskadour gasbidea egiteko lanak. Naturgas Energia eta TIGF-Total Infraestructures Gaz France enpresek Hegoaldeko eta Iparraldeko sareak lotzeko proiektua da hori. Bergara eta Antzuolako lurrak zeharkatuko ditu bereziki gasbideak, eta tartean Oñatikoetan ere sartuko da.

Naturgasko prentsa arduradun Iñaki de Rojok azaldu duenez, ibarrean egiten ari diren lanak martxa onean doaz. Apirila eta maiatza bitartean, gasbideak jarraituko duen ibilbidea seinaleztatu zen. "Orain dagoen gasbidea zabaldu nahi dugu. Orain arteko azpiegiturak 16 hazbeteko diametroa du; hodi berria, berriz, 26 hazbetekoa izango da", dio.

**ZANGAK EGIN ETA HODIAK SARTU**

Ibarrean, Elorregin hasi ziren lan egiten. Gasa joango den hodietarako zangak egin zituzten, eta orain, hodi horiek jartzen dabiltza. Hodiak altzairuzkoak direla azaldu du Rojok. Hodiak sartu eta altzairuarekin lotu ondoren, zuloak beteko dira eta "ingurua hasieran zegoen moduan uzten saiatuko gara", esan du Rojok.

Euskadour gasbidea Bilboko portutik abiatuko da, Bahia Bizkaia Gas erregasifikadoratik, eta Frantziako Lau-ssagnet herrian amaituko du ibilbidea. Tartean, Debagoienera sartuko da Elorregitik. Bizkaitik Hirutontorrera menditik iritsiko da gurera eta Bergara, Oñati eta Antzuola zeharkatu ostean, Legazpirako bidea hartuko du, handik Irunerantz jarraitzeko. Proiektua hiru zatitan banatuta dago eta gasbidea eraikitzeko epea bi urtekoa dela esan du Naturgasko prentsa arduradunak. Orain, bigarren zatiko lanak egiten dabiltza, tartean Debagoienekoak. Eta hirugarren zatiko ingurumen-inpaktuari buruzko txosnaren zain daude; alegia, Tolosan hasi eta Iruneraino doan zatia.

**2009KO MAIATZA EDO EKAINA**

Ezustekorik egon ezean, egitasmo osoa 2009. urteko maiatz edo ekain aldera amaituta egongo dela jakinarazi du Rojok. Egin behar duten gasbide berriaren aurrekontua, bestalde, 75 milioi eurokoa dela gaineratu du.

Azkenaldian gasaren eskaera nabarmen igo dela esan du Naturgasko prentsa arduradunak. Euskadour gasbide berriaren bidez, bada, inguruko herriek gas naturalaren hornitzea ziurtatuta izango dutela jakinarazi du. Horrez gain, Frantzia eta Espainia arteko gas elkartrukatzea bultzatzeko ere balioko du.

Euskadour eraikitzeak 300 bat lursailetan kalteak eragingo dituela ere adierazi du. "Kaltetu asko daudenez, normala da proiektuarekin ados ez dagoen norbait aurkitzea", esan du. Horren harira, adostasun batera iristen saiatuko direla ziurtatu du Rojok.



**ELORREGI** Trenbide zaharraren ondoan, Elorregin, pilatzen dituzte hodiak lanean dihardunten eremura eraman aurretik. J.B.

DATUA

**87.294**

**METRO**

Bergara-Irun zatiak 87.294 metro izango ditu. Horietatik, 1.068 ibarretik igaroko dira. Bergarako eremuetatik 568 metro pasatuko dira eta Antzuolakoetatik kilometro erdi. Oñatitik ere pasako da.

KALTETUAK

## Kaltetuek irregulartasunak aurkitu dituzte proiektuan

Euskadour gasbidea eraikitzeko lanek kaltetuak eragin dituzte. Horien artean, Elorregiko Josu Garaitonaindia. 1.500 metro koadro inguru galduko dituela jakinarazi du, eta, desjabetze aktak sinatu ez baditu-ere, bere lureremuetan sartu direla salatu du. "Gasbidea nondik pasatu behar den markatu eta garbitu dute. Zuhaitzak ere moztu dituzte", aipatu du.

Garaitonaindiak hiru "irregulartasun" aurkitu ditu egitasmo horretan. Lanek hartuko duten lureremu kopuruan planoak ez datozela bat adierazi du. "Erakutsi didaten eta nik ditudan planoen artean diferentzia handia dago". Horren harira, obrak hasi aurretik hori konpontzea eskatu zuen. Horrez gain, lanak direla-eta, baserrira joateko bidera harriak jausi direla azpimarratu du. Arriskua dagoela ohartarazi du Garaitonaindiak. Azkenik, proiektuak aurreikusten duen zentral berria egiteko "toki hobeak" daudela ere aipatu du hark.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

**GARRAIO PUBLIKOA** > DIPUTAZIOAK URRIAREN 1EAN EZARRIKO DU TXARTEL BAKARRA GUREAN

# Txartel bakarra eska daiteke dagoeneko

Debagoieneko herri gehienetan, 12 puntutan, hain justu, eska daiteke txartel bakarra; argazkia eraman behar da eta inprimaki bat bete

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Urriaren 1ean jarriko dute martxan Debagoienean txartel bakarraren sistema. Dagoeneko eska daiteke txartel hori Debagoieneko herri gehienetan, honako puntuetan, hain zuzen ere: Antzuolan, Altzarten; Aretxabaletan, Ibarra estankoan eta Alfredo liburu-dendan; Arrasaten, Marchas eta Portaloiko kioskoetan, Garai estankoan eta Ttukun liburu-dendan; Bergaran, Isabel kioskoan eta Ikasbi liburu-dendan; Eskoriatzan, Adela liburu-dendan; eta Oñatin, azkenik, Gloria liburu-dendan eta Altuna estankoan.



**SALTOKIAK** Estanko eta prentsa saltokietan eska daitezke txartelak. A.I.

**ARGAZKIA ETA INPRIMAKIA**

Eskaera egiteko, inprimaki bat bete, argazki bat eraman eta 4 euro ordaindu behar da. Bost bat egun geroago jasoko du txartela eskatzaileak, eskaera egin duen tokian bertan. Txartela diruz kargatzeko aparailua ere egongo da toki horietan.

Lehen fasean, Debagoieneko herrien arteko lineatan jarriko dute sistema berria.

**POLITIKA** > AZKEN ASTEOTAKO GERTAEREN AURREAN

## Mobilizazioak deitu ditu Amnistiaren Aldeko Mugimenduak gaur arratsalderako

Ibarrean, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Bergaran eta Arrasaten biltzeko dei egin du Debagoieneko Askatasunak

**M.B.** > ARRASATE

Azken asteotan izandako "errepresio adierazpenen" aurrean, mobilizazioak deitu ditu gaur arratsalderako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Euskal Herrian. Arrasaten Seber Altube plazan batzeko dei egin du Debagoieneko Askatasunak, 19:00etan. Aretxabaletan eta Eskoriatzan ordu berean hasiko dira mobilizazioak, lehenengoan Pagaldai parean eta bigarrenean, Herriko Plazan. Bergaran 19:30ean bilduko dira, San Martin plazan.

**PSOE ETA EAJ**

Polizia kontrolak, debekuak, Askatasuneko bozeramaile Juan Mari Olanoren espetxeratzea, Udalbiltzaren aurkako zigor eskaerak eta EAE alderdi politikoaren kontrako mugimenduak jarri ditu adibide gisa Amnistiaren Aldeko Mugimenduak gaur egungo egoera azaltzerako orduan. "Euskal Herriarentzat errepresio plan bat zehaztu dute PSOEk eta EAJk", salatu du horrek.

Horren aurrean, "antidotorik eraginkorrena" amnistia eta askatasunaren aldeko "borroka" dela aipatu du. Alegia, "Euskal Herriak iruzur politiko batean murgiltzeko saiakerari mugak jarri eta errepresioa eraginkortasunik gabe utziko duen jarrera kolektiboa duena".

euskara plazara

DEBAGUNE-REN BULETINA



Debagoiendarrek Berbaizu topatuko dute Bilbon. GOIENKARIA

## Hiriburuetara doazen ikasleek ere euskararen alde egin dezakete

**DEBAGUNE** > BERGARA

Ikasturte berriarekin batera, bailarako gazte asko Euskal Herriko hiriburuetara joaten dira ikastera. Hori dela-eta, haien interesekoa izango delakoan, hiriburuetan dauden euskara elkarteen informazioa eman gura du Debagunek. Euskara elkarte horiek gazteendako eskaintza zabala antolatzen dutela aipatu du. Besteak beste, aisialdi eta kultur ekintzak, kirola, irteerak, gazte taldeak, mintzapraktika egitasmoak eta ikastaroak bultzatzen dituztela adierazi du.

Donostiara joaten diren ikasleek Bagera euskaltzaleon elkartea ezagutzeko aukera izango dute. Katalina Elizegi kalean dago kokatuta esandako elkarte hori, 36. zenbakiko beheko solairuan, hain zuzen ere. Telefono zenbakia ere badu Bagerak: 943 46 71 81.

**BILBON, HIRU ELKARTE**

Bilbo aukeratu dutenek, berriz, hiru elkarte dituzte aukeran, zonaren arabera kokatuta daudenak. Hala, Deustuan Berbaizu euskara elkartea topatuko dute gazteek Ramon y Cajal kalean, 42. zenbakian. Haren telefono zenbakia da 94 447 10 42. Alde Zaharrean, bestalde, Lizardi Mintza elkartea dago, Txakur kaleko 1. zenbakian. Santutxu auzoan, azkenik, Asapala kultur elkartea aurkituko dute, Iturriaga kaleko 55. zenbakian. 94 473 54 49 telefono zenbakira deitu behar du azken horrekin harremanetan jarri gura duenak.

Gasteizen Geu Gasteiz Euskalduna elkartearekin egingo dute topo ibarrekoek. Apaiztegiko eraikinean dauka egoitza Geu elkarteak. Alegia, Pedro Asua kaleko 2-3, 90. bulegoan. Haren telefono zenbakia da 945 22 21 53. Zaldiko Maldiko Nafarroako hiriburuan kokatuta dago, Antsoleaga 9-11. zenbakian. Zaldikomaldikorekin harremanetan jartzeko zenbakia da 606 25 16 90.

Hiriburuetara joan eta euskararen aldeko apustua egin nahi duten gazteek, hortaz, aukera zabala aurkituko dute.

**Donostian Bagera eta Bilbon Lizardi, Berbaizu eta Asapala daude**

**Gasteizen Geu elkartea eta Iruñean Zaldiko Maldiko aurkituko dute ibarrekoek**




BEDONABE HAURRESKOLA

Matrikulazio epea zabalik

**Noiz:** irailaren 17tik 28ra
**Non:** Arrasateko Bedoñabe Haurreskolan (Alfontso VIII, 1.)
**Norentzat:** 2007an jaiotakoentzat.
**Matrikulazio ordutegia:** 15:00etatik 17:00etara

**Harremanetarako zenbakia:**
943 79 76 86

HaUrreskolaK

**GIZARTEA** > ATZO, EGUENA, EGIN ZUTEN AURKEZPEN EKITALDIA

# Arizmendiarrietaren Lagunak elkartea sortu dute, haren ideiak bultzatzeko

On Jose Maria Arizmendiarrietaren figura eta ideiak bizirik mantentzea eta eguneratzea da sortu berri duten elkartearen helburua

**AINTZANE IRIZAR** > ARETXABALETA

Atzo, eguena, aurkeztu zuten Arizmendiarrietaren Lagunak elkartea. Otalora jauregian egin zuten aurkezpen ekitaldia, Arizmendiarrietaren museoan, hain zuzen ere. Kooperatibismoaren bultzatzaile eta ideologo nagusia izan zen bere garaian On Jose Maria Arizmendiarrieta eta 31 urte pasatu dira desagertu zela. Orain, hura ezagutu zutenek eta haren lanaren jarraitzaile izan zirenek bultzatuta sortu dute elkartea.

Jose Mari Larramendi da elkarteko lehendakaria eta Pedro Mendieta lehendakariordea; idazkaria da Jose Luis Madinagoitia.

**ELKARTEAREN HELBURUAK**

Aurkezpenean azaldu zutenez, elkartearen helburua da balio humanisten gogoeta egitea eta Arizmendiarrietaren gizarte-ideiak suspertuko dituzten jarduerak bultzatzea. Baita Arizmendiarrietaren figura bizirik iraunaraztea eta gaur eguneratzea ere.

Helburu horietara iristeko, hainbat ekintza edo jarduera egin nahi dituzte: Arizmendiarrietaren ondare dokumentala, pertsonala eta abar berreskuratzeko eta zaintzeko lanean lagunduko du elkarteak; elkartearen zeregina izango da, bestalde, Arizmendiarrietak lan egin zuen esparruetan haren lana eta irudia gizartean ezagutzera ematekeko lan egitea ere.

Baina haratago doaz elkartearen helburuak: enpresa alorrean bide berriak irekitzeko gogoeta eta bultzatzea eta gaur egungo kooperatibetan berrikuntzak egitea ere elkartearen helburuen artean daude.

Belaunaldi berrietara ere iritsi nahi dute Arizmendiarrietaren Lagunek: haren filosofia humanista belaunaldi berrietara iristeko, hainbat jarduera antolatzeko edo bultzatzeko nahia azaldu zuten elkarteko kideek; horretarako, MCCren edo bestelako erakundeen laguntza lortzen saiatuko dira.

**60 BAZKIDE**

Atzo aurkeztu zuten arren, martxoan eratu zuten elkartea eta gaur egun 60 bazkide ditu. Izaera irekia du; kooperatiba alorreko pertsona talde batek sustatu du elkartea, baina irekita dago parte hartu nahi duten pertsona, elkarte, erakunde eta enpresa guztiendako. 60 bazkide horietako batzuk dira kooperatiba mundukoak eta beste batzuk kanpokoak.

**BIHAR BATZAR OROKORRA**

Bihar, zapatua, egingo du elkarteak lehen batzar orokorra, 13:00etan. Bazkide izateko 80 euroko urteko kuota ezarri dute. Bazkide izan nahi dutenek elkartearen egoitzara jo dezakete, Arrasateko Goi Eskola Politeknikora, edo 943 42 14 26 telefono zenbakira.



**AURKEZPENA** Madinagoitiak eta Larramendik egin zuten aurkezpena. TXOMIN MADINA




LAPUR-ZULOA

Konpainia: Kanpingags

ANTZERKIA

Non:
Arrasateko Amaia Antzokian.

Noiz:
Irailak 23an, Igandean, 19:30ean

Sarrera: 12€

Sarrera salmenta
SERVIKUTXA KUTXAZAIN-SAREA
943 00 12 00
www.kutxa.net
kutxa

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

## gure artekoak

**NISSAN X-TRAIL** > Badira sei urte baino gehiago Nissan etxeak lehendabiziko X-Trail automobila merkaturatu zuela. Bergarako Blanco kontzesionarioan egon gara azkeneko bertsioa ezagutzen.

**Nonito Blanco** > Blanco kontzesionarioko arduraduna

# "Eskiatzera joaten den jendearendako oso egokia da"

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Errepide orotako automobila dugu Nissan X-Trail. Orain dela sei bat urte merkaturatu zuten lehen aldiz eta bertsio berriekin datorkigu oraingo honetan.

Motorrei dagokienez, hiru bertsio ditugu: gasolinazkoa, bakarra, 169 zaldi potentziakoa eta dieselean, bi: 150 zaldi potentziakoa eta 173koa. Aukeran daude, gainera, martxa aldaketa automotikodun automobilak.

Ekipamenduari dagokionez ere hainbat aukera eskaintzen ditu: gama altueneko bertsioek denetik eskaintzen dute: sabai panoramikoa, tindatutako kristalak, kromatutako detaileak, berotzen diren eserlekuak, abiadura kontrolatzeko sistema eta abar. Azken baten, azkeneko teknologia eta aurrerapen garrantzitsuenak.



Nonito Blanco, Nissan X-Trail automobilaren ondoan. A.I.

### 4X4 TRAKZIOA

Errepiderako, egoera normaletan gidatzeko, aurreko trakzioa dauka X-Trailek. 4x4 trakziorako, bestalde, bi aukera ematen dizkigu: batetik, automatikoan jar dezakegu, eta, horrela, automobilak berak automatikoki sartuko du lau gurpiletarako trakzioa. Beste aukera bat da gidariak berak sartzea 4x4 trakzioa, beharra ikusten duenean.

### Nissan X-Trail 2.0 CDI 150 ZP

| | |
|---|---|
| Prezioa | 30.000 eurotik hasita |
| Luzera | 4,63 metro |
| Zabalera | 1,78 metro |
| Maletategia | 1.773 litro(1) |
| Kontsumoa | 7,1 litro /100 km(2) |
| Abiadura | 188 km/h(3) |
| 0tik 100era | 11,2 seg. |
| CO2 isurketak | 190 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

### AUTOMOBIL OSOA

X-Trail automobil osoa da: errepiderako zein mendirako egokia. Horrelaxe berba egin du Nonito Blancok: "Eskiatzera edo mendira joatea gustatzen zaion jendearendako oso egokia da; gainera, bidaia luzeak egiteko ere oso automobil erosoa eta gidatzeko erraza da; ez diot nik, hori bezeroek esaten digute".

Aipatzekoa da, azkenik, maletategian duen espazioa; eserlekuak bota eta dena altura baten geratzen da, oso eroso gauzak sartzeko; gehienez, 1.773 litroko edukiera du.

## etxeko leihotik



**Iban Arantzabal** > Goienako ikus-entzunekoen zuzendaria

# Hamaika arrazoi blogari gehiago izateko

Lagun batek blogari izatia nartzisistia izatia dala esan eta *pikau* egin naiz. Badakizue, zapatu gabeko eztabaidak gogorraguak izaten dira, baiña pasau be seguduan pasatzen diranak... domeka ixa eguardixan jaiki eta ondiokan be kontu hau buruan bueltaka, hala eta be. Ez ba! Pentsau eta idatzi biharko dot zertarako dakaten blog bat. Holaxe egin neban: *Hamaika arrazoi blogari izateko* tituluarekin ekin notsan idaztiari. Sarian dago.

Arrazoiak luze idatzi dittut blogian bertan eta gustauko lejatake hori irakurritta beste blogari bat gehixago izatia gure komunidadian ze hori be bazan helburua. Erreza da eta duan. Guk emongo dotsugu bai zure gustora diseñautako erreminttia eta baitta ikastarua be.

> "Esan zeinke zuk gura dozuna, gura dozunian, zure erara... Blogari izan gura dozu?"

Hau holan: nun dare, esaterako, Debagoieneko politikarixak? Horrenbeste bidar entzun dot *parte-hartze* berbia, baiña zinegotzirik ezagutzen dozue blogarekin?

Maisu-maistrarik animauko da hezkuntzaz idaztera? Tabernariren bat egunerokuaz? Eta kirolarixak kirolaz? eta... Pentsau zenbat euskaldunek irakurriko leuken euskeraz danok idatziko bagiñu astian mezutxo bat, merezi dau, ezta?

**> EA-kua da blogari izatera animau dan bakarra, ondio bloga publiko egin ez daben arren. Lehenengua izan deilla eta ez azkena! Nun dare EAE, EAJ, PSOE, Aralar, EB, Zutik eta PPko blogarixak?**

**> Komunidadia haunditzia da erronkia. Euskeria kalian entzun bihar dala danok gatoz bat, baiña oin sarian be egon bihar dogu euskaldunok. Gu gazen moduko agertu bihar dogu. Animatzen zara?**

## begi-bistan



**Astaputz galanta (Aretxabaleta) 2007/09/11**

**Argazkia:** Lurdes Isasmendi.
**Testua:** Aintzane Irizar.

Maritere Ruiz de Eginok astaputz galanta topatu zuen aurreko astean Muru inguruan: 2 kilo eta 100 gramokoa, hain justu. Untzillan egin zuten ondoko argazkia. Pena da onddo beltza ez izatea!

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Unai Zunzunegi**
TRIALSINLARIA

Katalunian jokatutako Trialsineko Munduko Txapelketan hamargarren sailkatu ziren Unai Zunzunegi eta Aitor Murua aretxabaletarrak. Euskadiko Txapelketan ere oso ondo dabiltza; aurreko domekan, Hondarribiako proban, lehenengo sailkatu ziren biak.



**Jon Azkoaga**
AED-KO KIDE

Arrasateko AED euskara elkarteak Kultura teknikari berria du: Jon Azkoaga 21 urteko arrasatearra, hain zuzen ere. Haren zereginak izango dira, besteak beste, aisialdiko eta kulturako egitarauak prestatzea. Iraitz Agirreren lekua hartu du Azkoagak Kultura teknikari postuan.



**Iñaki Riviere**
PINTOREA

Zarauzko Torre Luzea jauregian hamar margolan jarri ditu Iñaki Riviere arrasatearrak, azaroaren 4ra arte. Orain dela hilabete batzuk Ikusi Arte lehiaketa irabazi zuen eta horregatik antolatu dute orain erakusketa. Rivieren ibilbide artistikoaren erakusgarri da erakusketa hori.

Mugikortasun Astea egin dute aste honetan Arrasaten eta 28ra arte egongo den erakusketaz gain, hitzaldiak ere antolatu dituzte. Beatriz Martikorenak, Aldundiko iraunkortasun arduradunak, ibarreko bizikleta sareaz egin du berba. Aretxabaletatik Eskoriatza aldera doan tartea konpondu egin dute, eta Arrasate alderakoa, berriz egin. Azken hori gaur inauguratu dute.

**Beatriz Martikorena** > Gipuzkoako Aldundiko iraunkortasun arduraduna

# "Garraio ohiturak aldatu egin behar dira Debagoiena inoiz iraunkorra izateko"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

**Debagoienean Gipuzkoako beste eskualdeetan baino auto gehiago ei dabil, eta horri irtenbidea emateko ohiturak aldatu behar ditugula dio Aldundiko iraunkortasun arduradunak. Administrazioak ere lan egin behar duela esan du, gure ibarra inoiz iraunkorra izango dela sinisten duelako.**




GOIENKARIA

**Zein da Debagoieneko errealitatea? Konpara daiteke Gipuzkoako beste eskualderen batekin?**

Alde guztietan moduan, aldaketa handia behar du. Orain arte, autoa hartu eta nor bere kasa ibiltzea izan da. Errepide sarea eginez erantzun diote erakundeek ohitura horri. Baina auto kopurua ikaragarri igo da, eta hori ez da irtenbidea. Orain, beste aukera batzuk eskaini behar zaizkio herritarrari, eta horretan zerikusia dute erakundeek eta garraio enpresek. Horretarako, alde batera eta bestera mugitzeko beharra murriztu egin behar da, hainbat zerbitzu mota eskainiz. Bigarren aukera da garraio iraunkorraren alde egitea: oinez, bizikletan eta garraio publikoan ibiltzea, autoaren erabilera txikituz.

Debagoienean ikaragarri mugitzen zarete; milaka lagunek egiten dute joan-etorria horko industrietatik. Irtenbide osatuagoak jarri behar dira han: garraio publikoa eta bizikletan eta oinez ibiltzeko kanpaina sendoak egin behar dira. Gipuzkoako beste eskualde batzuetako egoera ez da hain muturrekoa, lasaiagoa da.

**Bizikletan ibiltzeko, ordea, sare egokia beharko da. Noraino dago eginda Debagoieneko bizikleta sarea?**

Aldundian zortzi bat urte daramatzagu plan horrekin, baina Debagoieneko udal batzuek aurretik egin dituzte ahaleginak lehengo trenbidea bizikletan ibiltzeko errepide bihurtzen.

Gu, batez ere, herrien arteko zatiez arduratzen gara. Herri barruko bidegorri zatiak udalen eskuduntza dira, nahiz eta elkarlanean egiten diren sarritan. Beraz, guk lehentasuna eman diogu Debagoieneko erdiko ardatzari: Arrasate-Aretxabaleta eta Eskoriatza batzeari. Aretxabaletako bi zatiak oraintxe inauguratuko ditugu eta 2008-2009 bitartean Eskoriatza eta Arabako muga arteko zatia egitea da asmoa; Aldundiko Errepide Sailak egingo du hori. Martxan dagoen beste proiektu bat da Bergara eta Antzuola lotzea San Antonio auzotik, eta baita Bergara-Deskarga-Urretxu. Egiteko daude, oraindik, Arrasate eta Bergara artekoa eta Oñatirako zatia.

**Bateragarria izango da tranbia bidegorriarekin?**

Bai, duda barik. Tranbiak lehengo bidegorria zapaltzen duen tokietan, ondotik egingo dute bidegorri berria. Egia esan, ez dakit tranbiaren proiektua zein puntutan dagoen, baina bidegorria tranbia baino lehen iritsiko den susmoa dut.

**Benetan uste duzu Debagoiena iraunkorra izango dela egunen baten?**

Sinistea dagokit niri, iraunkortasun arduraduna naizen aldetik. Egia da jende askok ez duela sinisten autoa bizikletagatik aldatuz gero dakarren onuretan, eszeptiko asko daude. Baina uste dut iraunkortasunaren alde lan egiteak esan gura duela jendea konbentzitu behar dugula.

**Zer egin edo aldatu behar da horretarako?**

Hasteko, administrazioak, erakunde publikoa garen aldetik, lan egin behar du, herritarraren eta enpresen konfiantza berreskuratu behar du berriro, galduta du-eta. Horrez gain, kalitatezko kudeaketa publikoa egin behar du. Ez dago sistema bateratu perfekturik, baina orain arte nork berea bakarrik egin du.

Talde guztietan sortzen dira ilusioz beteriko plan dinamikoak, baita zuen eskualdean ere. Nik Debagoienean ikusi dudana da parte-hartze handia dagoela, kritika eraikitzailea egiten dutela herritarrek, eta hor ere ezberdina da Gipuzkoako beste edozein eskualderekin konparatuta ere, kasu honetan bere alde. Ikusten da ondo landutako talde-lana dagoela Debagoienean, eta indarrean dagoela, gainera.

**Zein da Debagoienak duen irtenbidea egungo auto pilaketa txikitzeko?**

Beste garraio mota batzuk erabiltzea. Tranbia, bestelako garraio publikoa, herrien arteko bizikleta sarea eta herri barruko bidegorriak, denak erabiltzea.

**Txirrindulariendako ere izango da egingo duzuen bizikleta sarea ala horiek errepidean ibili beharko dute gero ere?**

Egia esan, bizikleta sarea dago pentsatuta herri barruan eta herrien artean ibiltzen diren bizikletazaleendako eta oinezkoendako. Garraio arazoa konpontzeko eta kirola egiteko da bide sare hori, baina aisialdiko kirola egiteko, ez errendimendu handiko txirrindulariendako.

Beste gauza bat da errepideak ez daudela egon behar duten moduan, baina sarea ez da haiendako izango. Konparazio bat egitearren, egungo errepideetan auto lasterketa bat egitea bezala litzateke hori.

PROIEKTUAK

**"Hiru proiektu ditugu martxan Debagoienean, eta beste bi buruan, egiteko oraindik"**

TRANBIA

**"Bidegorria tranbia baino lehen etorriko den susmoa dut, baina bateragarriak dira"**

PARTE-HARTZEA

**"Parte-hartze handia dago ibar horretan, kritika eraikitzailea egiten du jendeak"**



zabalik

Arantxa Jaka

# Marianoren eskerrak

Mariano gure herrira noizbehinka etortzen den ibiltari pobre horietako bat da. Euskal Herrian jaioa da eta bere jatorria ez du ezkutatuko, nahiz eta bere hizkuntza erdara izan. Txikitatik maitasunean eta batasunean errotutako familiaren girotik at bizi izana, aita, ama eta senideengandik urrunduta eta, ondorioz, erakunde batean hazia. Gaztetatik kalea du nagusiki bere etxea. Inguruko aterpe, babes-leku ofizial guztiak ezagutzen ditu, baina bera horretara ezin da eratu.

Herrira ailegatzen denean beti gure etxera etortzen da janari bila (materialki ematen dugun bakarra) eta, horrekin batera, elkarrekin une batez, bederen, elkarrizketa txiki bat edukitzera. Gehiegi esatea izango da beharbada, baina ziur nago maitatua, entzuna, onartua sentitzen dela gure atariko tinbrea jotzen duenean eta horregatik etortzen dela, batez ere.

**"Ziur nago maitatua, entzuna, onartua sentitzea dela gure tinbrea jotzen duenean"**

**"Jatekoa eskuetan hartzen duenean erraz ateratzen zaio: 'Gracias, hermana"**

Pobrea dela nioen hasieran, baina ikusten dudan bakoitzean ze pentsatu ematen dit eta, horrela, aberats bihurtzen zait: bere ondasun guztia, motxila bat; bere aterpea, kalea normalean; bizitzeko motibazioa, egunero bizirik irautea; bere karteran oinarrizko dokumentazioa eta Ama Birjinen estanpa kolekzio bat… eta, hori bai, beti irripar bat ezpainetan eta errespetu handiz hitz egiteko gogo handia. Jatekoa eskuetan hartzen duenean erraz ateratzen zaio barru-barrutik: "Gracias, hermana, de corazón"; eta, jarraian, bi musu.

Mariano, gizakiak dituen oinarrizko premien irudi gertatzen zait: maitatua, babestua, entzuna, onartua, errespetatua… izatearen beharra. Aldi berean, nire bizitzako gauza txikiena eskertzeko, baloratzeko eta zaintzeko deia bihurtzen zait. Eta gizakiari errespetuz begiratzera eta pentsatzera narama: ez da hain zaila egoera horretara heltzea! Egia da nire fedeak naramala halako gogoeta egitera, baina halako egoerek, pertsonak, beraiekin daukatena irakurtzera eraman beharko gintuzkete. Marianorekin zorretan ni neu sentitzen naiz.

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Mirian Biteri **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Fausto, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Marilu Unamuno.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

KILOMETROETAN LAN EGITEKO BOLUNTARIOAK BEHAR DITU ARANZADIK

**Kilometroak jaiaren antolaketa lanak azken txanpara iritsi dira. Bergarako Aranzadi ikastolako kideak azken ukituak ematen ari dira. Bada, jaiegunean, urriaren 7an, lan handia egongo da egiteko. Hori horrela, boluntario bila dabiltza. Horren guztiaren aurrean irakurle batek esan du prest dagoela egun horretan lan egiteko, eta jakin nahi du ea non eman behar duen izena.**

Hainbat lanetarako behar dituzte boluntarioak; hain justu, honako batzordeetarako: garbitasuna, zirkuitua/prebentzioa, txosnak, salmenta eta zirkulazioa.

Interesa dutenek hiru modu dute izena eman ahal izateko: alde batetik, Aranzadi ikastolako idazkaritzan, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara; beste aldetik, *bergara@ikastola.net* helbidera mezua bidalita, honako datuekin: izen-abizenak, telefonoa, norberak lan egiteko nahiago duen batzordea eta jende kopurua, taldean parte hartu nahi izanez gero; eta hirugarrenik, 677 54 05 92 telefono zenbakira deituta.

Antolakuntzatik jakinarazi dutenez, lan batzordearen nondik norako guztiak gero zehaztuko dituzte izena ematen dutenekin, eta horretarako, batzorde bakoitzak dei egingo die batzar batera.

Ordutegiari dagokionez, lan motaren arabera, egun erdiko edo egun osoko jarduna izango da, edo txandakakoa…

Antolakuntzatik gehitu dutenez, edozeinek eman dezake izena, baita ikastolako umeek ere. Salbuespen bakarra dago, alegia, adin muga bakarra ipintzen diete txosnetan lan egin nahi dutenei, horretarako gutxienez 18 izan beharko duteeta.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

NORK BERRITU BEHAR DU ETXEBIDEN ESKAERA?

**Etxebidek eman du aditzera hainbat herritarrek berritu egin behar dutela babestutako etxebizitzen zozketetan sartzeko eskabidea. Bada, nork berritu behar du?**

Etxebiden argitu dutenez, 2002 eta 2003. urteetan izena eman zutenak dira eskaera berritu beharko dutenak.

Eskatzaile horiek eskutitz bat jasoko dute etxean argibide guztiekin eta bete beharreko orriekin. Horrela izango ez balitz, Etxebidera deitu beharra dago: 943 02 29 20 edo 943 02 29 21 telefono zenbakietara.

marrazkiz

Unai Busturia



blog

## Mezua: Etorriko da

**Anjel Lertxundi**
www.berria.info/blogak/lertxundi

Ikusirik gero eta liburu gutxiago saltzen dela, editoreak, burua alferrik estutzeaz etsita, telebista piztu du. Halako batean, iluminazioa: Eta Igerabideren hitzaurrea horko aurkezle-kirolari horri eskatuko banio? Eta Iban Zalduaren ipuin-bildumaren epilogoa kantari pinpirin horrek egingo balu? Liburuaren azalean, egilearen izenaren pare edo nabarmenago, modamodako pertsonaiarena. Barruan, berriz, "Arraunketa bizi-bizi bat balitz bezala irakurtzen da, ostia, Agirreren nobela", eta horrelakoak idatziko lituzke Jose Luis Kortak Kresalaren aitzinsolasean. "Erritmo handiko harri-jasotze garbi-garbia da, ieeup!, Arestiren poemagintza", Iñaki Perurenak Harri eta herriren hitzaurrean.

Salmentak gora egiten hasi diren unean esnatu da editorea. Julio Ramón Ribeyroren Prosas apátridas du eskuetan, liburuak saltzeko proposamen xelebre horren orrialdean zabalik. Etorriko da, etorriko da…

## Million dolars galdera

**Elena Laka**
www.goiena.net/blogak/elena

Umeekin dabilenak badaki txikiek, sei urte artekoek edo, dena galdetzeko ohitura dutela. Galderak, noski, umeen mundu ikuspegitik egiten dituzte, horietan konturatzen gara

plazara

**Mugikortasun Iraunkorraren Astean, gure ibarrean ditugun ohituren gainean hausnartu du Nerea Lazpiurrek. Mugikortasun iraunkorra lortzeko ezinbestekoa da, Lazpiurren iritziz, kalitatezko azpiegitura eta garraio publikoak izatea. Hori izanda, hurrengo urratsa herritarrek eman behar dute eta egunerokotasunean ohiturak aldatzen joan: autoa parkatu, autobusa erabili eta abar.**

Nerea Lazpiur *

# Nola mugitzen gara?

Gaur goizean Arrasatera lanera joateko autobusa hartu dut. Olara heldu orduko gelditu gara auto-ilarak zirela eta. Atzera begiratu dut eta kontuak ateratzen hasi naiz, autobusak 40 plaza zituen eta 8 pertsona gindoazen bakarrik barruan. San Prudentzio pasatu eta berehala berriz gelditu gara, oraingoan begirada aurrera bota dut eta autoak kontatzen hasi naiz. Ez nituen nire begien aurrean 40 auto ikusten eta imajinatu dut 40. autoa ia Epeleko biribilgunean izango zela. Geldi geunden tokitik hasi eta Epelerainoko erabiltzaile bakarreko autoan zihoazen pertsona horiek autobusean sartuko bagenitu, ez legoke auto-ilararik, kutsadura 40 bider gutxituko genuke, zarata, bideen okupazioa, arriskua, erregai kontsumoa, estresa eta beste hainbat faktore murriztuko genituzke.

Azken urteetan gure herri eta hirietan Mugikortasun Iraunkorraren Astea eta Autorik Gabeko Eguna ospatzen ari gara. Europatik datorren kanpaina da eta poliki-poliki gurean ezaguna egin da. Askotan entzun izan dut eta galdetu diot nire buruari ea zerbaitetarako balio ote duten halakoek. Badakigu egun edo aste batean zehar egindako kontzientziazio kanpainak ez duela urte guztirako eragina izango, baina hausnarketarako aitzakia bat den heinean beti izango da ongietorria. Zer esanik ez, mugikortasunaren arazoa ez duela honek konpontzen, oinarrizkoa azpiegitura eta garraio publiko kalitatedun bat edukitzea da, eta hau bai dela ezinbestekoa mugikortasun iraunkorra lortzeko.

Debagoieneko azpiegiturak aztertzen baditugu eta dagoen auto-




MIKEL ARROIABE

mugimenduarekin alderatu, esan dezakegu ez dagoela bide nahikoa hainbeste autorentzako. Baina planteamenduari buelta erdi eman diezaiogun eta beste ondorio hau atera: auto gehiegi daude dauzkagun azpiegiturentzako. Baina gehienetan ez dugu autoaren erabilera zalantzan jartzen eta horrela justifikatzen da errepide, autobide eta autopista berrien eraikuntzak edo inongo zentzurik gabeko AHT bezalako megaproiektuak. Jakitun izan behar dugu gure posibilitateak zeintzuk diren, non bizi garen, nolakoa den gure bailarako orografia eta honek guztiak ingurumenean sortzen duen inpaktua. Bestalde, Debagoieneko garraio publikoaren azterketa eginez gero, pozik

**"Mugikortasun iraunkorra lortzeko ezinbestekoa da azpiegitura eta garraio publiko kalitateduna edukitzea"**

**"Pozik egon gaitezke gurean azken urtean Lurraldebusak ematen duen zerbitzuarekin"**

egon gaitezke bailara mailan azken urte honetan Lurraldebusek ematen duen zerbitzuarekin (gorabehera batzuk izan diren arren). Hau lehenengo pausoa besterik ez da izan eta mugikortasun iraunkorra bultzatzeko bidean ez dago gaizki, baina oinarrizkotzat jo behar dugu ekintza hau.

Azpiegitura eta kalitatedun garraio publikoa izanda, orain zer gelditzen da? Ba hurrengo pausoak herritarrona izan behar du. Gure egunerokotasunean ohitura txiki batzuk aldatzen joan behar dugu, autoaren gehiegizko erabilera murriztu eta keinu txiki batzuk egin. Guztiok egin beharko genukeen ariketa bat da galdetzea gure buruari: nola mugitzen naiz? Modu iraunkorrean egiten al dut? Ingurumenean, osasunean... sortzen dugun eraginaren kontzientziarik ba al daukagu?

Eta zer egin dezakegu egoerari buelta emateko? Hau ez da egun batetik bestera lortzen, jakina, baina has gaitezke pauso batzuk ematen: auzoan ba al dago norbait zure lantoki berean edo inguruan lan egiten duena? Bada, autoan elkarrekin (Internetez ere lor daiteke bidaia-laguna). Bailaran lan egiten al duzu? Bada, autobusen ordutegian kontsultatu eta ikusiko duzu badaukazula zure beharrei egokitzen den zerbitzuren bat. Bizikleta ba al daukazu? Bada, ez erabili kirolerako bakarrik, garraiobide ezin hobea da! Ezin dugu errealitatea ukatu, gu geu gara erabiltzaile eta erantzule. Denon ardura da.

*Nerea Lazpiur, Arrasateko Udaleko Agenda 21eko teknikaria

zer deritzozu?

www.goienа.net

## Eskaintzen diogu arreta gorputzari?

| | |
|---|---|
| BAI | %0 |
| EZ | %100 |

**> BATZUEK GEHIEGI**
Kanpoko itxurari dagokionez, batzuek gehiegi zaintzen dutela uste dut. Zirujia estetikoaz dihardut. Barrukoaren kasuan, aldiz, ez dut uste horrenbeste arreta jartzen zaionik. Kanpokoari beste eskainiz gero...
**Ainara**

**> BAIETZ USTE DUT**
Baietz uste dut. Baina itxurakeriagatik dela iruditzen zait. Uste dut zaintzen dugula gorputza ez osasun ona izateko, osasuntsuak garela esan eta erakusteko baizik.
**Iñaki**

**> KIROL GEHIEGI**
Ez zaizue iruditzen kirola egin beharrarekin apur bat obsesionatuta gaudela? Gainera pertsona kirolaria pertsona osasuntsuaren sinonimo dela pentsatzen dugu maiz, eta ez dut uste horrela denik. Ikusten ditut inguruan kirol nahikotxo egiten dutenak eta euren aurpegia ez da hoberena.
**Mikel**

**DATORREN ASTEKOA: Ondo deritzozu gripearen kontrako txertoari?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

nagusiok beste galaxia batean bizi garela, nahiz eta ez nintzatekeen ausartuko gurea galaxia zuzena dela esaten.

Kontua da umeen mundutik abiatuta, helduoi egiten dizkiguten galderak bitxi iruditzen zaizkigula. Ume txikiekin zabiltzanean galderok barreaedo, eragiten dizute, baina gero normalean segituan ahaztu egiten zaizkit, niri behintzat. Izan ere, umeen hazkuntza oso dinamikoa da, eta segituan doaz etapak pasatzen, etapa batek aurrekoa estali egiten du. Horrela, ohikoa da ikastolan hasi berria den ume baten gurasoa ez akordatzea noiz hasi zitzaion umeari berdurak ematen, edo noiz tokatzen zaien arraina jaten hastea (izango da gurasoren bat sekula jakin ez duena, baina hori beste kontu bat da).

(...) Oierren galderak gertuago dauzkat, txikiagoa delako eta den-dena galdetzen duelako, hitzontzi hutsa da. Joan zen udaberrian ahoan zerabilzkien bi galderek, oso normalak izanda ere, begiak bustita lagatzen zizkidaten:

- "Ama, eta zu noiz hilko zara?".

- "Ama, eta zu hiltzen zarenean, zein izango da nire amatxo?".

Ni Oierrekin Pirritx eta Porrotxen ipuin mega-korrektoak irakurtzen nabil. (...) Ipuin hauen artean badago *Gorka konpontzailea*-rena, gurasotzat ama-bikotea duen mutiko baten istorioa. Hasieran arraro samarra egiten zitzaion Oierri bi ama edukitze hura: "Zelan, bi ama?". Orduan nik, korrektokorrekto, erantzuten nion posible dela bi ama edo bi aita edukitzea, badaudela horrelako bikoteak. Ondorengo galdera, logikoa berarendako, Luisi horrelako grazia egin ziona: "Ama, eta nik zergaitik ez daukat bi ama?"

Korrekzioa barneratu du.

koplak

Manex Agirre

## Asmakizuna

Hitzak neurtuaz kontatu nahi dut
kopla saio labur baten.
Herri trankil bat bi egunetan
nola eralda daitekeen.

*Suiza txikia* deitu zioten
Herri *txiki, lasai, eder*.
Halere horrek ez du esan nahi
ez denik pasatzen ezer.

Biharko ipuin-egunerako
dena prestatzen ari da.
Kale, plaza, etxe ta ermitak
istorioz beteko dira.

Gauean berriz giro ederra
musika, trago… konpleto.
Joan zirenek zer utzi zuten
gogoan edukitzeko.

Eta igandean berriz, tori!
sagardoaren eguna
Eztarria apur bat pozteko
baliatuko duguna.

Herrian izena ez dut esan
eta ez esanarazi…
Zein den asmatzea zuen esku…
benga, ikusi makusi…

# Arantzazura joatea ere modernitatea da

**Ixidor Solupe Zulaika**
(Arrasateko EAJ-PNVko Uri Buru Batzarraren izenean)
Arrasate

Joan zen domekan Arantzazura egindako erromesaldian ikusi zen zela ulertzen duen kultura aniztasuna Arrasateko alkate honek.

Aurten, XXI. gizaldiko 2007. urtean, Euskal Herria herri moderno bat denean, zenbait alderdi eta intelektual kultura aniztasunak dakartzan bide berriak aztertzen ari direnean, Arrasateko alkatea —herriaren ordezkari nagusia— ez da agertu Arantzazuko erromesaldira.

Bera buru den Tokiko Gobernu batzarkideek esaldi honekin esan digute ez datozela Arantzazura: "Ekitaldi mota hauek beste garai bateko espresio bide moduan ikusten dira eta Udalaren izaera laikoa defendatzen dugunez, Arantzazura ez bertaratzea erabakitzen dugu…". Behintzat, beste era batera argudiatuko balute, baina betiko era atzerakoi eta heldu gabea darabilte.

Arrasate gizarte kultur anitza da, sinestunak, ateoak eta agnostikoak daude, kolore guztietako kristauak: katoliko, ebanjelista, Jehova…; musulman zein judutar, andaluziar eta gailego, kolonbiar eta bulgariar, stalinista edo liberal, aurrerakoi edo atzerakoi… Guztiok osatzen dugu herria eta guztiok ditugu eskubideak, alkateak kontuan hartu beharko lituzkeenak.

Arantzazura aurten mila bat pertsona hurbildu gara Arrasatetik, sentsibilitate baten adierazle garenok, alkatea Udalaren izenean joan den zenbait ekitalditan baino zati bat gehiago bildu baikara, eta talde honek bere alkatearen agurra ongi merezia duela erakutsi du. Joaten direnei inoiz ez zaie galdetu botoa alkate honi edo beste edozeini eman dien, ez eta katolikoak diren, etorri diren neurrian ongietorriak izan dira.

Arrasatearrok Arantzazura erromesaldian joatea 1600. urtetik dator, Arantzazura iristean kantu propioaz agurtuak gara: "Arantzazun Maria agertu zanean Oñatigaz Mondragoe eukan bere aldian…", eta gainera gure bailarako arkitektura modernoko eredu den eraikinak duen kariloiak orduak jotzerakoan, ordu oro, Arrasateko kantuaren notak ateratzen ditu.

Zer nahi duzu ba adierazpen aske, zabal, kultura aniztasun eta modernoaren eredugarriago? Berria eta modernoa ez dira gauza bera, aspaldikoa izan daiteke modernoa eta berria karka; eta alkatearen jarrera ikusiaz galdetu: akonfesionaltasuna argudiatuz Arrasateko agintari hauek ez al daude kultura aniztasuna baztertzen?

Eskerrak eman nahi dizkiegu Arrasateko Udaletik agertutako zinegotzi, Udaltzaingoburu, txistulari eta dantzariei.

# Kalitatezko hezkuntza denentzat!

**Maite Aristegi Larrañaga**
(San Martingo gurasoa)
Bergara

Bergarako zeruan, uso xuria hegan. Soro desberdinetan aldatutako gure ikasle-landarediari begira. Alor bakoitza bere izaera eta nortasunarekin, baina hirurak euskaraz ureztatuta, ongarri naturala, euskara guztietan. Landare berriak jaio ahala batean edo bestean txertatzen dira, naturaltasunez. Nekazariak, lorezainak, irakasle euskaldunak. Lurra ziurtatu behar dutenak, denentzako baldintza egokietan dagoen nahiko lursail prestatu behar dutenak, bereziki Jaurlaritza eta Udala. Azken urteetan, lo egonik edo utzikeriagatik beren ardura bete ez dutenak. Herri baten altxorra, etorkizuna diren belaunaldi berrien hazte-hezte prozesuan oztopoak pilatuaz, ekonomiko eta pedagogikoez gain, une hauetan eraikinei dagozkienak, eta oso larriak. San Martingo landaredia azkenaldian asko ugaritu denez lekua eskatzen dihardu aspaldian, ia itotzerainoko baldintza onartezinetan baitago. Normala denez, garai batean berak utzitako eraikin publiko eta hurbilekora zabaldu nahiko luke, mapa eskolarraren definizioaren arabera urtetan agindu izan zaion legez. Baina urte askoan Aranzadiko landarediak hori erabili ostean, konpartitze-egoera berrira egokitu eta poliki-poliki hustuko badu irtenbide bat bilatu behar eurek ere. Eta hori besterik ez da! Azken batean, haur guztiek espazio egokian hezteko duten eskubidea bermatzea. Baina, ia eraikin arazo urbanistiko soila zitekeena, arazo politiko, soziala eta bergararron bizikidetzarako gatazka korapilotsua sortzeko arriskutan da.

Eta usoak dio ezetz. Hezkuntzaz ari gara, balore jatorren transmisioaz, etorkizunean Herria egingo dutenengan txertatuko dugunaz. Ondorioak bereziki haur eta gazteek jasaten dituztelako, dagokienei, hitz-egiteko, mugitzeko, konpontzeko! Eskola bakoitzari zor zaion errespetua oinarri, eraikin horren historiaren egiatik abiatuz, gaizki ulertuak argituz, administrazioak eta eskolak beren arduren jabe eginaz, datu gardenak eskuetan, lehenbailehen eraikina konpondu eta denentzako lekua egiteko! Gero, lasaiago, osotasunari irtenbidea bilatzeko. Eta egoera baretzeko. Mingarriak dira pertsonalizazioak. Joan den astean txoko honetan idatzitako "etsai", "mendeku" eta halako hitzendako ez dago lekurik. Ez eta hain gaindituak dauden "nazionaletako" garai ilun haietako aipamenendako ere. Oinarri etikoak errespeta ditzagun denok, inor inoren "aurka" jarri gabe.

Eta gero hitz egingo dugu lasai publifikazio prozesuak utzitako zauri edo ondorioez, ikastolekin dugun zorraz, gizartearen eboluzioaz, hezkuntza sistema desberdinen egungo definizioaz, bakoitzaren alde on eta hutsuneez, Euskal Herri osoan guztiei kalitatezko hezkuntza euskalduna eskaintzeko dugun oztopo politikoaz…

Zorionez, Bergara bezalako herri batean (urte gutxitan ehunka etorkin berrirekin) eskola guztiak euskaraz ematearen alde egin izana ez da urrats txikia, eta hortik abiatuta, egiteko dugun dena ikusita, egoera konpondu, liskarrak baztertu eta elkarlanaren bidea baino ez zaigu gelditzen.

Usoak dio, bakearen alde, hurrengo euskararen festan parte hartzea espero duela. Ea bada!

# Hiru ikastetxe

**Ana Ilarduia**
Bergara

Eskubide bat da umeak eskolaratzeko aukera ezberdinak edukitzea eta eskubide hau erabiltzeko gurasoek eskaintza ezberdinak aztertu behar dituzte. Eskaintza hauen arteko ezberdintasunak zeintzuk diren aztertu ostean, norberarendako egokiena dena aukeratzea da eskubidea.

Zorionez, Bergaran hainbat eskaintzaren artean aukeratu daiteke; izan ere, ikastetxe bakoitzak ahaleginak egingo ditu ahalik eta hezkuntza kalitate hoberena eskaintzeko.

Arazo administratiboak, instalazioenak, hauen egokitzapenak eta abar —ikastetxea aukeratzeko orduan kontuan hartzekoak direnak— hezkuntza entitate bakoitzak hartarako sortutako organoek eta baita gurasoek ere konpondu beharko dituzte, ikastetxearen antolaketan buru-belarri sartzen diren heinean.

Horregatik, ez zait bidezkoa iruditzen arazoa konpontzeko Bergarako San Martin plazan umeekin elkarretaratzea egitea.

Bergaran hezkuntza eskaintza ugaria eta kalitatekoa edukitzen jarraitzearen aldekoa naiz eta hiru ikastetxe egotearen aldekoa: San Martin, Mariaren Lagundia eta Aranzadi ikastola.

Aranzadi ikastola izan zen nire aukera; hura aukeratu nuen nire bi semeak haurtzaindegitik selektibitatera arte eskolaratzeko.

Honen bitartez, animuak eman nahi dizkiet Aranzadiko irakasle, ikasle, guraso eta, oro har, Kilometroak jaian ikastola honi laguntzeko prest dauden herritar guztiei.

# Gudariekin batera

**Enrike Letona**
(Ezker Abertzalearen izenean)
Arrasate

Dagoeneko 32 urte pasatu dira larunbat goiz batean ziegatik atera eta ETAko Txiki eta Otaegi eta FRAPeko Sanchez, Baena eta Garcia hil zituztenetik. Fisikoki betiko joan ziren, baina urte hauetan guztietan gure bihotzetan egon dira, inolako zalantza izpirik gabe. Gainera, Euskal Herrian egun hori aukeratu da hildako beste gudari guztiak ere oroitzeaz gain, omenaldi bat eskaintzeko. Izan ere, 1975eko irailaren 27an Frankismo legalak azken 5 erailketa hauek aurrera eraman zituen, baina aurretik ere ugari izan ziren faxismoaren eskuetan eroritakoak. Eta geroztik ere, asko dira faxismo mozorrotuaren eskuetan erori diren gudariak. Horietako guztiei krabelin gorriak. Haien senideei, berriz, gure berotasuna.

Txiki eta Otaegi Euskal Herri sozialista eta independentea lortzeko borrokan aritu ziren eta beste gudari guztiek ere helburu bera zuten. Askatasun egarria dugu eta askatasuna nahi dugu ere beste herri guztientzat. Abertzaleak gara eta harro gaude, baina gure abertzaletasuna askatzailea da eta ez menperatzailea. Ez gara beste inor baino gehiago, baina ezta gutxiago ere. Ez dugu zapalketarik onartzen ez guretzat ez beste inorentzat. Eta herri bezala eta pertsona bezala ditugun eskubideak errespetatuak izango diren arte borrokan jarraituko dugu. Euskal Estatu sozialista nahi dugu. Hori da gure xedea, nahiz eta oso garbi izan hainbat etapatatik pasatu beharko garela.

Une honetan proiektu guztiak defenditu eta gauzatu ahal izateko borrokatzen dugu. Une honetan indarkeria mota guztiak desagertu daitezen borrokatzen ari gara. Euskal Herriaren esparruan pertsona bat bozka bat defendatzen dugu, hori baita egiazko demokrazia. Eta hortik ateratzen dena gauzatu ahal izatea. Beste guztiak prest egongo lirateke hori sinatzeko? Horrekin amaituko zen gatazka, horrekin izango genituzke guztiok aukera berdinak.

Bide hau ez da erraza, baina ez dugu ezagutzen besterik. Txiki, Otaegi eta beste guztiok hartutako bidetik, borrokaren bidetik, jarraituko dugu, hori baita askatasunerantz eramango gaituen bidea. Agur eta ohore, ez adiorik!

# Eskerrak Udalari

**Arantza Elortza**
Bergara

Askori, oraindik ere, Bergarako San Martin jaietako biharamuna aldean dugula, egun hauetako balorazioa egiteko unea iritsi zaigu. Lagunen artean, lantegian, bulegoan…, denok egingo ditugu komentarioak. Nik, ordea, haratago iritsi nahi nuke, eta lerro hauen bitartez Bergarako Udala zoriondu nahiko nuke. Jai zoragarriak izan dira, denon gustuko ekitaldi, musika saio… egon da. Ondo pasatu nahi zuenak bazuen, bai horixe, zer aukeratu.

Hortaz, hemendik, bihoa nire eskerrik beroena Udalari antolatu dituen jaiengatik. Aspaldi ez dut, nik behintzat, horren giro polita sumatu herrian.

# ZUZENKETA

## Etxebide

Joan den asteko GOIENKARIAn, irailaren 14koan, albiste bat argitaratu genuen Etxebideren gainekoa. Hain justu ere, Etxebiden orain dela lau urte edo gehiago izena eman zutenek eskabidea berritu behar dutela argitaratu genuen. Informazio hori ez da zuzena. 2002 eta 2003. urteetan izena eman zutenak dira eskaera berritu beharko dutenak. Eskatzaile horiek eskutitz bat jasoko dute etxean. Horrela izango ez balitz, Etxebidera deitu beharra dago: 943 02 29 20 edo 943 02 29 21 telefono zenbakietara. GOIENKARIAk *www.etxebide.info* web gunetik jaso zuen esandako berria, eta, oraingo astean jakin dugunez, informazio hori oker zegoen webgunean.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 01**

Faxa

**Faxa:**
**943 25 05 13**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**


"Musika nonahi entzun dadila".
Arkaitz, Hernani.
Zuk horixe nahi duzu, eta gu horrexetarako ari gara lanean. Kutxan ongi asko dakigulako gaur esaten diguzuna entzuten, bihar zure nahiak gauzaturik ikusi ahal izan ditzazun. Zuri esker ari baita, egunero, gorantz egiten kutxaren Gizarte-Ekintza.
zer nahi duzu bihar?
kutxaren 2007ko Gizarte Ekintza
76 milioi euro
1.200.000 onuradun
4.300 jarduera Gipuzkoan
Osasuna
Gizarte-Laguntza
Elkartasuna
Hezkuntza
Ikerkuntza eta Enplegua
Kultura 5 milioi, kultura jende guztiarengana hurbiltzeko
Aisialdia
Ingurumena
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa


Chevrolet-ek diesel eta gasolina autoetan aukera zabala eskaintzen dizu. Aukeratu zurea.
MATIZ .................. 6.990€-tik aurrera
KALOS .................. 8.365€-tik aurrera
AVEO .................. 10.170€-tik aurrera
LACETTI .................. 11.020€-tik aurrera
NUBIRA .................. 11.895€-tik aurrera
TACUMA .................. 12.895€-tik aurrera
EPICA .................. 20.500€-tik aurrera
CAPTIVA .................. 23.800€-tik aurrera
GEHIAGO DA.
CHEVROLET
Giauto Eibar • Otaola, 27 • Tel.: 943 202 500 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es
Giauto Olaberria • Karobi Ind. • Tel.: 943 885 150 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es
Penintsula eta Balear uharteetan gomendatutako salneurri ondorengo autoendako: Matiz 0.8 S /Kalos 1.2 SE 3P /Aveo 1.4 LS /Lacetti 1.4 SE /Nubira 1.6 SE 4P /Tacuma 1.6 SE /Epica 2.0 LT /Captiva 2.4 LS (BEZ-a, matrikulazio zerga, garraioa, promozioa eta Prever plana barne).
Hilabete bukaera arte baliogarria. Kontsumo mistoa (l/100). CO2 emisioa (g/km). Matiz: 5.2-5.7/127-139. Kalos: 6.4-7.1/153-169. Aveo: 6.7-7/160-173. Lacetti: 5.7-8.8/146-210. Nubira: 5.7-8.8/146-210. Tacuma: 8-9.3/191-234. Epica: 6.1-9.3/169-219. Captiva: 7.2-11.5/191-264.


UDAL EUSKALTEGIAK
www.udaleuskaltegiak.net
matrikula zabalik
ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza 2
(Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren ondoan)
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88 • Fax: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi 13, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net
LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2-4, 20.550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 21 68 / Faxa: 943 79 92 62
Intxartxueta 10, 20.540 ESKORIATZA
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net
HABEren dirulaguntzaz.
Egizu euskaraz!
nahi baduzu...
egingo duzu
26 urte euskara irakasten. Maila guztiak. 43 zentro.
HABEko diplomak. Egokitutako ordutegiak. Bekak...

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** > 24-29 **Aretxabaleta** > 31-32 **Oñati** > 33
**Eskoriatza** > 34-35 **Antzuola** > 36 **Aramaio** > 37 **Elgeta** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39



**> BERGARA**
Udal Euskaltegiak 25 urteurrena ospatuko du 07/08 ikasturtean **> 25**



**> OÑATI**
San Migel jaien egitaraua aurkeztuko du Udalak **> 33**



**> ESKORIATZA**
*Eskoriatza iruditan* argazki zaharren bilduma Interneten ikusgai **> 34**



**> ARAMAIO**
Sagardoaren Eguna ospatuko dute zapatuan Aramaion **> 38**

**OÑATI** > NAZIOARTEKO ARTZAIN TXAKURREN TXAPELKETA

# Artzain txakur onenak izango dira lehian domeka goizean Oñatin

**48. EKITALDIA**
Aurten 48. ekitaldia jokatuko da Santa Lutzia zelaian

**HAMABI PARTAIDE**
Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko onenak lehian

**OMENALDIA**
Jose Mari Arexolaleiba eta Ramon Larrañaga omenduko dituzte aurten



**GIROA BERRESKURATUZ** Ikusle kopuruak azkenaldian behera egin duen arren, garai bateko giroa eta jendetza berreskuratu nahi dituzte antolatzaileek. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa jokatuko da domekan Oñatiko Santa Lutzia zelaian, 11:00etan hasita. Aurtengoa lehiaketaren 48. ekitaldia da eta artzainen esanetara hamabi txakur arituko dira lehian. Ohikoa denez, hiru ariketa egin beharko dituzte partaideek: lehenbizikoan, epaimahaiak izendatutako bi lekutan gelditu beharko du artzainak txakurra eta gero ardiengana astiro sartzeko agindua emango dio (hiru minutuko ariketa gehienez); bigarrenean, artaldea dagoen lekutik hartu eta zelai barrenean dagoen makila baten ondora ekarri eta bertan txakurra eta artaldea gelditu, eta jarraian eskumako ala ezkerreko hesi artetik pasatu (sei minutu); eta, azkenik, artzainaren aginduz, txakurrak artaldea hartu eta erdian dagoen eskortan sartu behar du eta gero handik atera (zazpi minutu). Lau artaldetan banatutako 120 ardi inguru erabiliko dituzte Santa Lutzian.

Jose Mari Bengoa antolatzailearen arabera, artzain txakur onenak izango dira domekan, eta ez da erraza irabazlea nor izan daitekeen asmatzea: "Denak dira txapeldun euren herrialdeetan eta beti bezala lehia handia izango da. Ardiek ere zeresan handia izaten dute; ardi batek hanka eginez gero, pikutara bidaltzen dizu egindako lan guztia. Zortea ere beharrezkoa da Oñatin. Era berean, nazioarteko txapelketa denez, presioa handia izaten da eta artzaina urduri ez jartzea funtsezkoa da, txakurrek berehala sumatzen diotelako ugazabari ohi baino agindu gehiago ematen dituen, urduri dabilen".

**BI LAGUN OMENDU**
Aurten ere omenaldia prestatu dute antolatzaileek: urtetan txapelketan esatari lanak egin zituen Jose Mari Agirrebaltzategiren omenezko saria bi lagunek jasoko dute: alde batetik, 20 bat urtetan antolaketan ibilitako Jose Mari Arexolaleiba eta, bestetik, ia hasieratik txapelketan lehiatu den Ramon Larrañaga azkoitiarra omenduko dituzte.

## Jauregi eta 'Bizkor' laugarren txapelaren bila eta Plazaola eta 'Linda' faboritoen artean

*Bizkor* txakurrak hiru aldiz eman dio txapela (2003, 2005 eta 2006) Ilarduiako Jose Mari Jauregiri. Euskal Herriko txapeldunak (Xabier Urien eta *Txiki*), Bizkaikoak (Kepa Ardanza eta *Izar*), Castellokoak (Julio Bayot eta *Espurna*), Pleguezuelos kataluniarrak (*Nuca*) eta Iparraldeko ordezkariek ez dizkiote gauzak erraz jarriko domekan. Txakurretan, border collieak eta euskal artzainak dira nagusi. Bengoaren hitzetan, "Euskal Herrian, bertako txakurra bultzatzeko erabakia hartu genuen orain dela 10 urte. Gure txakurrek, onak ateratzen direnek, ez dute border collie txakurren inbidiarik izan behar. Izaeragatik nahiago ditut gureak". Debagoiendar irabazle bakarra izan da: Jose Iturbe arrasatearra, 1955ean, *Txino* txakurrarekin. Domekan haren lekukoa hartzen saiatuko da Jesus Mari Plazaola, *Linda*-rekin. Gipuzkoako txapelduna laugarrena izan zen domekan Euskal Herriko Txapelketan, Atxondon. Oraindik Oñatiko *ginda* falta zaie arrasatearrei.



Jesus Mari Plazaola arrasatearra *Linda* txakurrarekin, iazko erretratuan. X.URTZELAI

# zerbitzuak

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ARRASATE

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 21 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Zapatua, 22 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Domeka, 23 | Corcuera | Aranbarri 1 | 943 79 22 26 |
| Astelehena, 24 | Irizar | Erguin 15 | 943 79 12 39 |
| Martitzena, 25 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Eguaztena, 26 | Español | Araba Etorbidea 1 | 943 79 18 65 |
| Eguena, 27 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |

### BERGARA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 21 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Zapatua, 22 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Domeka, 23 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Astelehena, 24 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Martitzena, 25 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 26 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Eguena, 27 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |

### OÑATI

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 21 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Zapatua, 22 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 23 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 24 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Martitzena, 25 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 26 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 27 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |

### ARETXABALETA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 21 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Zapatua, 22 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 23 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 24 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 25 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 26 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 27 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

### OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### GARRAIOAK

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

### DEBAGOIENA

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

## URBANOAK

### ARRASATE

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

### BERGARA

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

### ARAMAIOKO AUTOBUSA

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

# eguraldia

## DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 22**

Zerua hodei guneekin egongo da, tarteka hodeitsu. Zaparrada arin-ertainak botako ditu, arratsaldean batez ere. Norabide aldakorreko haize ahulbizia ibiliko da.



**Domeka, 23**

Tenperatura minimoak egonkor mantendu edo gutxi igo eta maximoak moderatuki igoko dira. Hegoaldeko haizea nagusituko da.

## EUSKAL HERRIAN

Giro atsegina orokorrean, euria egiteko arriskua egongo bada ere, zapatuan batez ere. 8 eta 24ºC bitarteko tenperaturak izango ditugu aste bukaeran. Brisa apur bat ibiliko da. Astelehenean, berriz, eguraldiak txarrera egingo du.



## TENPERATURAK

**MINIMOA** Eguena, 13 — **10 ºC**

**MAXIMOA** Domeka, 16 — **32 ºC**

**ASTEKO EURIA** ($l/m^2$) — **18 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 12** | 20 ºC | 12 ºC | - $l/m^2$ |
| **Eguena, 13** | 25 ºC | 10 ºC | - $l/m^2$ |
| **Egubakoitza, 14** | 21 ºC | 17 ºC | - $l/m^2$ |
| **Zapatua, 15** | 28 ºC | 14 ºC | - $l/m^2$ |
| **Domeka, 16** | 32 ºC | 15 ºC | 2,5 $l/m^2$ |
| **Astelehena, 17** | 24 ºC | 17 ºC | 13,4 $l/m^2$ |
| **Martitzena, 18** | 17 ºC | 14 ºC | 2,1 $l/m^2$ |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

## ILARGIA IRAILEAN



| Ilgora | Ilbete | Ilbehera | Ilberri |
|---|---|---|---|
| 19 | 26 | 3 | 11 |

# oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> 1948an jaiotakoek afaria egingo dute**
Hilaren 29an egingo dute, Zabala jatetxean. Izena emateko 50 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan. Afari egunerako joan-etorriko autobusa egongo da Fraiskozuritik.

ARRASATE
**> Aretoko dantzen ikastaroa Abaroan**
Urriaren 3an hasiko dira eskolak. Parte hartu nahi dutenek esandako egunean azaldu besterik ez dute. Iaz bezala, eguaztenetan izango dira eskolak, 10:30-11:30.

BERGARA
**> Alderdi Egunerako autobusa antolatu dute**
Hilaren 30ean Forondan ospatuko den Alderdi Egunera joateko autobusa antolatu dutela eman du jakitera Bergarako EAJk. 09:00etan irtengo da, autobus geltokitik. Hala, autobusez joateko interesa dutenek aurrez izena eman beharko dute batzokian edo 943 76 47 00 zenbakian.

ARRASATE
**> Maritxu Kajoi egunekoluntxerako izenematea zabalik dago**
Abaroak antolatzen du eta izena eman behar da hilaren 28a baino lehen. Izena emateko bazkide txartela erama behar da Abaroako bulegora.

ARRASATE
**> 1943an jaiotako emakumeen bazkaria**
Urriaren 27an izango da, batzokian. Izena emateko 20 euro aurreratu behar dira Muruamendiaraz gozotegian.

BERGARA
**> Zabalik dago izenematea Xipizaro ludotekan**
3 eta 12 urte arteko umeendako da. Astelehenetik egubakoitzera eman daiteke izena, 10:00-20:00, zenbaki honetan: 696 15 99 24.

OÑATI
**> Zabalik dago Haurreskolarako izenematea**
Hilaren 28ra arte egongo da zabalik. Haurtzaindegian azaroan hasiko da matrikulazio epe hori.

ARRASATE
**> San Juan parrokiako mezen ordutegia**
Abuztuan moduan egingo dituzte mezak irailean ere. Hau da, astelehenetik egubakoitzera ez dute mezarik esango. Hala ere, hiletarik balego, ohiko ordutegian egingo litzateke, 19:00etan. Zapatuan, berriz, mezak esango dira 19:00etan eta domekan, 11:00etan.

ARRASATE
**> Txatxilipurdik lan eskaintza egin du**
Ludoteka eta gazte txokoetarako dinamizatzaileak behar dituzte. Arrasateko ludotekan eta gazte txokoetan lau orduko kontratuko lana eskaintzen dute; eta Aretxabaleta, Eskoriatza eta Antzuolako gaztelekuetan aste bukaerako lana. Informazio gehiago: 943 79 54 46.

DEBAGOIENA
**> AEK-k autoikaskuntza eskolak emango ditu**
Ohiko eskaintzaz gain, autoikaskuntza eskolak ere emango dituzte Bergarako eta Arrasateko AEK-ko euskaltegietan. Ikasturte berrirako matrikulazio epea zabalik dago hilaren 27ra arte.

BERGARA
**> Begirale lan poltsa osatu nahi du Jardun elkarteak**
Asteburuetan lan egiteko da. Beharrezkoa da euskaraz ondo jakitea. Begirale titulua, ikasketak eta esperientzia izatea baloratuko dira. Izena emateko azken eguna da irailaren 22a. Horretarako, bidali curriculuma helbide honetara: Jardun elkartea, Errotalde jauregia z/g, 20570 Bergara. Informazio gehiago: 943 76 36 61.

ARRASATE
**> Joskintza eta eskulan ikastaroak Abaroa elkartean**
Abaroa erretiratuen elkartetik jakinarazi dutenez, hilaren 19an, eguaztena, hasiko dira joskintza eta eskulan ikastaroak. Izena emateko jo elkartearen bulegora.

BERGARA
**> 1947an jaiotakoek afaria egingo dute Tartufo jatetxean**
Irailaren 29an egingo dute, Tartufo jatetxean, 21:00etan. Prezioa da 55 euro eta sarrera egin behar da hilaren 22a baino lehen Euskadiko Kutxako zenbaki honetan: 009.1.09901.9. Joan-etorrirako autobusa egongo da –20:30ean abiatuko da Santa Marina ostetik–.

ARRASATE
**> Musakolako kanpoko igerilekuak itxi eta neguko ordutegia hasi da**
Kanpokoak itxi eta barruko igerilekuak daude zabalik dagoeneko. Ordutegia da: astegunetan, 07:00-22:00; zapatuetan, 08:30-20:30 eta domeketan, 08:30-14:00. Bulegoetako ordutegiari dagokionez, hark ere neguko ordugia du: 09:30-12:00 eta 13:30-18:30. Egubakoitzetan, berriz, 09:30-14:00.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

# Zer egingo zenuke tabernari eta bizilagunak konpon daitezen?



**Maider Errasti**
Ikaslea
Aretxabaleta

Ordutegiarekin eta zaratekin adostasunera heldu beharko lukete, Udalaren laguntzarekin. Tabernek ordutegia errespetatu behar dute, bizilagunak, batzuetan, larregi kexatzen badira ere.



**Mauricio Vega**
Erretiratua
Arrasate

Udalak ezarritako ordutegiak eta zaraten muga betetzeko dira, eta Udaltzaingoa bidali beharko luke Udalak hori errespetatzen ez duten tabernetara. Irtenbidea, hala ere, ez da batere erraza.



**Oihana Azpiazu**
Langilea
Donostia

Bizi izan naiz jendea ateratzen den kaleetan, eta sufritzen duzu, baina, era berean, festan ere ibilia naiz. Irtenbidea ez da erraza. Leku egokiak bilatu beharko lirateke jaia egin ahal izateko.



**Antonia Perez**
Langilea
Arrasate

Erdigunean bizi naiz eta etxe parean taberna bat dut. Zaratak ez nau batere gogaitzen. Arazoak dituzten bizilagunek erreklama dezatela, baina nik, behintzat, ez dut inolako arazorik.



**Iban Rodriguez**
Ikaslea
Arrasate

Tabernen ordutegia ondo ikusten dut, jai batzuetan motzegia bada ere. Tabernetan zarata handia dagoenik ere ez zait iruditzen. Bizilagunak, batzuetan, gehiegi kexatzen dira. Ez dut uste arazo larria denik.

txaloak eta txistuak



M.B.

## Farolak falta dira Santa Barbarako parkean

Arrasateko Santa Barbarako parkean farola bi jartzea falta dela jakinarazi du irakurle batek. Horiek sartzeko zuloak aspaldi egin zirela eta oraindik ez direla jarri salatu du. Ondoan umeendako zaburuak daudela eta, beraz, arriskutsua izan daitekeela ere ohartarazi du.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

## 200

Horixe da Oñatiko aurtengo San Migel jaietarako aurkeztu den leloen kopurua. Herriko Laixan euskara elkarteak antolatzen du esandako txapelketa. Nagore Aranburuk irabazi du, *Txantxikua uretan eta euskeria aguetan* leloarekin. 60 euro eskuratu ditu Aranburuk.

usteak uste

**Iker Barandiaran**

## Taldean aritu 'Kantari'

Aurrekoan Debagoienean *Kantari* karaoke ikuskizuneko entsegu batera joan nintzen, koreografiak ikastera joan ziren ume eta gaztetxoei argazkiak egitera, eta Donostialdetik zetozten kazetariei harrera egitera. Astean Maite Albes dantza irakasleak Bergarako Arantzadi ikastolan jarri du *kanpamendua*, eta ume eta gaztetxoak motibatzen eta koreografiak perfekzionatzen dabil, Irati kameraren laguntzarekin.

Hainbat parte-hartzaile igaro ziren handik arratsaldean. Ez dakit zein eskola edo ikastolako ikasle ziren –behingoz bada ere, alde batera utziko dugu hori, helduok holakoei garrantzia handiegia ematen diegueta–, baina poz-pozik ikusi nituen, urduri eta ilusioz.

Poztu ninduen jakiteak txikienak gai direla irabazlerik ezta galtzailerik, sailkatutako eta kanporatutakorik gabe, ekimen baten ilusioz esku hartzeko, nahiz eta saririk edo besteengandik nabarmentzerik ez dagoen.

Oso pozgarria iruditu zait ohiko denbora-pasak alde batera utzi eta lagun artean kanta bat ikasi, dantzak asmatu eta ondo pasatzeko gai izatea. Badakit telebistan edo jendaurrean aritzeak baduela horretan zeresana, baina aipatutako lorpenak ez dira gutxi.

5 galdera...

# Dolores Altzaga

GKBko arduraduna
Eibar

**1. Azken asteetan oinarrizko produktuen prezioak nabarmen igoko direla esaten ari dira. Gipuzkoako Kontsumitzaileen Batasunera jo dugu horren gainean mintzatzeko. Prezioak igotzen hasi dira dagoeneko?**

Igoko direla esaten ari dira behin eta berriro, agian kontsumitzaileak nola erantzuten duen ikusteko. Zereala lehengai duten produktuak dira igo behar direnak, hala nola arrautzak, esnea, oilaskoa eta behi-haragia. Horrez gain, galirina duten produktuak ere igoko direla diote: ogia eta pasta, esaterako.

**2. Zein da arrazoi nagusia igoerak horren nabarmenak izateko?**

Arazoa banatzaileetan dagoela ematen du. Egia da abeltzain eta nekazariei asko igo dizkietela lehengaien prezioak. Baina haiei ez zaie produktuak saltzerakoan horrenbeste ordaintzen. Garestitzea banatzaileetan dago.

**3. Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, hemen askoz garestiagoak dira oinarrizko produktu horiek...**

Bai, hala da. Gure erosteko ahalmena Frantzia edo Austriakoa baino askoz murritzagoa da. Proportzionalki, guk baino gutxiago ordaintzen dute oinarrizko produktuengatik eta petrolioagatik.

**4. Egoera horren aurrean, ezer egin daitekeela uste duzu?**

Guztiok ados jartzen baldin bagara presioa egin dezakegu, baina hori lortzea oso zaila da. Egun batean arrautzak edo ogia erosteari uko egiteko gauza gara, baina behin betiko ez. Administrazioei euren esku dagoen guztia egin dezatela eskatzen diegu.

**5. Zer esan gura duzu horrekin? Zer egin dezakete administrazioek?**

Jatorrizko prezioetatik merkatukoetara dagoen diferentziaren arrazoia azter ditzatela eskatzen dugu. Banatzaileengan arreta handiagoa jarri eta kontrolatu beharko lituzkete.





iKER

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
**BAINUAK:** ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

EUROPAKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA
2007ko IRAILAREN 17tik - 23ra

ARRASATE

Aldaketa eskatzen digu munduak

Arrasatek aldaketa eskatzen digu




EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

ingurumena.net — Gure esku dago / Está en nuestras manos
Udalsarea 21
Arrasateko Udala — Ayuntamiento de Mondragón
Agenda 21
Leintz Garraioak S. L.

Egitaraua •• Arrasate

**HIRIBUSA**
Irailaren **17tik 22ra** esku-orri honetako **bonoekin hiri busean bidaia doan**
Irailaren **21ean**, ostirala, **hiri busa guztiz doan** (ez da bonorik beharko)

**ERAKUSKETA**
**Irailaren 17tik 28ra Kultur Aten -**
- Bizikleta-bideen planak Arrasaten eta inguruetan
- Eskolako Agenda 21 (06-07 ikasturteko esperientzia)

**Bide Segurtasun Hezitzaileen BILERA (EAE)**
**Irailaren 20 eta 21 Kultur Aten**
- Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoa 2007-2010. EAEko Bide Hezkuntzaren ereduaren azterketa



**Egubakoitza, irailaren 21ean**
**17:00 Mugikortasun eta irisgarritasun tailerra -Seber Altube plaza-**
- Irisgarritasuna lantzeko jarduerak eta oztopo ibilbidea
- Adin guztietako neska-mutikoentzat eta helduentzat



**Zapatua, irailaren 22an**
**BIRZIKLETA AZOKA – Bigarren eskuko bizikleta azoka**
**-Seber Altube plaza-goizean 11:00 – 14:00 Arratsaldean 17:00 – 19:00**



**Domeka, irailaren 23an**
**11:00 Bizikletan ibilaldia Arrasatetik Aretxabaletara bidegorritik**
**-Irteera: Seber Altube plaza-**

autoan elkarrekin

www.arrasate-mondragon.org
Bidaiarako automobila beste batekin banatzeko interesa duten **pertsonak elkartzeko zerbitzua**

**HEZKUNTZA** > ARRASATE MUSIKAL

# Arrasate Musikaleko ikasleak, Monterronera

Aprendizen Eskolaren egoera aztertzen duten bitartean izango dira Arrasate Musikaleko ikasleak Monterronen



**EGOKITU** Monterron egokitu egin beharko dute, ikasleak hartzeko. GOIENKARIA

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Arrasate Musikaleko ikasleek Monterronen hasiko dute ikasturtea. Hori egiteko, baina, lehenengo egokitzapen lan batzuk egin beharko dituzte Otalora kaleko jauregian.

Jon Garaik, Kultura Saileko teknikariburuak, azaldutakoaren arabera, Monterron jauregiak dituen lau solairuetan 23 ikasgela egokitzeko lanak egin beharko dituzte. Lan txikiak izango dira, baina musika ikasleen ikasturtea hasi aurretik egin beharrekoak.

**AHALIK ETA LASTERREN**

Orain, lan horiek egiteko proiektua lantzen dabil Udala, baina euren asmoa da guztia ahalik eta lasterren bukatzea, Arrasate Musikaleko 600 ikasle pasatxok ikasturtea ahalik eta lasterren hasi ahal dezaten.

Printzipioz, behin-behinerako neurria da Arrasate Musikalek Monterron jauregian ematea eskolak. Bien bitartean, Aprendizen Eskolaren egoera aztertzen segituko dute adituek. Ino Galparsoro alkateak Arrasate Irratiari jakinarazi dionez, oraindik ez dute emaitzarik jaso. Eta behin emaitzak esku artean dituztela, baloratu egin beharko dute zer egin. Izan ere, Aprendizen Eskolaren egoera oso kaskarra bada, ezin izango dira hara bueltatu.

**URRIAREN HASIERAN**

Arrasate Musikalekoek ondo hartu dute Udalaren erabakia, hala adierazi du Arrasate Musikaleko zuzendari Marta Izagirrek: "Hartu dugu nahiko pozik, azken batean zegoen aukera bakarra zen eta Aprendizen Eskolaren eraikina dagoen egoeran, hara ezin zen bueltatu".

33 urte eman ditu Arrasate Musikalek Aprendizen Eskolan eta material ugari dute lekuz aldatzeko. Hori horrela, oraingo astean bertan lanean hasiko direla adierazi du zuzendariak: "Espero dugu oraingo astean hastea garbiketa lanak egiten eta hango gauzak husten eta datorren astean hasiko gara eramaten material didaktikoa, instrumentala eta guztia".

Hori guztia egin eta gero hasiko dute ikasturtea, baina oraindik ezin dezakete esan seguru noiz: " Ez naiz ausartzen data bat esaten baina beharbada urriaren hasieran hasteko moduan izango gara. Bestalde, esan behar dugu oraindik zatiketa batzuk egin beharra daudela eta hasieran ez gara denok sartuko. Hasiko gara batzuk han eta beste batzuk akaso ikastolen gela batzuetan-edo".

**ERLIJIOA** > ARANTZAZUKO ERROMESALDIA

# Udal gobernuaren izaera laikoaren alde azaldu dira

EAJren ustez, udal gobernuak izaera laikoa izatea ez da nahikoa erromesaldira ez joateko

**U.M.** > ARRASATE

Udal gobernuak ez zuen parte hartu joan den domekan egin zen Arantzazuko erromesaldian. Erromesaldian parte hartzen duten herritarrei "errespetu eta begirune osoa" adierazi ostean, udal gobernuak gaineratu du gobernua osatzen duten taldeak (EAE-EB-Zutik) Udalaren izaera laikoaren alde agertzen direla", eta horregatik, erromesaldian "parte ez hartzea erabakitzen dute, udal taldeetako zinegotziek egin dezaketena kaltetu barik".

**ADIERAZPEN ASKATASUNA**

Horren harira, hainbat komunikabidetan azaldu diren kritiken aurrean, Ino Galparsoro alkateak adierazi du eurek adierazpen askatasuna errespetatzen dutela eta horrek esan nahi du iritzi desberdinak kaleratzea. Baina horrekin batera alkateak gaineratu du polemika komunikabideetan sortu beharrean, gura duenak alkatetzako ateak zabalik dituela iritzia helarazteko.

**EAJ: "ATZERAKOIA DA"**

Hain justu, Arrasateko EAJk gogor kritikatu du udal gobernuaren jarrera. Arrasatearrak Arantzazura erromesaldian joatea 1600. urtetik datorrela gogorarazi eta, besteak beste, hauxe adierazi dute: "Arantzazura aurten mila bat pertsona hurbildu gara Arrasatetik, sentsibilitate baten adierazle garenok, alkatea Udalaren izenean joan den zenbait ekitalditan baino zati bat gehiago bildu baikara, eta talde honek bere alkatearen agurra ongi merezia duela erakutsi du. Joaten direnei inoiz ez zaie galdetu botoa alkate honi edo beste edozeini eman dien, ez eta katolikoak diren, etorri diren neurrian ongietorriak izan dira".

> INGURUMENA

## Material asko batu dute bihar, zapatua, Seber Altuben egingo duten Bir-zikleta azokarako

Bihar egingo dute Bir-zikleta azoka, bigarren eskuko txirrindularitzako materialaren gaineko azoka, 11:00etatik 14:00ak arte eta 17:00etatik 19:00ak arte. Denetik salduko dute: errepideko zein mendiko bizikletak, umeenak, mailotak, kaskoak, patinak… "Eta iaz piezak ere izan genituen: gurpilak, koadroak eta halakoak", gehitu du Nerea Lazpiurrek, Ingurumen Saileko teknikariak.

((112))
SOS DEIAK

HIKA
OSAGARRIAK



Juan Carlos Gerra 1 ARRASATE Tel.: 943 79 98 06

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

kapikua
OPARIAK ETA OSAGARRIAK
Maritxutarako osagarriak
Bañez doktorea 4
(San Andres auzoan)
Arrasate
Tel.: 943 79 19 94

BERGARA AUTOAK



• AUTO BERRIEN ETA AUKERAKOEN INPORTAZIOA: TURISMOAK, FURGONETAK ETA MONOBOLUMENAK
• GARANTIA IDATZIZ
• FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
• PREVER PLANA • ELBARRITASUNAGATIK DESKONTUAK
Autoen eskaerak aukeran:
jlegana@terra.es
Amillaga, 10 • BERGARA • ☎ 943 76 04 58

**Kristina Arregi** > Pakito Arriaranen ama

# "Pakito eta Txomin kenduta, gainerakoak Guardia Zibilak hil zituen"

**U.M.** > ARRASATE

**Irailaren 27an, eguena, Gudari Eguna gogora ekarriko dute. Hitzordua egin dute manifestaziorako, 19:00etan, Herriko Plazan. Hala jakinarazi du Kristina Arregik, Pakito Arriaran zenaren amak**


Kristina Arregi. U.M.

**Irati Arantzabal arrasatearrak eta Etxerateko kideak salatu zuen presoen egoera gero eta okerragoa dela…**

Gure loba, Jesus Mari Zabarte, zerbikaleko desgastearekin dago, eskuraino iritsi zaio. Hanka ere ez du gauza gura duena egiteko. 1984an sartu zuten. Hark esaten du daukala bizi osorako zigorra, Parot doktrina dela-eta. Huelvan dago, gainera. Urriaren 6an dugu bisita. Autobusean joaten gara, egubakoitzean Gasteizen hartu eta domeka goizean bueltatu. Sevillara 06:00etan iritsi, han beste autobus bat hartu eta handik Huelvara; Huelvan beste autobus bat hartu behar da kartzelarako.

*Gazta*, Jon Agirre, *Kanto* eta Gautxoriri ere aplikatu diete Parot doktrina. Eta gainera, *Gazta*, Agirre eta Uribetxeberriaren osasun egoera larria da.

**Semea galdu zenuen 1984an.**

Pakito kartzelan sartu zuten 70eko hamarkadan eta Franco hil zenean askatu. Urte gutxira Iparraldera joan zen, gero Venezuelara eta El Salvadorrera. Han hil zuten,borrokan zebilela.

**Pakito Arriaran moduan, beste herrikide batzuk ere gogora ekarriko dituzue…**

14 hildako dira. Txomin Iturbe izan zen azkena, 1987an, haren aurretik Pakitohil zuten eta lehenago Perez de Arenaza. Etxabe, Agirre, Emili, *Zapa*… gogora ekarriko ditugu. Pakito eta Txomin kenduta, gainerakoak hil dituzte Guardia Zibilak edo talde eskuindarrek.

**Zer egingo duzue, beraz, Gudari Egunean?**

Manifestazioa hasiko da 19:00etan, plazan; hiru puntutan (Monterron, Biteri, Maiatza Bata) egingo dugu ekitalditxoa. *Gudariekin batera, askatasunera* da leloa; azpimarratu gura dugu gure helburuak lortu nahi baditugu, borrokatu egin behar dugula, beste biderik ez dago.

**ANTZERKIA** > KANPINGAGS TALDEAREN 'LAPUR ZULOA'

# Lapur xelebre batzuen gaineko euskarazko komedia beltza, domekan, Amaia antzokian

Kanpingags taldearen 'Lapur zuloa' komedian oso aktore ezagunek esku hartzen dute; otsailean egin zuten estreinaldia


**AKTORE EZAGUNAK** Eskarmentu handikoak taula gainean. KANPINGAGS

**AITZIBER ARANBURUZABALA**> ARRASATE

Kanpingags taldeak *Lapur zuloa* antzezlana egingo du Amaia antzokian, 19:30ean. Komedia beltza eta samurra da; garratza eta atsegina, era berean.

Obsesioak jotako lau pertsonaren bizitzen gurutzaketan oinarritzen da istorioa. Obsesioei aurre egiteko hainbat terapia probatu dituzten arren, ez dute sendatzerik lortu.

Halako batean, lapurreta erraza egiteko aukera izango dute. Terapia guztiak ahaztuta, desirak jota, laurak lapurreta egiteko elkartuko dira. Betiko erretiratuko dituen lapurreta dela uste dute; horrenbestez, itsutu egingo dira eta terapia guztiak albo batera utziko dituzte. Lapurretako dirua, ordea, mafiarena da. Hori horrela, mafiak lapurrak harrapatu eta horietako baten heriotza eskatuko du. Komediari seriotasuna emango dion heriotzaren gaineko gogoetak egingo dituzte orduan.

**MOLDAKETA**

AEBetako Stephen Adly Guirgis idazlearen *Den of Thieves* lanetik moldatu dute gidoia. Lana AEBetako gizartearen satira denez, euskal gizartera egokitzeko elementuak gehitu dizkiote.

**IZEN EZAGUNAK**

Izen ezagunak batu ditu *Lapur zuloa* antzezlanak, taula gainean eta baita ostean ere. Zuzendari lanak, esaterako, ibilbide luzea duen Carlos Zabalak egin ditu.

Aktore taldea, berriz, Euskal Herriko antzoki eta telebistako ekoizpen askotan eskarmentu handia duten kideek osatzen dute: Asier Hormazak, Kontxu Odriozolak, Joseba Apaolazak, Kandido Urangak, Ainhoa Garaik, Itziar Ituñok eta Asier Sotok, hain zuzen ere.

Pascal Gaigne musikariaren izena ere aipatzekoa da, hark egin du-eta obrarako musika.

**HIRUGARREN ALDIA IBARREAN**

Otsailean Donostian estreinatuta, hirugarren aldiz egingo dute ibarrean. Aurrez, Elgetan eta Oñatin izan dira.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Monte
taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56


Lilura
OIHALAK
Egin zure jantzia.
Konpromezurik gabeko aurrekontua.
Poltsak, eskularruak eta galtzerdiak bezalako osagarriak eskaintzen ditugu.
Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72

Pando
Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak




# ARRASATEKO ERDU AEK

GARIBAI 14 • Tel.: 943 770369

## ZURE NEURRIRA!

- **EUSKALDUNTZE** (maila guztiak erreleboka)
- **ALFABETATZE** 2 egun astean, batua eta euskalkiarekin jolasean
- **MINTZA TALDEA** 2 egun astean, ahozkoa lantzeko
- **EGA** 2 egun astean
- **4.MAILA** / 2 egun astean + etxerako lana
- **AUTOIKASKUNTZA PROGRAMA**

**GURE SEKRETUA, KOMUNIKAZIOA**

*Matrikula zabalik irailaren 27ra arte*

*Udalaren laguntzaz Beka sistema*




ANDAMIORIK GABEKO LANAK
ÑAÑARRI
LAN BERTIKALAK
680 641 401
676 952 968
www.nanarri.com
Fatxaden eta barruko patioen
berrikuntza eta pintaketak
Teilatuak • Kanaloiak • Bajanteak
Tximiniak • Altuerako kimatzeak


Hizkuntzak ikasiko dituzu, hitza
ingelesa - frantsesa - alemana - euskara - txinera - italiera
Maila guztiak eta malgutasuna ordutegietan
Cambridge Unibertsitateko azterketak gure zentroan
Sistemak:
– Aurrez aurrekoa
– Blended (On Line + Aurrez aurrekoa)
Balio erantsiko zerbitzuak:
– Mediateka, mailegu zerbitzuarekin
– Extranet, materiala on line duten bezeroentzat
– Lingua Maila-ak astero (ingelesezko ikasgai txikiak)
– Astero txatetan parte hartzea
– Hilero kalitate oneko sariak banatzen dituzten hizkuntza lehiaketetan parte hartzea
– Ikasleen jarraipen pertsonalizatua
– Batez besteko ikasle kopuru txikia
– Ordenagailu eta internet gela
Klaseak:
Arrasaten, Oñatin, Aretxabaletan, Aramaion, Eskoriatzan
matrikula epea zabalik
MONDRAGON LINGUA
Arrasate
Araba Etorbidea 4
Tel.: 943 71 20 55
Oñati
Olakua 14
Tel.: 943 71 60 00
Donostia-San Sebastián
Zubieta 26
Tel.: 943 43 31 02
Bilbao
Buenos Aires 7
Tel.: 946 61 34 67
Vitoria-Gasteiz
Florida 8A
Tel.: 945 15 01 55
www.mondragonlingua.com

**MENDIA**

# Besaidek mendi zeharkaldia prestatu du Pilarikako zubirako

Besaidekoek hiru eguneko mendi zeharkaldia antolatu dute Pilarikan egiteko; Frantzian hasi eta Aragoin amaituko dute ibilbidea



**PARAJE EDERRAK** 3.000 metroko mendien artean ibiliko dira. GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Joan den urtean Aran bailaran egindako mendi zeharkaldiak izan zuen arrakastak animatuta, aurten Frantziatik (La Frutiere ingurutik) Aragoira (Sallent de Gallego) prestatu dute mendi zeharkaldia, Pilarikako zubian egiteko. Hala, lehenengo egunean Lutor bailaratik Oulettes-eko aterpetxera egingo dute, Vignemale ondotik igarota. Aterpetxe horretan igaroko dute lehenengo gaua, eta Araille mendi tontorrera igotzeko aukera izango dute.

Bigarren egunean Mulos-eko portutik Arratileko gainerako bidea hartuko dute, Wallon-eko aterpetxean geratzeko. Han, Arratileko tontorra egin ahal izango dute. Eta, hirugarren egunean Fachako muinotik Sallent de Gallegorako bidea hartuko dute.

**IZENA EMATEKO EGUNAK**

Irteera horretan izena eman gura duenak urriaren 3an eta 4an Besaideko egoitzara gerturatu beharko du (19:30-20:30).

Mendi zeharkaldiari dagokionez, antolatzaileek esan digute, gazte zein nagusi, irteera mendian ibiltzea atsegin duen edonori dagoela zuzenduta. Hori bai, zeharkaldian zehar dauden mendi tontorretara ez igotzea erabakita ere, komeni da mendian apur bat ibiltzen den jendea joatea.

Hori horrela, antolatzaileek azpimarratu dute Pirinioetako bailara ikusgarrienetako batzuk zeharkatuko dituztela.

**XAKEA** > ARRASATE HIRIA TXAPELKETA

# Gazteen eskutik etorri da ezustekoa

Lehenengo jardunaldian, gazteek erakutsi zuten nagusien lekukoa hartzeko gertu daudela

**X.U.** > ARRASATE

Arrasate Hiria xake txapelketako lehenengo jardunaldian gazteek eman zuten sorpresa. Hala, Asier Etxagibel gazteak ondo estutu zuen Aitor Alcaide, eta berdinketa lortu. Gainontzeko gazteei dagokienez, Juan Manuel Ruizek, Maider Etxagibelek eta Mikel Alcaidek ere partida onak jokatu zituzten, baina ez ziren kontrarioa mendean hartzeko gauza izan.

**FABORITOAK EZ DU BARKATU**

Aurreratu moduan, gazteen eskutik etorri zen ezustekoa, txapelketako faborito Alejandro Francok ez zuen-eta sorpresarako aukerarik eman.

Bigarren txandari dagokionez, gaur arratsaldean norgehiagoka interesgarriak jokatuko dituzte, 19:00etan hasita, Altamiran. Francok Alain Prieto gaztea izango du aurrean eta bigarren taulan Limeres eta Rodriguez bizkaitarrek jokatuko dute.

Hirugarren taulan, berriz, ibarreko derbia jokatuko dute Fran Miguel aretxabaletarrak eta Luis Angel Ortega arrasatearrak. Ez da, baina, derbi bakarra izango, Arrasateko Josu Tornayk Andoni Miguel aretxabaletarra izango du-eta aurrean.

> ATLETISMOA

## Bosgarren postuan sailkatuta itzuli da Maria Jose Gil Munduko Atletismo Txapelketatik

Irailaren 4tik 14ra bitartean egin dituzte, Riccionen (Italia), beteranoen munduko atletismo txapelketak, eta txapelketan lehiatu diren 29 atleten artean Arrasatek ordezkaritza izan du: Mari Jose Gil. Guztira hiru lasterketetan hartu zuen esku Gilek, eta hiruretan bosgarren postuan helmugaratu zen.

Hala, krosean (8.000 metro) 37 minutu eta 19 segundoko denbora egin zuen; 5.000 metroko lasterketan bi ehunenengatik ez zen laugarren sailkatu (23:52); eta 1.500 metroko lasterketan ere postu hori errepikatu zuen. Hiru diploma ekarri ditu txapelketatik.

KONTRATAK
IRUROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

MENETA taberna
• Eguneroko menua
• Bazkariak eta afariak enkarguz aste bukaeretan
• Pintxoak
• Errazioak
Domeka gauetan sukaldea itxita
Gipuzkoa Etorbidea 48 • Tel.: 943 79 65 31 • 20500 Arrasate

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

OSORIK PUB
Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

MEHER
Bañez doktorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85
Maritxutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.



Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**HEZKUNTZA** > ARANZADI ETA SAN MARTIN IKASTETXEEN ARTEKO AUZIA

# Udal gobernuak Hezkuntzaren esku uzten du arazoaren irtenbidea

Aranzadiri Seminarioa uzteko zehaztutako klausula guztiak bete behar direla adierazi du UNEDeko zuzendariak

Patronatua: udazken amaierarako egoera argituta nahi du

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

UNEDeko Patronatua osatzen duten Diputazioko, Udaleko, Kutxako eta UNEDeko ordezkariek bilera egin zuten eguazten eguerdian Bergarako udaletxean. Gero, Juanjo Alvarez UNEDeko zuzendariak prentsaurrekoa egin zuen. Udazken amaierarako Seminarioko eraikinaren egoera patrimoniala argi egotea premiazkoa dela adierazi zuen. Horretarako, Seminarioko espazioen lagapena desblokeatzeko beharra azpimarratu zuen Alvarezek: "Oso konplikatua den sare politiko eta juridiko horretan UNED ikastetxea funtsezkoa izan da Espainiako Estatuak Seminarioa Patronatuari uzteko. UNED barik, ezinezkoa litzateke lagapena. Hori lortuta, azpi-zesio akordioei dagokienez, Udalarekin adostutakoa bakarrik dago, bertan auditorioa kokatzeko. Aranzadi ikastolarekin ez dago akordio juridikorik orain arte. Aldartekotasun egoeran daude, akordioak erabateko baliagarritasuna izateko hainbat klausula bete behar direlako aurretik, eta horietako bat, UNEDek jarri ez duena: Aranzadik epe jakin batean Martinez Irala uztea".



**UDAL GOBERNUA** EAE eta Aralako kideek arazoaren irtenbidea Hezkuntzaren konpetentzia dela diote. E.M.

### EGOERA DESBLOKEATU

Alvarezek gogoratu zuenez, otsailaren 19tik hona bilera mordoa egin dituzte eta hauxe azpimarratu zuen: "Patronatuaren jarrera adiskidetzailea, UNEDen beraren interesen kaltetan; eraikinaren %15 besterik ez dugu okupatzen, eraikina eskuratzeko eskuleku juridiko bakarra izanda. Gauzak horrela, akordiorik lortu ezean, Patronatua egoera berraztertzeko premian egongo da. Seminarioko espazioen lagapena doanekoa, mugagabea eta gaur egun okupatzen duen espazioa baino handiagoa litzateke Aranzadiren kasuan, baina hori berraztertuko dugu aurretik zehaztutako premisak ez badira betetzen. Ezin gara egon egoera zehaztu gabe beste 25 urtez. Gainera, azpi-zesioaren blokeoak UNEDek behar dituen obrak egitea oztopatzen dihardu. Gure eskuzabaltasuna eta pazientzia ematen ari gara. Ez dugu akordio baten beharra oztopatuko, eta ahalegin guztiak egingo ditugu, kontuan izanik auzi hau sortzen ari den tentsio soziala".

### UDALA: HEZKUNTZAREN ESKU

Udal gobernua osatzen duten EAE eta Aralarko kideek ere euren iritzia plazaratu zuten Alvarezen agerraldiaren ondoren. Agurne Barruso alkatearen hitzetan, "ez dagokio Udalari hezkuntza-proiektuak garatzeko toki-faltari irtenbidea ematea. Eginkizun hori Hezkuntza Sailari dagokio. Martinez Irala Hezkuntza Sailari atxikitako udal eraikina da eta Hezkuntza Sailari atxikita egoteak erabilera Hezkuntza Sailak arautzen duela dakar. Ideia hori berori izan da orain arte defendatu duguna eta gaurtik aurrera, ahal bada, indar handiagoz defendituko duguna". Udal gobernua prest azaldu da eragile guztiekin elkarlanean aritzeko eta arazoari irtenbide adostua bilatzeko ahalegina egiteko: "Aldebiko bilerak ekidin eta alde guztien arteko elkarrizketa hobetsiko dugu. Horretarako borondatea izanez gero, bilatuko dugu hezkuntza-komunitate biei irtenbidea emango dien soluzioa".

### SAN MARTIN ETA ARANZADI

San Martin ikastetxeko Susana Uriarte zuzendariaren hitzetan, "Alvarezen adierazpenek indarra ematen diete gure argudioei, garbi eta zintzo jokatu dugula azalduz. Bestalde, Udaletik eta Hezkuntzatik heltzen zaiguna ez datoz bat eta badirudi pilota pasatzen ari direla. Erabakia norbaitek hartu beharko du, guztiek borondate ona azaldu arren arazoarekin jarraitzen dugulako".

Aranzadi ikastolako Patricia Urrutiak hauxe adierazi digu: "UNEDeko zuzendariak esandakoak argitzea nahi dugu udal gobernuarekin. Mahai baten jarri eta irtenbideak topatzen jarraitzeko borondatea dugu. Dena dela, gaur dagoen tentsioa ez dugu uste dinamika egokia denik tentsioa baretzeko eta soluzioak topatzeko".

### ESANAK

**"Aldartekotasun egoeran dago Aranzadi, akordioak erabateko baliagarritasuna izateko hainbat klausula bete behar direlako aurretik"**

**Juanjo Alvarez** > UNED

**"Hezkuntza-proiektuak garatzeko toki-faltari irtenbidea ematea Hezkuntza Sailari dagokio. Eragile guztiekin elkarlanean aritzeko gertu gaude"**

**Agurne Barruso** > Alkatea

**"Udaletik eta Hezkuntzatik heltzen zaiguna ez datoz bat eta badirudi pilota pasatzen ari direla. Bitartean arazoarekin jarraitzen dugu"**

**Susana Uriarte** > San Martin

**"UNEDeko zuzendariak esandakoa udal gobernuarekin argitu nahi dugu eta irtenbideak topatzen jarraitzeko borondatea dugu"**

**Patricia Urrutia** > Aranzadi




**PROTESTA** San Martin eskolako guraso eta ikasleek protestak egin dituzte astean zehar San Martin plazan. E.M.

**EUSKARA** > UDAL EUSKALTEGIAREN IKASTURTE BERRIA

# Udal Euskaltegia 25. urteurrena ospatzen

Hainbat nobedaderekin dator ikasturte berria, tartean gaztetxoendako errefortzu eskolak

25. urteurrena ospatzeko kultur egitarau zabala gertatzen dihardute euskaltegiko arduradunek




**AURKEZPENA** Mila Iglesias idazkaria, Maria Dolores Lete irakaslea, Maite Guridi zinegotzia eta Alex Labaien, martitzenean. E.M.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Hogeita bosgarren urteurrena betetzen duen Bergarako Udal Euskaltegiak ikasturte berriko aurkezpena egin zuen martitzen eguerdian, komunikabideen aurrean. Besteak beste, Maite Guridi Udal Euskaltegia Fundazio Publikoaren lehendakaria, Alex Labaien Udal Euskaltegiko zuzendaria, irakasleak eta euskaltegiko langileak izan ziren Zabalotegin egindako aurkezpenean.

*Egizu euskaraz! Nahi baduzu... egingo duzu* lelopean, ohiko eskaintzaz gain (EGA eta alfabetatze ikastaroak) hainbat berritasunarekin dator ikasturte berria. Esate baterako, orain arte 17 urtetik gorako ikasleei zuzendutako eskolak izan badira, ikastetxeetako hizkuntza errefortzuaren osagarri gaztetxoendako eskolak izango dira aurten. Etorkin kopuruaren gorakadak bultzatu du euskaltegia eskaintza hori egitera. Bestalde, tutoria eskolen garrantzia ere azpimarratu zuen Labaienek, "ikasleen jarraipen zuzenagoa egin ahal izateko".

Era berean, autoikaskuntza ikastaroa (Internet konexioa besterik eskatzen ez duena) eta Boga programa informatikoa (eskolako lanaren osagarri) eskaintzen die ikasleei Udal Euskaltegiak, eta etorkinendako ikastaroak eta Bergarako euskara ikasteko ikastaro bereziak ere izango dira.

Bergarako beste zenbait talderekin batera bultzatzen duen Berriketan ekimenarekin ere jarraituko du Udal Euskaltegiak, euskaldun zaharrak eta berriak elkartuz. Euskaltegiko 16 ikaslek eta zazpi ikasle ohik hartu zuten parte joan den ikasturtean.

Azken 25 urteotan ikasle kopurua 150-200 ikasleren bueltan kokatu dela adierazi zuen Alex Labaienek. Iaz 166 izan ziren, 16 taldetan banatuta. Batez besteko adina 39,7 urte zen eta emakumeak ziren nagusi (%67).

**BORONDATEA DA GILTZA**

"Kanpainako leloak adierazten duen moduan, borondatea da giltza euskara ikasteko", esan zuen Labaienek.

Azkenik, 25. urteurrena ospatzeko kultur egitarau zabala gertatzen dihardutela esan zuten Euskaltegikoek eguaztenean.

## 'Bergara aldeko hiztegia', sarean kontsultatzeko



Juan Martin Elexpururen *Bergara aldeko hiztegia* Interneten, *www.bergara.net/euskara* helbidean kontsulta daiteke: 12.000 sarrera, esaera zaharrak, mapak eta gaztelaniatik euskarara itzultzeko atala. Argazkian, Iñaxio Elize KAM aholkularitza enpresako kidea, Elexpuru, Agurne Barruso alkatea eta Estepan Plazaola Euskara zerbitzu burua, martitzeneko aurkezpenean.

TXOMIN MADINA

> KILOMETROAK 07

## Boluntarioak behar dira urriaren 7an ospatuko den jairako

Urriaren 7ko Kilometroetan lan egiteko jendea behar dute antolatzaileek. Honako batzordeetarako: garbitasuna, zirkuitua eta prebentzioa, txosnak, salmenta eta trafikoa. Izena emateko: 677 54 05 92 telefonora deitu edo idatzi *bergara@ikastola.net* helbidera. Adierazi: izen-abizenak, harremanetarako telefonoa eta boluntario kopurua (taldean aritu nahi dutenek, behintzat). Bestalde, lan egiteko izena iraila baino lehen eman zutenek, eta antolaketakoak haiekin kontaktuan jarri ez badira, goiko telefonoa edo helbidea erabili behar dute.

> ONDAREA

## Turismo Bulegoa irailaren 30era arte dago zabalik

Udaleko Turismo Bulegoa irailaren 30era arte izango da zabalik. Aste barruan 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era izango da zabalik eta zapatu eta jaiegunetan 11:30etik 14:30era. Hala ere, oraingo domekan, irailaren 23an, itxita izango da.

Edozein argibidetarako edo bisita gidatuak egiteko interesa dutenek udaletxe sarrerako bulegora edo 943 77 91 28 telefono zenbakira jo dezakete. Besteak beste, Bergara inguruak ikusteko ibilaldiak ere proposatzen dituzte Turismo Bulegoan.



POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA



Mizpildi 3, 1. ezkerra • BERGARA
2007-2008 ikasturtea
Ikastaroaren hasiera:
urriaren 1a
Izenematea: irailaren 28ra arte
Informazio gehiago: 10:00-12:00 eta 18:00-20:00
943.76.30.55
FRANTSES IRAKASKUNTZA

**DANTZA** > MOISES AZPIAZUREN OMENEZKO TXAPELKETA

# Hamabi dantza bikote arituko dira gaur arratsaldean Udal Pilotalekuan

Partaideen artean Bergarako bi bikote daude, Jon Arrillagak-Izarne Medinak eta Mikel Igartuak-Ibane Basetak osatzen dituztenak



**AZKOITIKO TXAPELKETA** Ibane Baseta eta Mikel Igartua dantzariak Azkoitiko txapelketan. JUAN MARI BASETA

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Dantza solteak nagusituko dira gaur, egubakoitza, arratsaldean frontoian. Moises Azpiazuren omenezko 23. dantza txapelketa antolatu du Abarka dantza taldeak. Ikuskizuna 19:30ean hasiko da.

Abarkako Juan Mari Basetak jakinarazi duenez, aurtengo edizioan hamabi bikote lehiatuko dira taula gainean. 16 urte baino gehiago dituzte parte-hartzaile guztiek. Bizkaitik bost bikote iritsiko dira, Santurtzitik, Sestaotik eta Portugaletetik.

Gipuzkoatik, berriz, zazpi bikotek eman dute izena txapelketan parte hartzeko. Horien artean, bergarar bi daude. Mikel Igartuak-Ibane Basetak eta Jon Arrillagak-Izarne Medinak osatzen dituztenak, hain zuzen ere. Gainontzeko partaideak Azkoitia, Azpeitia, Hernani eta Errenteriatik etorriko dira. Iazko txapeldunak ez dira faltako Moises Azpiazuren oroimenezko txapelketan; alegia, Azkoitiko Azpitarte anai-arrebak. Esandako bikotea Seguran nagusitu da aurten, dantza solteko Euskal Herriko txapelketan. Iaz ere Seguran nagusitu ziren anai-arrebak.

Azkoitiarrek sasoi onean daudela erakutsi dute, eta, horrenbestez, gainontzeko partaideek fin arituko beharko dute bihar arratsaldean, txapela eta zapia lortu gura badute.

**FANDANGOA ETA ARIN-ARINA**

Basetak azaldu duenez, aurten ere fandango eta arin-arin bana dantzatuko beharko du bikote bakoitzak. Oskar eta Aitziber Estanga anai-arreba donostiarrak musika doinua jartzeaz arduratuko dira.

Maite Aristegi bergararra aurkezle lanetan ibiliko da berriro ere. Epai-mahaiak erantzunak eman ostean sari banaketa egingo da. Ikuskizuna amaitu aurretik, parte-hartzaile guztiek agertokira igoko dira, batera dantza egiteko.

Sarrera doan izango da. Hortaz, gaur arratsaldean pilotalekura joateko gonbita egin gura izan du Abarka dantza taldeko kideak. Norgehiagoka gogorra espero da parte-hartzaileen artean, bikote bakoitzak ahal duen guztia emango du-eta.

> EUSKARA

### Jardunek Jolasleku Ibiltaria programa martxan jarriko du gaur, zortzigarren urtez jarraian

Jardun elkarteak Jolasleku Ibiltaria programa martxan jarri du zortzigarren urtez jarraian. 6 eta 12 urte bitarteko umeak ibiltzen diren tokietan jarriko da hori. Euskal kantu eta jolasen bidez, euskaraz jolas egiteko baliabide egokiak eskaini eta ahozkotasuna lantzea bilatzen da egitasmo horren bitartez. Gaur, egubakoitza, frontoian egongo da jolasleku ibiltaria. Datorren irailaren 28an, Espoloian jarriko dute eta urriaren 5ean, berriz, Simon Arrieta kokatuko da.

> TXAPA IRRATIA

### Batzarra izango da domeka arratsaldean gaztetxean, aurtengo 'parrilla' osatzeko

Bergarako gaztetxean Txapa Irratiko batzarra egongo da domekan, 19:00etan hasita. Irratiaren funtzionamendua eta nondik norakoak azaldu, eta proposatzen diren irratsaio berriekin aurtengo *parrilla* osatuko dute han. Irratsaioa egin nahi dutenei batzarrera joateko dei egin die. Irratiak uda aldean izan dituen arazo teknikoak gainditu, eta gogoz ekin diote lanari. 97.25ean entzun ahal izango dira irratsaioak; bai Txapak berak ekoiztuak, bai eta Arrosa irrati saretik jaitsitakoak ere.

> AROZTEGI ARETOA

### Datorren urtean lanak Aroztegin erakutsi nahi dituztenek eskaera aurkeztu behar dute

Aroztegi aretoan 2008. urtean beren lanak erakutsi nahi dituzten artistek eskaera aurkeztu beharko dute datozen egunotan. Kultura Sailak jakinarazi duenez, urriaren 16ko 13:00ak arte egongo da zabalik epe hori. Udal erregistroan sarrera eman beharko zaie eskaerei esandako eguna baino lehen. Baldintzen orriak eta eskaera orriak udaletxean eta kultur etxean eskuratu ahal izango dira..

Udaleko Kultura Zerbitzuaren barruan sortutako batzorde mistoa arduratuko da eskaerak aukeratzeaz.

**DIRULAGUNTZAK** > 2007. URTEKOAK

## Zabalik dago kultura elkarteek laguntzak eskatzeko epea

Eskaera Udaleko erregistroan aurkeztu behar da, astelehenetik zapatura, 09:00etatik 13:00etara bitartean

**M.B.** > BERGARA

Kultura elkarte eta taldeak 2007. urtean antolatzen ari diren jarduera eta egitarauetarako dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago. Hain zuzen ere, eskaerak udaletxeko sarrera erregistroan aurkeztu beharko dituzte, beranduenera jota baldintzen orria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

**UDALETXE ETA KULTURA ETXEAN**

Baldintzen orria eta eskaera orriak udaletxean eta kultura etxean eskura daude. Eskaerak astelehenetik zapatura, 09:00etatik 13:00etara aurkeztu ahal izango dira. Eskaerak aurkezteko epea domeka edo jaiegunean amaituko balitz, epea ondorengo laneguneko 13:00etan bukatzen dela ulertuko da.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Udaleko Jarduerak, Kultur Taldeak, Jaiak eta Gazteria batzorde informatzaileak aztertuko ditu horiek. Txosten teknikoa egin ondoren, proposamena egingo dio alkateari, hark erabakia har dezan.

Ion Murgizu Pinturak
Margoketa orokorrean
- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industriala

Zabalotegi 9, 2. esk • **Bergara**
Esozia 24- 2º behea • **Soraluze**
Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

**ANTIA**
**HARATEGIA URDAITEGIA**
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
**Matxiategi 8. BERGARA**
**Tel.: 943 76 15 09**

Aldoka Maldoka
**TABERNA**
Kruz Gallastegi
BERGARA


euskara
zure gaitasuna
zure jaia
zure garaia
zure kuraia
zure jarraia
zure soslaia
NAHI BESTE LEKU!
www.aek.org
aek
coach berri
BERGARAKO AKULU AEK
LOKALA TXUKUNDU ARTE MATRIKULAK TELEFONOZ
Tel.: 943 77 03 69
ZURE NEURRIRA!
1A MAILA / 3 EGUN ASTEAN / EGUNERO 2 ORDU
1B MAILA / 3 EGUN ASTEAN / EGUNERO 2 ORDU
2. MAILA, AUTOIKASKUNTZA (Programa PERTSONALA + mintza saioa ordu eta erdi astean + tutoretza ordu erdi astean )
EGA, AUTOIKASKUNTZA (Programa PERTSONALA + mintza saioa ordu eta erdi astean + tutoretza ordu erdi astero)
4.MAILA / 2 EGUN ASTEAN EGUNERO 2 ORDU ETA ERDI + etxerako lanak eta jarraipena-tutoretza.
GURE SEKRETUA, KOMUNIKAZIOA
Matrikula zabalik irailaren 27ra arte
Udalaren laguntzaz Beka sistema


Kantari Debagoienean
Karaoke Ikuskizuna Urritik aurrera Debagoienean!
• Ikuskizunak Debagoieneko aretoetan izango dira.
• Emanaldi guztiak GOITBn emango dira, Debagoieneko Telebistan.
BABESLEA
gaztetxoen elkartea club juvenil
ANTOLATZAILEA
Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

**FUTBOLA** > ERREGIONALA

# Bergarak bi partidu jokatuko ditu jarraian kanpoan

Manu Diazen mutilak Elgoibarren etxean lehiatuko dira asteburuan

Bi partidu horietako bat irabaztea garrantzitsua dela dio entrenatzaileak



**BI KANPOAN** Elgoibarren jokatu eta gero (zapatua, 16:30) Diazen mutilek Rotetaren zelaian jokatu beharko dute. GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

"Datozen bi jardunaldietan etxetik kanpora jokatuko dugu, eta garrantzitsua izango litzateke bi partidu horietako bat, gutxienez, irabaztea. Hori eginda, taldea ez da emaitzengatik larritzen hasiko", esan digu taldeko entrenatzaile Manu Diazek.

**ELGOIBARREN KONTRA**

Mintxetako taldeak indartsuak izan dira beti, baina lehenengo jardunaldian Oiartzunen kontra erakutsi zuten moduan, Diazek uste du kontrarioei kosta egingo zaiela Bergarari irabaztea: "Elgoibarko hirugarren mailako taldean kanpotar mordoa daukate, eta erregionalean elkartzen dira herriko jokalariak. Gainera, Pedrusko desagertuta, Elgoibar geratu da herriko jokalariekin; badakigu gogor jokatzen dutela".

Atzera begiratuta, Bergarako entrenatzailea gustura geratu zen joan den astean Oiartzunen kontra egindako debutarekin: "Akats mordoa ditugu zuzentzeko, baina Oiartzunen kontra partidu osoa egin genuen markagailuan aurretik; gustura geratu nintzen emandako irudiarekin".

## Pol-Poleko beteranoak Formigalgo zeharkaldian

Formigal eta Canfranc arteko mendi zeharkaldia egin du erretiratuko koadrila horrek asteburuan, eta tartean, Anayetera igo ziren. Erretratua, berriz, beherago dauden lakuetan atera zuten.

Beteranoen hurrengo irteera urriaren 12an egingo dute, Segoviako mendizerrara.


JUAN MARI SASIGAIN

> FUTBOLA

### Eibartarrak mendean hartuz gero, BTLS aurrean egongo da

Joan den asteko debutean Zestoa 1-2 mendean hartuta, bigarren erregionaleko BTLS taldeak Eibartarrak hartuko du etxean (domeka, 17:30).

Eibarkoak ez dira bergararrak bezain ondo hasi –puntu bakarra daukate–, eta puntu bila etorriko dira Agorrosinera. Orain momentuan, Elgetari errepaso ona emanda (1-6) Mondra da lehena sailkapenean, eta puntuetan berdinduta (3) laugarren postuan dago BTLS, Mondraren, Aretxabaletaren eta Anaitasunaren atzetik.

> KIROLDEGIA

### Agorrosingo kirol eskaintza zabalduko dute urrian

Iazko kirol eskaintzak dagoeneko martxan daude Agorrosinen, eta, eskaintza zabaldu egin dutenez, irailaren 20an izenemate epea irekiko dute.

Hala, kirol eskaintzen artean daude aerodancea, batuka gaztea, gimnasia terapeutikoa, capoeira eta errelebutan lanean dabiltzanen ordutegira moldatutako areto bizikleta (09:40an eta 16:30ean). Horrekin batera, haurren eta helduen igeriketa eskolak ere egingo dituzte.

> XAKEA

### Unai Garbisu maisua, Bergara Hiria txapelketan onena

Joan den asteburuan egin zuten Nazioarteko Bergara Hiria xake txapelketa, eta bakarkako saioan Unai Garbisu maisua izan zen onena, sei puntu eskuratuta.

Guztira 100 xakelarik hartu zuten esku txapelketan, eta Arrasateko taldeko Jose Mari Hernando izan zen ibarreko onena. Bergararren artean Iñaki Hernandez nabarmendu zen. Taldeka, berriz, Madril izan zen lehenengo sailkatu zena.

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

**Kanpotarrak Bergaran**

**Jazmin Infante**> Kolonbiarra da Bergaran bizi da

# "Hemendik aurrera semeak irakatsi beharko dit euskara"

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

**2003ko apirilean, lagun bat bisitatzera etorri zen lehen aldiz Jazmin Infante Bergarara. Alacanten bizi zen orduan 32 urteko kolonbiar hori. Eta irailean itzultzea erabaki zuen. Lau urte daramatza herrian bizi izaten. Ezaguna da Infante Bergaran, taberna batean egiten du-eta lan.**

Lehenengoz etorri zenean "paisaia eta ohiturak" gustuko izan zituela gogoratu du Jazmin Infantek. Hiru urte zeramatzan Alacanten bizi izaten, senarrarekin batera. "Bakarrik geunden han, eta Bergaran lagun bat geneukanez Euskal Herrira etortzea erabaki genuen", azaldu du. Eta ez da erabaki horretaz damutu, uste baino hobeto moldatu da-eta hemengo bizimodura. "Oso ondo moldatzen naiz; ume txiki bat daukat, eta ez dut inolako arazorik", dio.

Horren harira, Santander izeneko jaioterria utzi eta Alacantera joan zenean, "askoz gogorragoa" egin zitzaiola onartu du.

**"Hemendik gutxien gustatzen zaidana da hotz handiegia egiten duela eta aterkiarekin irten behar dela beti"**



Irudian, Jazmin eta Iker semea.

Faltan igartzen ditu jaioterriko jakiak. "Hiriburuetan agian bai, baina ibarrean ez dira hango jakiak saltzen". Hortaz, hemengo bazkarietara ohitu egin dela gaineratu du. "Txipa baino ez da aldatu behar", dio. Horrez gain, familiaren falta ere igartzen dela onartu du. Jaioterria utzi zuenetik, behin baino ez dela bueltatu azaldu du. "Urtarril edo otsail aldean berriz joateko asmoa daukat", dio.

**SAN MARTZIAL EGUNA**

Bergaratik gehien gustatzen zaiona "dena hurbil dagoela" da. San Martzial eguna ere gustuko du. Bailarari dagokionez, Arantzazu eta Gorla atsegin ditu. Eguraldia, bestalde, ez du batere gustuko. "Hotz handiegia egiten du eta aterkiarekin irten behar da beti", dio.

Euskararekin nahiko ondo moldatzen da, bezeroak ulertu eta erantzuteko gai da lanean. "Semeak irakatsi beharko dit hemendik aurrera", dio irribarretsu.

**bere ustez**



Unai Lopez

## Jai-egitaraua moztea baino gehiago

1597ko Otsailaren 5a, Nagasaki, Japonia. Hilabete lehenago Osakan preso hartu eta negu gorrian 800 kilometrotako gurutze-bidea egin eta gero, Igokundeko Martin, Agirretarra guretzat, eta 25 martirik bizia eman zuten Nishizaka muinoan. Dohainez beteriko bizitzari amaiera iristetik urruti, gari alea lur onean sartu zen egun hartan.

Ale honen fruitu emankortasunaren lekuko gisa lau mende hauetan gure herrian Santu honen inguruan zuztarturiko sentimendu eta ospakizunak aurki ditzakegu, Euskal Herriko hainbat ohiturak bezala jarraitzaile sutsuak dituena.

**"Udala akonfesional aldarrikatzeak ez du automatikoki herria akonfesional bihurtzen"**

Alkate-soinu, Meza Nagusi edo Mazeroak oroitzapenen denboran galtzen diren usadio bilakatu dira Bergaran, uste baino jende gehiagorentzat San Martin festen ardatz izanik. Aurtengoan jai-egitaraututik, San Martin jaietatik hortaz, ezabatu dituzte ohitura hauek, hau marka, Santu baten inguruan ospaturiko jaietan meza *klandestinizatu*.

Udala akonfesional aldarrikatzeak ez du automatikoki herria akonfesional bihurtzen, hortaz, norbera ohitura hauen aldekoa ez izateak ezin du askoren ilusioak zapuztu. Bergarak ezin al du jaietan betiko ohitura hauetan parte hartzeko aukerarik izan?

**Hau be badaukogu**

### Pozik daude Kilometroetako antolatzaileak material salmentarekin

**Aste bi baino ez da falta Kilometroetarako. Horren dendako saltzaileak lanpetuta dabiltza. Arropen arduradun Marijo Beloki pozik azaldu da salmentekin. Aurreko urteen parekoa izan direla aipatu du. Kamisetak dira gehien saldu direnak, nagusi nahiz umeendako. Dagoeneko, haurrendako neurri batzuk falta direla ere esan du. Jertseak eta prakak ere ondo saldu izan dira. Urriaren 7an, Kilometroetako jaialdian, ibilbidean zehar bost denda jarriko dituztela adierazi du Belokik. Ondoren, Barrenkale kalean kokatuta dagoen denda hamar edo hamabost egunez zabalik egongo dela gaineratu du.**



MIRIAN BITERI

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak | Paper pintatuak
Moketa eta sintasola | Harea zorrotada
Iztuku esponjatua | Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

Dixula
BOKATAK DAUZKAGU
Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

## Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

# hemen bada giro!




































**EUSKARA** > UDAZKENEKO EGITARAUA

# Ikastaroak, hainbat txapelketa eta berbaldi asko Loramendiren eskutik

Astelehenean bukatuko da Joteko Prest! II. pala txapelketan jokatzeko izenemate epea; urrian, billar eta mahai-futbol txapelketak ere egingo dituzte


**BERBALDIA** Julio Ibarra kazetaria berbaldia egiten maiatzean udaletxe zaharrean, Loramendik antolatuta. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Ekitaldiz betetako egitaraua antolatu du Loramendi Euskara Elkarteak udazkenerako. Ikastaroak izango dira nagusi, eta era askotako berbaldiak ere bai.

**TXAPELKETAK ETA IKASTAROAK**
Urriaren 9an, martitzena, Joteko Prest! II. pala txapelketa hasiko dute. Martitzen eta eguenetan jokatuko dituzte partiduak, 19:30ean, Iturrigorri frontoian, eta finala abenduaren 14an izango da. Izena emateko epea astelehen honetan, irailak 24, bukatuko da, eta bikote bakoitzak 20 euro ordaindu behar ditu. Ez da izango hilabeteko txapelketa bakarra: urriaren 20an billar txapelketa egingo dute Azkena tabernan eta urriaren 27an, mahai-futbol txapelketa Haizea tabernan.

Urriko bigarren astean eskulan ikastaroak hasiko dituzte, gainera, Tril emakume taldeak antolatuta. Martitzenetan Rosa del Aguilak emango ditu eskolak eta eguaztenetan, Blanka Pereak gantxillo, patchword, puntu eta bordatuak zelan egin erakutsiko du. Batean zein bestean izena emateko urriaren 2tik 8ra deitu behar dute interesatuek Loramendi EEra. Bazkideek 25 euro ordaindu behar dute eta bazkide ez direnek, 30 euro.

Azaroan, ostera, masaje txinatarraren gaineko ikastaroa egingo dute Maitena Arana arrasatearrarekin. Udaberrian ere egin zuten eta arrakasta handia izan zuen. Eta abendurako egun bateko ikastaro bi antolatu dituzte: erreflexoterapiaren gainekoa Jabi Fernandezen eskutik eta sukaldaritzaren gainekoa, Carlos Mugerza sukaldariarekin.

**BERBALDIAK ETA BAKARRIZKETA**
Ikastaroekin batera berbaldiak izango dira nagusi udazkenean, era askotako berbaldiak, gainera. Urriaren 18an, *Haur Hezkuntza eta Waldorf pedagogia* izango du berbagai Miriam Txintxurreta aretxabaletarrak; azaroaren 9an, *Nairobitarra* ikus-entzunezkoa eskainiko dute Josu Iztuetaren eskutik; eta 15ean, Mexikoko emakumeen desagerpenaren gainean jardungo dute bertako emakume bik; eta azaroaren 23an, bakarrizketa izango da Express tabernan.

**EUSKARA** > BARRIKETAN EGITASMOA

# Badator Barriketan, euskaraz jarduteko

**M.A.** > ARETXABALETA
Abian da berriro Barriketan egitasmoa. Taldeak antolatzen dabiltza asteotan, eta oraindik badago izena emateko aukera.

**ASTEAN ORDUBETE EUSKARAZ**
Loramendi Euskara Elkarteak, Udal Euskaltegiak eta Udalak jarri zuten iaz abian Barriketan egitasmoa. Euskaraz ondo dakienak hain ondo ez dakitenekin –jakin arren egiteko ohiturarik ez dutenak edo 6. urratseko maila duten euskaldun berriak– elkartu eta berba egiteko aukera eskaintzen du Barriketanek. Hiru edo lau lagun elkartzen dira astean ordubete, eta konpromiso bakarra daukate, euskaraz jardutea. Goizez, arratsaldez zein gauez egiten dute hitzordua taldeek; batzuek tabernetan aurkitzen dute euskararendako txokoa kafesne baten inguruan eta beste batzuek, ostera, paseatzen dabiltzala.

**EUSKALDUN ZAHAR ESKE**
Iaz 28 lagunek jardun zuten egitasmoan, eta guztiek daukate errepikatzeko asmoa. Hala ere, zabalik dago izena emateko epea, Gurutze Larrinaga arduradunak adierazitako moduan: "Pozik hartuko genituzke euskaldun zaharrak. Astean ordubeteko konpromisoa bakarrik eskatzen dugu, eta etorri ezinen bat gertatuz gero ez da arazorik izaten". Izena eman gura izanez gero, euskaldun zahar zein berri, deitu euskaltegira edo *guru@leintz.euskalnet.net* helbidera idatzi.

Guraso taldeak ere antolatu gurako lituzke Larrinagak, parkean, plazan edo pilotalekuan umeen inguruan daudela euskaraz berba egin dezaten. Aurrerago izango da hori.


**BARRIKETAN** Egitasmoko kide batzuk ardoaren gaineko ikastaroan. BARRIKETAN

**UDALA** > AUZO ALKATEAK

# Aste bukaeran aukeratuko dituzte alkateak auzoetan

Eguaztenean, hilak 26, egingo dute auzo bakoitzeko boto kontaketa, udaletxean

**M.A.** > ARETXABALETA
Auzoetako alkateak aukeratuko dituzte aste bukaeran. Auzo gehienetan domekan, hilak 23, egingo dute bozketa, eta hilaren 26rako udaletxera ekarri behar dituzte hautestontziak.

**18 URTETIK GORAKOAK HAUTAGAI**
Bederatzi auzo daude Aretxabaletan, eta auzo alkate bakoitzak erabakiko du zein sistema erabili bozketa egiteko. Arkarazon, esaterako, elizpean jarriko dute hautestontzia domeka eguerdian; beste auzo batzuetan, ostera, baserririk baserri joango dira boto eske. Auzoan erroldatuta dauden 18 urtetik gorako guztiak dira hautagai.

Boto kontaketa eguaztenean egingo dute, 18:30ean, udaletxean.

Raijin Tattoo
MANTENDU DEBAGOIENA EDERRA!
TATUATU ZAITEZ!
Iralabarri plaza 1, behea
Aretxabaleta
Tel.: 610 85 91 54
www.myspace.com/raijintatoo

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

> IKASTAROA

### Heldu zein umeen pintura ikastarorako izenematea zabalik

Urrian hasiko dituzte pintura eskolak heldu eta umeek, eta datorren astean, astelehenetik eguenera bitartean, egongo da zabalik izenemate epea. Irabalarri plazan duten txokora hurreratu behar dute interesatuek, 18:30etik 20:00etara bitartean. Argibideak ere bertan emango dituzte, baina esan beharra dago ordutegi aukera zabala dagoela helduendako.

> IKASTAROA

### Hasiberriendako taila ikastaroa hasiko dute urriaren 1ean

Okila taldeak eta Kultura Sailak 60 orduko taila ikastaroa antolatu dute, hasiberriendako. Urriaren 1ean hasiko dute, eta astelehen, martitzen eta eguaztenetan dira eskolak, 18:00etatik 20:00etara. Kultur etxean, udaletxean edo Okilak duen txokoan eman behar da izena.

> ERRETIRATUAK

### Errioxa aldera joango dira egun-pasa urriaren 4an

Basotxo erretiratuen elkarteak Errioxara bidaia antolatu du. Fuenmayor, Navarrete eta Santo Domingo herrietara joango dira, urriaren 4an. Izena emateko irailaren 26an edo 27an pasatu behar da erretiratuen egoitzatik, 10:30etik 12:00etara.

**OSPAKIZUNA** > HAUR DANTZARIEN EGUNA

# 260 bat ume dantzari gurean domekan

Arrasateko talde bi, Antzuolakoa eta Oñatikoa etorriko dira Loramendi Dantza Taldearekin elkartzeko

Lau dantzagunetan banatuko dira goizean, eta arratsaldean alardea dantzatuko dute, Herriko Plazan

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Domekan, hilak 23, ospatuko dute gurean Haur Dantzarien Eguna. Arrasate, Antzuola eta Oñatitik datozen dantzariek herrikoekin egingo dute bat.



**DANTZARIAK** Loramendi Dantza Taldeko dantzariak zain dantzan egiteko. M.A.

**HERRIKOAK 100 DANTZARI**

Arrasatetik Txikitxu eta Lore Gazteak dantza taldeak etorriko dira, Antzuolatik Oinarin eta Oñatitik Oñatz; Soraluzetik ere etorri izan dira, baina aurten ez dira etorriko. Aretxabaletako Loramendi Dantza Taldeko 100 bat ume eta gaztetxorekin elkartuko dira kanpotik etorritakoak, 10:30ean, Herriko Plazan. Hamaiketakoa eskainiko diete antolatzaileek eguna gogotsu hasteko, eta ondoren, lau dantzagunetan banatuko dira taldeak: Herriko Plaza, Gernika plaza, Mitarte plaza eta Durana kalea.

Dantza erakustaldia egindakoan, 13:30ean, Herriko Plazan elkartuko dira guztiak bazkaltzera joateko. "Sasoi baten herritarrei eskatzen genien laguntza, baina azken urteetan boluntario gutxi agertzen zen. Hortaz, batzuk gastronomia elkarteetara joango dira eta beste batzuk herriko dantzarien etxeetara", adierazi du Aintzane Aizpurua arduradunak.

**ARRATSALDEAN, ALARDEA**

Arratsaldean, 17:00etan, alardea egingo dute guztiek elkarrekin. Neskek Sagar Dantza eta Gipuzkoako Makil Txiki dantzatuko dituzte; mutilek, Banakoa, Txakarrankoa eta Jorrai Dantza. Eta neskek eta mutilek batera egingo dituzte: Makil Txikiakoa, Gorulari, Txantxoak, Txulalai eta Luzaideko Esku Dantza. Ospakizuna 19:00ak inguruan bukatuko dute ume guztiei eskainiko dieten boloarekin.

**IKASTAROAK**

## Eskulan eta bainika ikastaroetan izenematea

Mila Akizu eta Rosa del Aguilaren eskutik eskulanak eta Piedad Romanekin bainika

**M.A.** > ARETXABALETA

Eskulan eta bainika ikastaroak antolatu ditu Kultura Sailak, helduendako. Urrian hasiko dituzte, baina izena emateko epea zabalik dago. Iralabarri plazan dagoen kultura etxetik pasatu behar dute interesatuek, 11:00etatik 13:00etara bitartean, eta 34 euro ordaindu.

**ORDUTEGI ZABALA AUKERAN**

Eskulan ikastaroak emateko bost talde egin dituzte, merkatariak zein txandaka lan egiten dutenak kontuan hartuta. Mila Akizu irakasleak jardungo du astelehenetan, 15:30etatik 17:30era eta 18:00etatik 20:00etara eta eguenetan, 14:30etik 16:30era. Rosa del Aguilak, ostera, eguaztenetan emango ditu eskolak: 09:30etik 11:30era eta 18:00etatik 20:00etara.

Bainika ikastaroak Piedad Romanek emango ditu, eta talde bi egingo dituzte: astelehenetan, 10:00etatik 12:00etara eta martitzenetan, 17:00etatik 19:00etara. Talde guztiak Iralabarri plazan elkartuko dira.



ingelesa
2006 - 07 ikasturtea

maila eta adin guztiak
matrikula epea irailaren 3tik 21era
bulego ordutegia: 16:30etatik 19:00etara

berbetan HIZKUNTZ ESKOLA

Berbetan Hizkuntz Eskola Belorrieta,4 20550 Aretxabaleta Tel. 943 790 069

JAIAK > SAN MIGEL ETA ERROSARIO JAIAK

# San Migel jaien egitarauaren aurkezpen ofiziala egin du Udalak

Etxeratek eta EAE-ANV alderdiak salatu dute aurten Udalak ez dituela presoen aldeko ekitaldiak sartu egitarau ofizialean



AURKEZPENA Amaia Intza, German Meabebasterretxea eta Lourdes Idoiaga. O.E.

OIHANA ELORTZA > OÑATI
San Migel eta Errosario jaietako egitarauaren aurkezpen ofiziala egin zuen Udalak martitzenean. Lourdes Idoiaga alkatea, Amaia Intza –Kultura zinegotzia– eta German Meabebasterretxea –Kultura teknikaria– egon ziren aurkezpenean.

**PARTAIDETZA**
Lourdes Idoiaga alkateak esan zuen bezala, "partaidetza handiarekin egindako jai egitaraua da, herriko hainbat taldek eta norbanakok hartu dute parte". Bide batez, jaiak "errespetuarekin" ospatzeko mezua zabaldu gura izan die herritarrei, "gauetan zarata handirik atera gabe eta kaleko altzariak hondatu gabe" ibiltzeko.

Amaia Intza Kultura zinegotziak esan zuen "gustu eta adin guztietarako egitaraua egiten" saiatu direla eta "kultur aniztasuna bultzatzea" izan dela helburua aipatu zuen. Horrekin batera, "herriko taldeen arteko lagun giroa eskaintzea eta sortzea ere bada jai hauen helburua", esan zuen Amaia Intzak. German Meabebasterretxeak, bestalde, aurrekontuak jaso dituen 167.000 euroak zertan gastatu dituzten azaldu zuen. "Hiruzpalau ordu irauten duten musika ekitaldiak ekarri ordez, kale ikuskizunen aldeko apustua egin dugu aurten ere; ia 42.000 euro gastatu ditugu talde horietan. Beste 50.000, adibidez, herriko talde ezberdinetan banatu ditugu. Aurten 20 talderekin batera osatu dugu egitaraua", zehaztu zuen. Kultura teknikariak gaineratu zuen azpiegituretan ere diru asko gastatu dutela eta beste zenbateko bat suak eta zezenak ekartzen, adibidez.

**PRESOEN ALDE**
Martitzenean bertan, Etxeratek eta EAEk salatu zuten aurten Udalak ez dituela urtero jaietan egiten diren presoen aldeko bi ekitaldiak sartu egitarauan: nagusien danborrada osteko manifestazioa eta Herri Egunean herriko preso eta errefuxiatuen aldeko ekimena. Etxerateko Begoña Usandizagak "izugarrizko mina" hartu dutela esan zuen eta EAEko Marijo Altubek "urrats berri bat eman ordez, aurkakoa egin dutela". Alkateak erantzun du esanaz ardurarekin jokatu dutela eta "asko kostatako erabakia izan dela".



KIROLDEGIA Zubikoako aparkalekua zabalik dago. O.E.

ZERBITZUAK > ZUBIKOA KIROLDEGIA

## Urriaren 1era atzeratu dute Zubikoa berriaren irekiera

Zubikoako eta Kalegoieneko aparkalekuak ere zabaldik daude; 172 autorendako tokia dago

O.E. > OÑATI
Gaur, egubakoitza, zabaldu behar zitutzen kirol instalazio berriak, baina urriaren 1a arte atzeratu dute. Kirol Zerbitzuak azaldu duenez, "erabiltzaileen mugimenduak antolatu beharrak eta ikastaroak zein material berria prestatu beharrak" atzeratu du irekiera.

**APARKALEKUAK**
Bestalde, Zubikoako aparkalekua eta Kalegoienekoa ere zabalik daude gaurtik. Kiroldegiko aparkalekuan 101 autorendako tokia dago eta Kalegoienekoan 71rendako. Udalak oraindik ez du arautegia onartu eta hori egin arte doan izango dira aparkaleku biak.

> MUSIKA

### Ganbara Txikik hasi du ikasturte berria eta zabalik dago abesten ikasteko matrikulazio epea

Ganbara Txikik hasi du 2007-2008 ikasturtea eta zabalik du matrikulazio epea. Lau talde hauetako baten eman dezakete izena umeek: kantu tailerrean (lautik sei urtera); bigarren kantu tailerrean (zazpi urtekoak); Ganbara Txikitxoan (zortzitik 11ra) edo Ganbara Txikin (12tik 18ra bitartekoak). Apuntatzeko interesa duenak argazki txiki bat eraman behar du Ganbara Txikik Errekalden duen lokalera eta matrikula orria bete beharko du han. Errekaldeko lokalean esango diote noiz eta zein ordutan izango dituzten entseguak. Lehen bi taldeak astean ordubete entsegatzen dute, hirugarren taldeak astean bi ordu eta laugarrenak astean bi ordu eta erdi. Egun, 90 ume daude lau talde horietan.

## Sei elizgizonek urrezko ezteiak egingo dituzte domekan

Urrezko ezteiak egingo dituzten lau oñatiarrak dira: Nikolas Zumalde frantziskotarra, Jose Luis Santakruz eta Jose Luis Galdos agustindarrak eta Jose M. Murua apaiza. Bestalde, David Irusta agustindar bizkaitarrak eta Sabino Zuazabeitia aretxabaletar apaizak urte asko daramatzate Oñatin. Ospatzeko, meza eta luntxa egingo dute parrokian 12:00etan.



OIHANA ELORTZA

> KOMUNIKABIDEAK

### Oñati Irratiak eta 'Kontzejupetik'-ek telefono berria dute

Oñati Irratiak eta *Kontzejupetik* aldizkariak telefono eta fax zenbaki berriak dituzte. Hauexek dira zenbaki berriak: telefonoz deitzeko, 943 78 20 72 eta faxa bidaltzeko, 943 78 22 53.

Udal komunikabide biak lehengo tokian dute egoitza, Olakua dorrean, baina telefono zenbakia aldatu dute orain. Lehengo zenbakiekin arazoak izan dituzte eta horregatik erabaki dute zenbaki berriak jartzea. Hemendik aurrera, beraz, hauxe duzue komunikabide bi horiekin harremanetan jartzeko zenbakia: 943 78 20 72.

**LEINTZ IBARRAUNDI FUNDAZIOA** > LOGOTIPO LEHIAKETA

# Irailaren bukaeran emango dute aditzera logotipo lehiaketaren epaia

Aukeratutako lanak Leintz Ibarraundi Fundazioa irudikatuko du aurrerantzean

Fundazioaren arduradunek gurago izan dute erabakia jende askoren artean hartu

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Irailaren bukaeran jakingo dugu Leintz Ibarraundi Fundazioaren logotipo lehiaketaren epaia. Hala jakinarazi digu Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek. Irabazleak 2.000 euroko saria jasoko du, eta aukeratutako lanak fundazioa irudikatuko du.

Lehiaketa ekainean deitu zuen Leintz Ibarraundi Fundazioak, eta, batez ere, diseinu grafikoan diharduten aditu eta profesionalei zuzendu zien deialdia. Hala, orduan jakinarazi zuten balorazioko irizpideak zeintzuk izango diren: erabilitako formen itxura berritzailea, fundazioaren helburuen adierazle izatea, logotipoa fundazioaren izenarekin modu egokian integratzea, originaltasuna, eta kalitatea eta adierazgarritasuna, hain zuzen ere.

Uztailaren erdialdean bukatu zen lanak aurkezteko epea. Eta orduko patronatuak erabakia bi eguneko epean ematea aurreikusi zuen. Egungo patronatuak, baina, gurago izan du erabakia hartzeko denbora luzeagoa hartu, "gauzak hobeto egitearren", alkatearen esanetan. Patronatua Udaleko hiru ordezkarik eta Eusko Ikaskuntzako beste bik osatzen dute.

Horrez gain, logotipo lehiaketa deitu zutenean, fundazioaren orduko arduradunen asmoa zen epaimahaia fundazioaren patronatuak osatzea, baina egungo udalbatzak ez du uste hori egokia denik. "Patronatua bost lagunek bakarrik osatzen dugu, gutxiegi da, eta gainera ez gara diseinu grafikoan adituak", azaldu digun Pedro Lasagabaster alkateak.

Horregatik, ibarreko adituei lan horien gainean galdetu diete eta jende askoren artean hartu dute erabakia: "Diseinu adituez gainera, zinegotzi guztiei eta Udaleko hainbat langileri esan diegu iritzia emateko, erabakia *sozializatzeko* asmotan", azaldu zigun alkateak.

**ERABAKIA, ASKOREN ARTEAN**
Lehiaketara 30 lanetik gora aurkeztu dituzte, eta dagoeneko horietako batzuk atzera bota dituzte, finalistak aukeratu dituztelako. Hala jakinarazi diete baztertutako lan horien egileei orain dela egun gutxi.

Behin finalisten izenak batuta, azkeneko erabakia datozen asteotan hartuko dutela jakinarazi dute. Hain zuzen ere, seguruenik, irailaren bukaeran emango dute aditzera logotipoa bera eta irabazlearen izena.

**KOORDINATZAILEA KONTRATATU**
Leintz Ibarraundi Fundazioarekin lotuta, haren ardura duten Udaleko ordezkariek azaldu digute euren asmoa dela fundazioa kudeatuko duen arduradun edo koordinatzaile bat kontratatzea. Ezinbestekotzat dute figura hori sortzea.

Dagoeneko hasi dute kontratazio prozesu hori, eta datorren hilabeterako zabalduko dituzte horren gaineko zehaztasunak.

**ARGAZKI BILDUMA** > 'ESKORIATZA IRUDITAN'

# Herriaren gaineko argazki zaharren erakusketa ikusgai 'eskoriatza.net'-en

Dagoeneko 1.119 argazki dituzte, eta herritarren laguntzarekin informazioa osatzen dabiltza; horrekin liburu bat kaleratu gura dute

**I.B.** > ESKORIATZA
Aspalditik Udaleko Kultura Saila egiten dabilen lana fruituak ematen hasi da. Dagoeneko sarean dago *Eskoriatza iruditan* izeneko argazki bilduma.

Orain dela 20 bat urte herriko argazkilari talde bat hasi zen herriaren gaineko argazki zaharrak batzen, eta gerora Udalak eskuratu zituen. Argazki horiei dagokien erabilera emateko asmoz, 2003an Udalak beka bat deitu zuen. Hala, Leire Parra historialariak irudiak artxibatu eta dokumentazio lana egin zuen.

**ARTXIBOA OSATU**
Horren ostean, iaz, Udaleko Kultura Saila Parrak egindako artxiboa osatzen hasi zen. Herritarrei laguntza eskatu, eta hainbat argazkiren gaineko informazioa batu zuen; baita argazki gehiago lortu ere.

"Herritarren esku-hartzea oso garrantzitsua izan da, ezinbestekoa", azaldu zigun Udaleko Kultura teknikari Arantza Untzuetak. Hain zuzen ere, herritarrei esker jakin dute argazkietako asko noiz eginda dauden eta zeintzuk diren irudi horien protagonistak.

Oso lagungarria izan zen, baita ere, San Pedrotan Kultura Sailak jarri zuen erakusketa eta diaporama. Argazki guztiak erakusgai jarri zituzten, eta herritarrak gonbidatu zituzten irudiak identifikatzera eta informazio zabalagoa ematera.

**1.119 ARGAZKI DAGOENEKO**
Informazio osagarri horrekin, *eskoriatza.net* webgunean argazki guztiak ikusgai jarri dituzte oso modu txukun eta antolatuan eta bakoitzari fitxa bana gehitu diote. Modu horretan, interesa duenak argazkiak urteka edo gaika aurki ditzake.

Hala ere, oraindik aukera dago argazki gehiago eramateko. Baldintza bakarra da 80ko hamarkada baino zaharragoak izatea. Eta Udalaren asmoa da argazkiz osatutako liburua egitea.



**INFORMAZIO BILA** Argazki horren eta beste batzuen gaineko informazioa behar du Udaleko Kultura Sailak. ESKORIATZAKO UDALA

AZKOAGA
ESTANKOA
943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

DE LA TORRE
igeltserotza
Erreformak orokorrean
Gremioen koordinazioa
Intxaurtxueta 7 2-D
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27

Mari Jose Pagaldai > Erizaina eta osasun aditua

# "Askotan, gure garbigailuak eta autoak gure gorputzak baino hobeto ezagutzen ditugu"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

**Joan den eguaztenean, Mari Jose Pagaldai eskoriatzarrak gorputzaren gaitasunen gaineko berbaldia egin zuen kultura etxean. Osasunarekin eta gorputzarekin lotutako beste hiru berbaldi egingo ditu epe laburrean. Horrez gain, gai bera oinarri hartuta, umeendako ipuin kontaketak egingo ditu urriaren bukaeran hasita. Pagaldai erizaina da, baina bestelako ikasketa asko egin ditu: naturopatia, akupuntura, masajea, yoga eta beste.**



Mari Jose Pagaldai gorputzaren eta osasunaren gainean aritzen da. I.B.

**Erizaina zara lanbidez, ezta? Non eta noiz egin duzu osasungintza klasikoan lan?**

Bai, Erizaintza ikasi nuen Gasteizen orain dela 20 bat urte. Orduan izan nuen lehenengo harremana osasungintzarekin. Arrasaten Eskualdeko Ospitalean hilabete batzuetan eta Huelvako ospitalean bi urte egin nituen.

**Horren ostean, bestelako osasungintzan murgildu zinen, ezta?**

Bai, konturatu nintzen osasunarekin lotutako lanak egin gura nituela, baina beste teknika batzuk jorratuz. Hala, aztertzen hasi nintzen eta ondorio batera heldu nintzen: gaixotasunen kontra egin beharrean, gurago dut osasunaren alde egin.

**Horren ostean, zer-nolako ikasketak egin dituzu?**

Hainbat. Naturopatia, akupuntura, masajea, yoga eta beste batzuk. Horietako batzuk Euskal Herrian ikasi ditut, eta beste batzuk Sevillan, Madrilen...

**Eguaztenean berbaldia egin zenuen kultura etxean. Zer azaldu zenuen?**

Entzuleei azaldu nien gure barruan eta gorputzean daukagun ahalmena zein den. Askotan ez gara horren jakitun eta asko egin dezakegu gure osasuna indartzeko. Hori da oinarrizkoena, nire ustez. Horrez gain, gure gorputzaren atalak eta horiek zelan funtzionatzen duten azaldu nuen. Askotan gure auto eta garbigailuak gure gorputzak baino hobeto ezagutzen ditugu.

**Herrian beste berbaldi batzuk egiteko asmoa daukazu.**

Bai, lau berbaldi ditugu aurreikusita: digestio-aparatua, arnasketakoa, zirkulaziokoa eta nerbioak izango ditugu berbagai. Hala ere, baliteke gai horiekin lotutako beste berbaldiren bat gehiago egitea. Gorputzeko atal guztiak lotuta daude, eta komeni da horiek ondo ezagutzea. Eta behin hori jakinda osasuna hobe dezakegu.

> **"Gaixotasunen kontra egin beharrean, gurago dut osasunaren alde egin"**
>
> **"Gure gorputzeko atalak eta gure gaitasunak ezagututa, gutxiago gaixotuko gara"**
>
> **"Egunetik egunera aurreiritziak apurtuz benetako neu bihurtzen nabil"**

**Eta baduzu umeei begira antolatutako beste ekimenen bat ere, ezta?**

Bai, urtaro bakoitzeko ipuin kontaketa bat egingo diet herriko ume eta gaztetxoei. 6 urtetik gorakoei zuzenduta daude kontaketak, eta lehena urriaren 24an egingo dugu. Txikienei ere gorputzeko atalen eta gaitzen zergatiak azalduko dizkiet, baina beste modu baten. Horretarako, metaforak, ipuinak, pertsonaiak eta beste elementu batzuk erabiliko ditut. Adibidez, bizkarraren jarreraren gainean berba egin gura badiet, zuhaitz baten adibidea erabil dezaket. Zuhaitz horrek handia izan gura du, eta horretarako enborra modu zehatz baten izan beharko du. Hala azalduko dizkiet gorputzaren barneko zehaztasunak.

Bestalde, koloreak eta musika ere erabiliko ditut, baita dantza eta tai txia ere. Kontaketak urtaroetan ematearen arrazoia da urtaro bakoitzean elikadura zehatz bat komeni dela, gure gorputzean sentsazio desberdinak izaten ditugula...

**Eta zer eman dizu zuri pertsonalki ikasitako eta deskubritutako guztiak?**

Asko. Gainera, nire lanbidea eta nire bizimodua oso lotuta doaz. Beti dago zerbait ikasteko, ilusio hori daukat. Barruan gaitasun handia daukagu, eta hori ateratzen dihardut.Egunetik egunera benetako neu bihurtzen nabil, edo, behintzat, horren saiakeran.

Ikasi ditudan teknika eta ezagutza guztiek laguntzen didate bilaketa horretan. Hala, dauzkagun aurreiritziak eta eskema itxiak apurtzen saiatzen naiz. Horrez gain, jendeari laguntzen diot gauza bera egiten.

EMAKUMEAK > AMUSKA ELKARTEA

# Batzordekide berriak Amuskan

## Amuska emakumeen elkarteak batzordekideak aldatu berri ditu, eta urrian hasiko ditu ikastaroak

I.B. > ESKORIATZA

Amuska emakumeen elkartea oso ezaguna da herrian. Batez ere, urteotan egiten duen lanarengatik. Oso emakume ekimentsuak dira, eta piztu egiten dute askoren egunerokotasuna.

Joan den astean, oporretatik bueltan, batzarra egin zuten eta ikasturterako batzarkide berriak izendatu zituzten.

Lehendakari kargua Dorleta Urrutiak hartu du; lehendakariorde ardura Mariluz Arandok izango du; eta idazkaria Vega Barco izango da. Idazkariorde, berriz, Gurutze Idigoras aukeratu dute.

Dirua zaintzeko lana Izaskun Otañok hartuko du eta hark alboan Filo Martinez izango du. Gainontzeko batzordekideak honako hauek dira: Nerea Egiguren eta Arrate Arana, hain zuzen ere.

**URRIAN, IKASTAROAK**

Horrez gain, jakinarazi dute urrian hasiko dituztela ikastaroak, berbaldiak eta bestelako ekintzak. Zehaztu bezain laster aditzera emango ditugu izenemateak.

AISIALDIA > LUDOTEKA ZABALIK

# Tortolis ludotekak ateak ireki ditu oraingo astean

## Astelehenetik egubakoitzera 3 eta 12 urte bitarteko zerbitzua jendaurrera zabaldu dute

I.B. > ESKORIATZA

Asteon, Tortolis ludotekak ateak ireki ditu. Ikasturtea hasteko, gonbidapena egin diete 3 eta 12 urte bitarteko eskoriatzar guztiei ludotekara joan eta bertan jolasteko. Ludoteka ikusi, ezagutu eta han dauden jolasak probatzeko gonbidapena, hain zuzen ere.

Hala, astean barrena, arratsaldero jolasak, film emanaldiak eta bestelakoak egin dituzte. Eta gaur, egubakoitza, ere egongo da bertan jolasteko aukera. Horrekin lotuta, ludotekako arduradunek jakinarazi digute astean egin duen eguraldi onak aurreikusitakoa baino jende gutxiago eraman duela Tortolisera. Horren ildora, badakite freskatzen hasi ahala gero eta ume gehiago joango direla bertara.

**GAZTELEKUA GAUR ZABALIK**

Aisialdi kontuekin jarraituta, gaur, egubakoitza, zabalduko dute gaztelekua. 12 eta 16 urte artekoendako zerbitzu hori Txatxilipurdi elkarteak kudeatzen du azken urteotan. Horrekin lotuta, aditzera eman dute urriaren 4an gurasoendako aurkezpena egingo dutela kultura etxean, 18:00etan.



**JOSTAILUAK PROBATZEN** Astean hasi dira umeak ludotekan jolasten. I.B.

**bere ustez**



Antonio Deogracias

# Betekizun dudan ikasgaia

Euskal Herria, ezpata bazina / legez sartu zara nire begietan, / baina zure mendietan / ez dut inoiz sasirik ikusi.

Herri hau asko maite dudan arren,oraindik ez dut bere hizkuntza ezagutzen. Extremaduratik atera nintzela urte asko dira, gurasoekin eta anai-arrebekin batera. Bizimodu hobe baten bila gentozen, oroitzapen txarrak (amaren heriotza) eta hainbat senide han lagata. Aldean geneukanarekin iritsi ginen Euskal Herrira.

**"Sinistuta nago Extremaduran jaio nintzen arren, nire lekua hemen dagoela"**

Urte askoren bueltan, uda honetan hara itzultzean sentituko nuenaren jakinmina izan dut; hango kaleak zeharkatzean igarriko nuenaren jakinmina. Egia esateko, ez dut sentitu ez pozik ezta tristurarik ere.

Sinistuta nago han jaio nintzen arren nire lekua hemen dagoela. Daukadan guztia eman dit herri honek: familia, etxea, lagunak, lana, maitasuna...

Aurreko baten, Trekutzerako bidean nindoala oinezko batek ia nongoa nintzen galdetu zidan eta Antzuolakoa esan nion. Harro sentitu nintzen.

Horregatik diot badela betekizun dudan ikasgaiari eusteko ordua, heriotza bisitan etorri baino lehen.

**KIROLA** > PILOTA

# Udalak babestutako etxebizitzen jabeei orain emango dizkiete garajeak

Antzuolako Udal Etxegintzaren Administrazio Kontseiluak erabaki horixe hartu zuen astelehenean; bizpahiru aste barru jasoko dituzte giltzak

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Udalak babestutako 20 etxebizitza egiten dihardute Eguzki eta Beheko auzoen artean, maristen eraikina zegoen tokian. Etxebizitza horien jabeendako garajeak izango dira plaza gorriaren azpiko aldean hutsik dauden 20 garaje. Ez ditu inork erabiltzen garajeok; horrenbestez, Udalak erabaki du, Antzuolako Udal Etxegintzaren bitartez, garajeak oraintxe ematea etxebizitzen jabeak izango direnei.

**82 URTERAKO KONTZESIOA**

Orain dela 17 urte egin zituzten plaza gorriaren azpiko aldeko garajeak. Lursailak Udalarenak ziren eta gune horretan garajeak egiteko lehiaketa deitu zuen. Sarkis enpresak irabazi zuen lehiaketa hori, eta hark kudeatu du garaje horien erabilpena. 99 urterako kontzesioa izan zen hura. Orain, Udalak babestutako etxebizitzen jabeei egingo zaie kontzesioa, 82 urterako, 17 urte pasatu dira-eta.




**GARAJEAK** Plaza gorriaren azpian daude garajeak, etxebizitzetatik gertu. A.I.

Horrelaxe azaldu du erabakia Pedro Iturbe alkateak: "Etxebizitzen jabeek ekainera arte ez dituzte izango giltzak. Bitartean, baina, garajeak hortxe daude, hutsik, inork ez ditu erabiltzen eta ikusi dugu egokiena dela oraintxe ematea garajeok". Bizpahiru aste barru jasoko dituzte garajeetako giltzak.

**AIHERRA-ANTZUOLA** > 25. URTEURRENA OSPATZEKO EKITALDIA DA HURRENGO ERRONKA

# Senidetze egunaren balorazio oso ona egin dute antolatzaileek

Udalak eskerrak eman nahi izan dizkie antolaketa lanetan eta ospakizunetan parte hartu zuten herritarrei

**A.I.** > ANTZUOLA

Aiherraren eta Antzuolaren senidetzearen eguna ospatu zuten domekan Antzuolan. Egun horren balorazio oso positiboa egin du Udalak. Horrela dio egin duten idatziak: "Udal askok dituzte senidetze harreman ofizialak. Zorionez, gure arteko harremana da herrikoia". 165 bat lagunek parte hartu zuten herri bazkarian. Bi urte barru 25 urte beteko dira herri biak senidetu zirela, eta hurrengo erronka izango da urteurren hori ospatzeko ekitaldi bereziren bat antolatzea.

> ENPRESAK

## Psikoterapia zerbitzua jarri dute Olaran etxean

Debagoieneko Mankomunitateak Olaranen daukan enpresa ekintzetarako zentroan enpresa berria jarri dute, psikoterapia zerbitzua, hain zuzen ere. Enara Agirre antzuolar gazteak jarri du negozio hori.

Horren harira, dagoeneko bost enpresa daude Olaran etxean; honako hauek, hain zuzen ere: Eusebio Gonzalez psikologoa, Barquero Garraioak, Gure Aldaki, Uharri eta Enara Agirre psikoterapeuta. Hura da antzuolar bakarra.

> FUTBOLA

## Etxean jokatzen duten lehen partidua, bihar

Bihar, zapatua, 16:30ean, etxean jokatuko dute denboraldiko bigarren partidua, Amaikak Bat taldearen aurka. Andoni Azkargorta entrenatzaileak hauxe adierazi du: "Talde sendoa da Debakoa eta partidu gogorra izango da". Preferente mailan ibilitako taldea da eta erregional mailan lehenengo postuetan sailkatu da azkeneko urteotan.

Lazkaoren aurka jokatu zuten lehen partidua aurreko domekan eta berdinketa lortu zuten.

> ANELKAR

## Elkartasun Festa egingo dute irailaren 30ean, domekan

Udazkeneko Elkartasun Festarako hainbat ekitaldi antolatu ditu Anelkar Antzuolako Elkartasun Taldeak. Batetik, Bidezko Merkataritzako produktuak saltzeko postua jarriko dute; zozketa ere egingo dute Euskadiko Kutxak emandako opariekin. Azkenik, Oihulari Klown taldeak *Otiacicoch* kale antzerkia egingo du, udaberriko elkartasun festan bertan behera geratu zena.

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
INDUSTRI MANTENIMENDUA
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUGIKORTASUNA

## Bi kale, ibilgailuei itxita

L.Z. > ELGETA
Mugikortasun Iraunkorraren Astea dela-eta, Udalak Salbador eta San Roke kaleak ibilgailuei ixteko erabakia hartu du. Kaleok gaur, barikua, 15:30ean itxiko dituzte. Asteburu osoan, beraz, oinezkoendako izango dira eremu biak.

**LAMBRETTA ETA VESPA NAGUSI**
Domekan, hilak 23, Lambretta eta Vespa motorren II. topaketa egingo dute herrian.

11:00etan egingo diete ongietorria partaideei. Ondoren, 32 kilometroko ibilbidea egingo dute batera. 17:00etan, trebetasun probak egingo dituzte Salbador kalean.

SAGARDO EGUNA

## Tortilla lehiaketa arrakastatsua

L.Z. > ELGETA
Sagardo Egunean 25 taldek hartu zuten parte tortilla lehiaketan. Sailkapena jasotzen dugu jarraian.

Bestalde, hauek dira gaztetxearen zozketan zenbaki sarituak: 526, 9, 760, 554, 142, 1143, 559, 1938, 560, 101, 1123, 1910, 226, 29, 1982, 727, 1922, 779, 1950, 1904.

### Lehiaketako sailkapena

1. Flori-Poti
2. Aralar
3. Txorromoski
4. Guraso Elkartea
5. Fly
6. Arzak-kuak
7. Akelarrekuak
8. Maribarak
9. Iñakis
10. Argiñanuak
11. Erleak
12. ie, ie, ie... gaztetxie
13. Mietai
14. Ezker Abertzalea
15. ea, ea, ea... gaztetxea
16. Maya
17. Elorrixoko neskak...
18. Pello and Jesus
19. Elgeta F.T.
20. Arrautzatxoak
21. Millonarixuak
22. Txango-Txango
23. Gauma
24. Patateruak
25. i, i, i... gaztetxi

ITURRIA: ELGETAKO GAZTETXEA

**HEZKUNTZA** > ZABALIK IRAILAREN 28RA ARTE ESKOLA KIROLA PROGRAMAN IZENA EMATEKO EPEA

# Iritsi da haurreskola berria gertatzeko unea

Udalak hausnarketa prozesua jarri nahi du martxan, haurreskola berria era egokienean gertatzen lagunduko duena, eta abiapuntua hitzaldi bat izango da

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
Eraiki dituzte Torrealdeako babes ofizialeko etxebizitzak eta iritsi da behin betiko haurreskola gertatzen hasteko momentua Elgetan.

Haurreskola osorik egin behar denez, Udalak hezitzaileei eta umeei ondo egokitutako lokal bat prestatu nahi du. Hala, hausnarketa prozesua jarri nahi dute martxan, interesatu guztiei zabalduta egongo dena.

**ADITU BATEN HITZALDIA**
Hausnarketa prozesu horren abiapuntua hitzaldi bat izango da. Eguenean, hilak 27, Juanjo Quintela psikopedagogoak bere esperientziaren berri emango du. Haurtzaindegiak zeinendako, zertarako eta nolakoak behar duten azalduko du. Azken finean, haurtzaindegiak prestatzerakoan kontuan hartu beharreko irizpideak zeintzuk izan behar duten azalduko du. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo du,19:00etan,. Herritar guztiei dago zabalik.


ARTXIBOA
ESKOLA KIROLA Elgetako umeak eskola kirola egiten.

**IZENEMATEAK ESKOLA KIROLERAKO**
Elgetako Kirol Kontseiluak, bestetik, eskola kirola programan parte hartzeko deia zabaldu du. Izena emateko epea irailaren 28ra arte dago zabalik. Zerbitzua 3., 4., 5. eta 6. ikasturteetako umeei eskaintzen zaie eta prezioa 35 euro da.

Kirol hastapena helburu duen zerbitzua ere eskaintzen dute aurtengo ikasturtean, 6-8 urte bitarteko umeendako. Izena emateko epea eta prezioa berdina da. Arduradunek urriaren 8an informazio bilera bana egingo dute zerbitzuen ezaugarriak azaltzeko.

**ERRETIRATUEN ELKARTEA** > HITZALDIA ANTOLATU DUTE ASTELEHENERAKO, 17:00ETAN

# Tristura eta ezkortasunari nola aurre egin azalduko dute asteleheneko hitzaldian

Urteko bigarren eta azken hitzaldia antolatu du Elgetako erretiratuen elkarteak, herritar guztiei zabaldutakoa

L.Z. > ELGETA
Astelehenean, hilak 24, hitzaldia egingo dute Elgetako udaletxean. Erretiratuen elkarteak antolatu du, Kutxa eta Nazaret zentroaren babesarekin. Bertan, Elena Iraolagoitia adituak pentsamendu positiboa nola landu azalduko du. Tristura eta ezkortasunari aurre egiteko tekniken berri emango du hark. Hitzaldia 17:00etan hasiko da eta herritar guztiei zabalduta dago.

**BIZKAI ALDEAN, GUSTURA**
Aurreko astean, berriz, erretiratuek txangoa egin zuten Bizkai aldera. 50 bat lagun elkartu ziren giro ederrean egun-pasa egiteko.

Portugaleten ibili ziren lehenengo, Bakion bazkaldu zuten eta Bermeon egin zuten arratsaldepasa.


IRTEERA Elgetako erretiratu taldea Bermeoko portuan. ZEZILIO TOTORIKAGUENA

bere ustez


Eduardo Zubiaurre

## Azpiegiturei buruzko eztabaida

Gero eta sarriago irakurtzen ditut munduko *gobernanza*-ren aldeko iritziak. Badirudi etorkizuneko mundu globalizatuan, espezie bezala gizakiok izango ditugun erronka eta interesak kudeatzeko sistema egokiren bat asmatu beharrean aurkituko garela.

Era berean eztabaida bizia dago gure herrian azpiegiturak erabakitzeko moduari buruz. Zilegitasuna zein maila edo erakundek izan beharko luke? Herri erakundeetan erabaki edo herri galdeketen bitartez egin?

**"Eztabaida bizia dago gure herrian azpiegiturak erabakitzeko moduari buruz"**

Biologiaren arloan gertatzen denari begiratzen badiogu zera azaltzen zaigu, espezieak zenbat eta konplexuagoak are eta espezializazio eta ordezkatze prozesu gehiago bere barnean. Hau da, alor ugari, espezializazio handia eta etengabeko ordezkatzeak erronka edo behar jakin bati aurre egiteko.

Aurrekoaren arabera, Europar Batasunean diseinatu eta Eusko Jaurlaritza kudeatzen ari den egitasmo erraldoi baten aurrean, eraginkortasunik aitortu beharko genioke angiozartarrek herri galdeketa bitartez erabakitakoari? Nire iritziz behintzat, ez dirudi sistema egokiena denik.

RECYDE
AENOR
ER
Empresa Erregistratua
ER-0182/2/95
RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA



ARAMAIOKO SAGARDOAREN EGUNA Argazkian Aramaioko sagardogileak. GOIENKARIA

**SAGARDOAREN EGUNA** > V. EDIZIOA

# Sagardoaren Eguna ospatuko dute zapatuan Aramaion

Bailarako hamabost sagardogilek hartuko dute parte Aramaioko Sagardoaren Egunean

Sagardoaren elaborazioari buruzko erakusketa egingo dute Sastiñan, bideo eta argazkiekin

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Sagardoa izango da protagonista domekan Aramaion, Txirritola Euskara Elkarteak eta Aramaioko Sagardozaleen Elkarteak antolatuta Sagardoaren Eguna ospatuko dute-eta. Aurtengoa bosgarren edizioa izango da eta Aramaioko bailarako hamabost sagardogile inguruk hartuko dute parte bertan. Hain zuzen ere, zapore eta mota guztietako sagardoa dastatzeko aukera izango da.

Goizeko hamaika eta erdietan hasiko dute festa aramaioarrek trikitilarien kalejirarekin. Herriko kaleak girotu eta alaitu ostean, hamabi eta erdietan, Aramaioko Bertso Elkarteak agurra egingo du. Dantza taldeak Sagar Dantza egingo du ondoren. Gero, sagardo dastaketari hasiera emateko Aramaioko Sagardozaleen Elkarteko lehendakariak agurra eta txotxa egingo du.

Giroa alaitu eta berotu ostean, arratsaldeko hamabi eta erdietan zabalduko dituzte kupelak. Hamabost postu egongo dira denera, guztiak Herriko Plazan. Edalontziek hiru euro inguru balioko dute eta hori ordaindu-ta nahi adina sagardo edateko aukera izango dute bertara gerturatutakoek.

Baina zer litzateke sagardo on bat txorizo taloa eta gazta pusketa barik? Horretan ere pentsatu dute aramaioarrek egun horretarako. Herriko gazteek taloak eta bertako artzainen gaztaz ekoiztutako pintxoak egingo dituzte.

Goiz guztian zehar, gainera, sagardoaren elaborazioari buruzko erakusketa egongo da Sastiñako ermitan. Haren ekoizpenaren inguruko bideo bat jarriko dute bertan. Azken urteetako sagardo egunen eta Aramaioko hainbat sagartokiren argazkiak ere egongo dira ikusgai erakusketa horretan.

ASE ELKARTEA

## Sagardoa ekoizteko lokala lortu nahi dute ASEkoek

Aramaioko Sagardozaleen Elkartekoek bertako sagardoa ekoizteko toki bat lortu nahi dute. Eta Udalak eman die dagoeneko horretarako leku bat. Eusko Jaurlaritzarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin ere jarri dira harremanetan eta orain bi instituzio horien oniritziaren zain daude lokal horretan sagardoa ekoizteko makinak sartu ahal izateko. Sagardozaleen Elkartetik azaldu digutenez, teknologia berritzailea darabilten makinak ipiniko dituzte. Horiei eske, gaur egun lau egunetan egiten duten lana egun bakarrean egingo lukete.

Makinak baserritar guztien artean konpartitzea da asmoa, baina nork bere sagardoa egiten jarraituko luke. Eusko Jaurlaritzatik baiezkoa jasoz gero, berehala jarriko dituzte martxan makina berriak, ornitzaileekin hitz eginda badakite-eta zein makina ekarriko dituzten.

**ARAMAIOKO SAGARDOA**

Zapore eta ehundura askotariko sagardoa dastatzeko aukera izango da Aramaion domekan, horixe da-eta Aramaioko Sagardoaren Egunaren berezitasunetako bat.

Aramaioko baserritar gehienek etxerako egiten dute, eta ez merkatuan saltzeko. Hori horrela, lehengo erara ekoizten dute, fermentazio karbonikoarekin. Ez dute inolako etnologorik erabiltzen sagardoaren azterketa egiteko, eta, horren ondorioz, baserri batetik bestera asko aldatzen da zaporea.

Joan den urtean eguraldiak lagunduta uzta ona jaso zutelaeta, sagardogileak pozik daude lortutako sagardoarekin. Aurten joan den urtean baino gutxiago jasoko duten arren, uzta ona izango dela diote Aramaioko sagardogileek. Hasi dira dagoeneko zuhaitzetatik erori diren sagarrak batzen. Datorren hilean hasiko dira sagardoa egiten. Sagarra prentsatu eta hilabetez fermentatu ostean itxi egingo dituzte kupelak. Datorren maiatz alderako sagardo freskoa dastatzeko aukera izango dugu berriz.

**IBAN ELEJALDE** > OMENALDIA

## Iban Elejalderi omenaldia egingo diote zapatu gauean

**GOIENKARIA** > ARAMAIO

Gaur bete da urtebete Iban Elejalde gazte aramaioarra hil zela. Arrazoi horregatik, Ibanen lagunek omenaldia antolatu dute zapaturako. Elejalde Xementerio talde aramaioarraren abeslarietako bat izan zen Gorka Ariasekin batera. Hala, punk talde hori agertoki batera igoko da aspaldi-aspaldiko partez. Hitzordua Aramaioko plazan egin dute, zapatuan, 23:00etan. Xementeriorekin batera, baina, beste talde batzuek ere esku hartuko dute. Xementerio taldea 1987an sortu zuten, punk eta hardcore kantuak idatzi zituzten, eta Euskal Herrian emanaldi asko egin zituzten. Ez zuten inoiz maketarik ezta bestelako grabaziorik kaleratu, ezta salgai jarri.



ELEJALDE Iban omenduko dute bihar.

> ZERBITZUAK

### Aramaion argindarra kenduko dute irailaren 26an, bi orduz

Hain zuzen, 09:00etatik 10:00etara eta 17:00etatik 18:00etara kenduko dute argindarra hilaren 26an. Azkoaga eta Barajuen arteko linearen ibilbidea aldatzeko lanak egingo dituzte. Udaletik jakinarazi dute, baina, mozketak bi ordu iraungo duen arren gainontzeko orduetan ere balitekeela argindarrak arazoak ematea. Ibarra auzora argindarra iristeko makinak erabiliko dituzte.

> IKASLIBURUAK

### Urriaren 28an amaitzen da dirulaguntzak jasotzeko epea

Hasi berri den ikasturterako ikasliburuak erosteko laguntzak emateko deialdi publikoa egin du Udalak. Laguntzak Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan nahitaez erabili beharreko liburuak erosteko dira. Ikasleek Araban erroldatuta egon behar dute. Eskaerak aurkezteko epea urriaren 28an amaitzen da.

**UDALA** > OSOKO BILKURA

# AHTren proiektuari alegazioa aurkeztu dio Udalak, iturburuak lehortuko dituen beldur

Abuztuan aurkeztu zuen eta oraindik ez dute erantzunik jaso; asteon egindako ohiko osoko bilkuran berretsi egin dute alegazioa

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Abiadura Handiko Trenaren proiektua izan dute berbagai, beste gai batzuekin batera, asteon egindako osoko bilkuran. Abuztuan aurkeztutako alegazioa berretsi egin du udalbatzak.

**ITURBURUAK KEZKA ITURRI**

Udal hauteskunde ostean eratutako udalbatzak lehen ohiko osoko bilkura egin zuen eguaztenean. Eta Eskoriatza eta Legutiano artean egingo duten AHTren lanak izan zituzten berbagai. Marin auzotik Legutianora bitartean ia bost kilometroko tunela egingo dute. Hala, Gatzagako lur azpitik pasatuko da trena, eta horrek beldurtu egin du Udala. Eusebio Villar alkateak azaldu digu zein den kezka: "Herriko iturburuak lehortu egingo diren beldur gara, autobidearen lanekin gertatu zitzaigun moduan". Orduan, Lapikozuluetako iturburua lehortu zen, eta Jarindo menditik gertu dagoen Marotobasotik dakarte orain ura Gaztainuzketara.

Udalak alegazio bakarra aurkeztu zuen eta oraindik ez du erantzunik jaso. Hainbat gatzagarrek, bestalde, lurrak dituzte Eskoriatza aldean, eta haiei desjabetzeak egingo dizkiete. "Eskoriatzako jabeekin harremanetan jartzeko esan genien haiei, alegazioak aurkezteko", esan digu Villarrek.



**UDALBATZA** Ohiko osoko bilkura egiteko elkartu zen udalbatza eguaztenean, hilak 19. M.A.



**BIDAIA** Iaz Frantzia aldean ibili ziren Sorginak taldeko kideak. SORGINAK

**EMAKUMEAK** > BIDAIA

# 20 bat emakume joango dira Lapurdi aldera aste bukaeran

Zugarramurdi, Ainhoa, Ezpeleta, Baiona eta Donibane Lohizune ezagutuko dituzte

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Sorginak emakume taldeak egindako deiari erantzunez, 20 emakume inguru joango dira aste bukaeran Lapurdi aldera.

**SORGINEN MUSEOA**

Sorginak taldea sortu zenetik 19. bidaia egingo dute. Taldeko kide Mariatxen Arantzabalek bazekien emakume askok emango zutela izena: "Nagusitu egin zaizkigu Sorginak taldeko hainbat kide; hala ere, gurekin jarrai dezaten gura dugu, eta bidaia luzeegiak ez antolatzen ahalegintzen gara azken urteotan. Lapurdi aldea ezagutuko dugu Arrasaten bizi den Rene Arbustan zuberotarraren eskutik, eta bidaia polita antolatu dugulakoan nago".

Bihar, zapatua, herritik irten eta Nafarroako mugan dagoen Zugarramurdira joango dira, Sorginen Museoa ikustera. Lapurdira salto egingo dute ondoren, eta Ainhoa ezagutuko dute lehenengo eta Ezpeletan dagoen piper kontserben lantegia eta bertako buztingintza gero. Lo egiteko, ostera, hiriburura, Baionara, joko dute: "Lo bakarrik ez, zergatik ez joan dantzan egitera?", dio Arantzabalek.

Domekan Donibane Lohizunera joango dira, kortsarioen festa ikustera. Eta bapo bazkaldu eta gero etxerako bidea hartuko dute.

**KIROLAK** > PILOTA

# Herriko pilotariek denboraldia hasi dute

Txapelketak jokatzen hasteko asmoa dauka Gatzagako Pilota Taldeak; bi aste barru izango da

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Astean bertan hasi dituzte entrenamendu saioak herriko pilotari gazteek. Bi aste barru, gainera, Gatzagako taldea osatu eta txapelketak jokatzen hasiko dira.

**14 MUTIKO INGURU**

Eguaztenean elkartu ziren pilotalekuan entrenatzen hasteko. Hain zuzen, 8 eta 13 urte bitarteko 14 bat mutikok jardun zuten iaz pilota taldean, eta aurten ere gehienek jarraitzen dute. "14 urterekin federatuta jokatu behar dute; hortaz, baten batek taldea utziko du", jakinarazi digu Jose Inazio Beloki entrenatzaileak.

Pilotari gazteek, gainera, erronka berria dute aurten, txapelketetan jardutea. Maila guztietako bikoteak ezingo dituzte osatu herriko pilotariekin: "Adin guztietako bikoteak ez ditugu, baina gure asmoa da eskoriatzarrekin berba eginda irtenbidea topatzea", esan du Belokik.

Gogotsu ekin diote denboraldiari pilotariek eta gogor lan egiteko asmoa azaldu dute guztiek.



**PILOTARIAK** Gatzagako pilotari gazteak entrenatzailearekin batera, eguazteneko entrenamendu saioa hasi aurretik. M.A.

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Reala-Elx
Zapatua. 18:30. Anoeta.

**Kadeteen Euskadiko Liga**
Aretxabaleta-Barakaldo
Zapatua. 11:00. Ibarra.

**Preferente maila**
Aloña Mendi-Euskalduna
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Zestoa-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Zubiaurre.
Eibartarrak-Mondra
Zapatua. 17:30. Unbe.

**Lehen erregionala**
Elgoibar-Bergara
Zapatua. 16:30. Mintxeta.
Antzuola-Amaikak Bat
Zapatua. 16:30. Estala.

**Bigarren erregionala**
Urki-Aretxabaleta
Zapatua. 19:00. Unbe.
Ikasberri-Elgeta
Zapatua. 15:30. Garmendipe.
BTLS-Eibartarrak
Domeka. 17:30. Ipintza.

**Ohorezko mailako gazteak.**
Beasain-Bergara
Zapatua. 18:00. Igartza.
Mondra-Zumaiako
Domeka. 16:30. Mojategi.
Ordizia-Aloña Mendi
Zapatua. 18:45. Altamira.
Urola-Aretxabaleta
Zapatua. 18:00. Argixao.

**Lehenengo mailako gazteak**
Aretx.Arizmendi B-Ilintxa
Zapatua. 16:30. Ibarra.
Bergara-Soraluze
Zapatua. 16:00. Ipintza.

**Kadeteen ohorezko maila**
Bergara-Tolosa
Domeka. 12:00. Ipintza.

**Kadeteak**
Arizmendi-Bergara B
Zapatua. 10:00. Almen.
Eibartarrak-Aretxabaleta B
Zapatua. 17:30. Unbe.
Ilintxa-Arrasate
Zapatua. 11:00. Bikuña.

**Kadete txiki**
Arrasate-Internacional
Domeka. 11:30. Mojategi.

**Ohorezko mailako infantilak.**
Aretxabaleta Ariz.-Zumaiako
Domeka. 12:00. Ibarra.
Zarautz-Arrasate
Domeka. 10:00. Asti Txiki.
Bergara-Eibar
Domeka. 10:30. Ipintza.

**Infantilak**
Urki-Aloña Mendi
Domeka. 15:30. Unbe.

**Infantil txikien maila**
Arrasate-Beasain
Zapatua. 11:30. Mojategi.
Aretxabaleta B-Lagun Onak
Domeka. 10:15. Ibarra.

**Emakumezkoen Liga**
Ordizia-Mondra
Zapatua. 16:00. Altamira.
Bergara-BTLS
Zapatua. 18:00. Ipintza.
Arizmendi B-Lagun Onak
Zapatua. 15:30. Almen.
Mutriku-Arizmendi
Zapatua. 16:30. San Miguel

**Emakumezkoak F11 kadeteak**
Zumaiako-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Aita Mari.
Zarautz-Arizmendi
Zapatua. 10:00. Asti Txiki.

**SASKIBALOIA**

**Seniorrak**
Candy BKE-Astigarraga
Zapatua. 16:00. Labegaraie.

**ESKUBALOIA**

**Mikel Deuna Txapelketa**
Hirugarren postuagatik lehian:
Aloña Mendi-Bergara
Zapatua. 10:30. Zubikoa.
Finala:
Haritza-Zarautz
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

**PILOTA**

**Gipuzkoako Txapelketa. Kadete, gazte eta senior mailakoak. Eskuz binaka.**
Arrasateko-Aurrera Saiaz
Gaur. 19:30. Uarkape.
Aretxabaleta-Lagunak
Gaur. 20:00. Iturrigorri.
Eibar-Bergara
Gaur. 20:00. Eibar.
Aurrera Saiaz-Bergara
Gaur. 21:00. Beotibar.
Intza-Arrasateko
Zapatua. 11:00. Mitxelin.
Hernani-Arrasateko
Zapatua. 11:00. Hernani.
Hernani-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Hernani.
Mundarro3-Bergara1
Zapatua. 17:00. Astigarraga.
Mundarro2-Bergara2
Zapatua. 17:00. Astigarraga.
Bergara-Gazteleku
Zapatua. 18:30. Udal pilota.
Bergara-Arrasateko
Zapatua. 18:30. Udal pilota.
Bergara-Lagunak
Zapatua. 18:30. Udal pilota.
Eskoriatza-Tartaloetxe
Domeka. 10:30. Eskoriatza.
Eskoriatza-Erniope
Domeka. 10:30. Eskoriatza.
Eskoriatza-Aurrera Saiaz
Domeka. 10:30. Eskoriatza.

**4x4 AUTOAK**

**4Cuattro4 Txapelketa**
Zapatua. 15:00. Apotzagan (Eskoriatza). AP1 autobideko hondakindegian.

**MENDIKO LASTERK.**

**Zegama-Aizkorri maratoia**
Domeka. 09:00. Zegaman.

**XAKEA**

**Arrasate Hiria Txapelketa**
Bigarren jardunaldia.
Gaur. 19:00. Altamiran.

**TXIRRINDULARITZA**

**Mikel Deuna saria**
Lehendakari Txapelketarako amateur mailako lasterketa (114 kilometro).
Zapatua. 10:00. Olakuan (Oñati).

**GOLFA**

**Mikel Deuna 5. Txapelketa**
Zapatua. 09:30. Oñati.
Irelore Golf zelaian.

> TXIRRINDULARITZA

### Lehendakari Txapelketako azken proba egingo dute amateur mailakoek, zapatuan, Oñatin

Txirrindularitzako 20. Oñati saria egingo dute zapatu goizean (10:00etan hasita). Lehendakari Txapelketako azken lasterketa izango da, eta asko dago jokoan, Seguros Bilbao taldeko Gorka Izagirrek eta Jonathan Castroviejok dute-eta txapelketa irabazteko aukera; sailkapenean pare-parean, azken lasterketa horretan indartsuen dagoenarendako izango da saria. Olakua auzoan hasiko dute lasterketa, eta antolatzaileek 80 ziklista espero dituzte. 114 kilometroko etapa egingo dute.

> GOLFA

### San Migeletako 5. Golf Txapelketa egingo dute, bihar, 09:30ean hasita, Irelore Golf Eskolan

Bihar, zapatua, Oñatiko jaien barruan egingo dute 5. Golf Txapelketa, Irelore eskolan. Zapatuko norgehiagokan, baina, finalak jokatuko dituzte; hala, azken hilabeteotan kanporaketa bidez aurrera egin dutenak izango dira bain zein gehiago. Jakin, kirol hori gertutik ezagutu gura duten guztiak daudela txapelketara gonbidatuta; izan ere, kirol horrek duen elitista itxurarekin amaitzea da Irelorekoek gura dutena.

**MENDI LASTERKETA** > ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIA

# Hogeita bost debagoiendar maratoia egiteko gertu

## Domekan 09:00etan hasiko dute Zegama-Aizkorri mendi lasterketa

## Bost orduren bueltan ibiliko diren lasterkariak 13:00ak inguruan igaroko dira Urbiatik



**PUBLIKOAREN BEROTASUNA** lazko lasterketako iru

XABIER URTZELAI > BERGARA

Domekan egingo dute Buff Skyrunner World Series txapelketako azken proba puntuagarria: Zegama-Aizkorri mendi maratoia. Hala, proba horretako zaleek aurreko edizioetan baino gehiago itxaron behar izan badute ere –aurten irailera atzeratu dute lasterketa–, hemen da Euskal Herriko mendiko proba garrantzitsuena.

Lasterkariek 42 kilometro eta 195 metroko mendi zeharkaldian ia 5.500 metroko desnibelari egin beharko diote aurre, eta munduko korrikalari azkarrenekin batera lehiatuko dira ibarreko 25 lagun, guztiak ere sufritzeko gertu.

**NOR BERE HELBURUAREKIN**

Lasterketan esku hartuko duen korrikalarietako bat da Iban Isasti oñatiarra: "Aurtengoa hirugarren aldia izango da, baina ondo dakit ez naizela aurrekoetan bezain ondo egongo, gutxi entrenatuta nator-eta. Oñatin badaude bost orduren bueltan ibiliko diren lasterkariak, baina neu proba amaitzeko helburuarekin irtengo naiz".

Oñatikoa Alemaniako ironmana prestatzen ibili da aurten, eta ezin izan du denera iritsi: "Abuztuan ezin izan dut gauza handirik egin, eta abuztu amaieratik orain arte ibili naiz ahalik eta ondoen entrenatzen". Hala, non sufrituko duen gehien galdetu diogu Oñatikoari: "Zegamatik Zegamara sufrituko dut nik", esan digu barre eginez: "Zegamatik Aratzera dagoen igoera da gogorra, baina orduan fresko egoten gara. Nire ustez, Aizkorrira zelan ailegatu, hor dago gakoa. Aizkorrira bidean estutu egin duenak ondo igarriko du gero. Bestalde, Aizkorrira ondo iritsi denak gozatu egin dezake amaieran".

**LEHENENGO ALDIZ**

Igor Oiarbide bergararrarendako, berriz, domekakoa proba berria da: "Behobia eta horrelako lasterketak egin izan ditut, eta orain dela bi aste ere Lezaman izan nintzen, beste lasterketa batean. Hala ere, Zegama-Aizkorrik ez du aurrekoekin antzekotasunik, proba luzea da-eta".

Esan digunez, Oiarbidek errespetu handia dio domekako probari: "Sufritu egingo dut, hori badakit, baina mentalizatuta noa, lasai-lasai aterako naiz". Maiatzean hasi zen lasterketarako entrenatzen, baina orkatila bihurritu eta hilabete egin zuen geldi: "Ez dut nahi moduan entrenatu. Joan den astean egin nuen ibilbideko zati bat, eta bai, oso gogorra da".

**"BURUAREKIN JOKATU"**

Hori da Iker Sarabia prestatzaile fisikoak esan diguna, gomendio onena buruarekin jokatzea dela. Sarabiak Aizkorriko maratoia egingo duten ibarreko zortzi lagunen entrenamenduak gidatu ditu: "Horrelako proba baterako erresistentzia lantzea ezinbestekoa da, hori da entrenamenduaren oinarria. Bestalde, giharrak indartu egin behar dira, baina ez hanketakoak bakarrik. Aldapa gora, adibidez, besoek asko laguntzen dute, eta aldapa behera ondo joateko beharrezkoa da abdominalak eta lunbarrak sendotzea".

Entrenamenduak antolatzeko orduan, berriz, oso garrantzitsua da pertsona bakoitzaren beharretara moldatzea: "Ze lan egiten duten, zenbat denbora libre duten, zer indartu behar duten... Gauza asko izan behar dira kontuan". Dagoeneko, bai-

### Zegama-Aizkorri, luzea eta gogorra

Lehen esandako moduan, lasterketak (42,195 km) 5.472 metroko desnibel metatua du, eta partehartzaileek EAEko tontorrik garaienetakoak igaroko dituzte: Aratz, Aizkorri, Aketegi eta Aitxuri, hain zuzen. Lasterkariek, gehienez, 8 orduan egin beharko dute ibilbidea. Gizonezkoetan errekorra 3 ordu, 54 minutu eta 18 segundotan dago; emakumeetan, berriz, 4 ordu, 43 minutu eta 4 segundotan dago errekorra.




Mendi maratoiko profila; guztira 14 kontrolgune egongo dira. GOIENKARIA



dian, ikusleak korrikalaria animatzen, aldapan gora. GOIENKARIA

ESANAK

**"Aizkorriko gainera ondo iristean dago gakoa; hor gaizki doanak behar baino gehiago sufrituko du, seguru"**

**Iban Isasti** > Lasterkaria

**"Korrikalariei buruarekin jokatzeko aholkatuko nieke, euren erritmora joateko, proba luzea da-eta"**

**Iker Sarabia** > Prestatzaile fisikoa

na, egin beharreko lana eginda dago, eta domekan ikusiko ditugu emaitzak: "Lasterkariei buruarekin jokatzeko esango nieke, erraza izaten da-eta beste batzuen erritmoan hastea. Baina hemengoak amateurrak dira, ez profesionalak, eta norberaren erritmoan joan beharrean azkarrago joanez gero, berehala etortzen dira karranpak eta bestelako arazoak. 42 kilometro ezin dira topera egin, argi eduki hori; proba luzea dela, alegia".

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Euskalduna hartuko du Aloñak Azkoagainen; Mondra eta Aretxabaleta, berriz, kanpora

Igor Gordobilen mutilak hirugarren garaipenaren bila joango dira Eibarrera; UDAk Zestoaren zelaian jokatuko du

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Aloña Mendik jokatuko du oraingo aste bukaeran etxean, bederatzigarren lekuan dagoen Euskaldunaren kontra (domeka, 16:30). Aretxabaletaren zelaian lortutako garaipenak emandako konfiantzaz, Josu Zubiaren mutilek etxeko lehenengo garaipena dute helburu.

**MONDRA, OSO ONDO**

Bi jokatu eta biak irabazi; hori da orain artean Gordobilen mutilek egin dutena, eta eibartarren zelaian bolada on horrekin jarraitu gura dute (zapatua, 17:30, Unbe).

Bi garaipen horiei esker Mondra bigarren postuan dago, eta biharko kontrario Eibartarrak ez da preferenteko kontrario gogorrena, talde horrek orain arte ez du-eta norgehiagokarik irabazi.

Aretxabaletari dagokionez, Igor Arenazak aste barruan adierazi moduan, liga ez badute ondo hasi ere denboraldia luzea da, eta badaki taldeak azken urteotako maila erakutsiko duela. Hala, taularen erdialdean dagoen Zestoa izango dute Aretxabaletakoek asteburuan kontrario (zapatua, 16:00, Zestoa). Hortxe dute bidea zuzentzeko lehen aukera.

**4X4 AUTOAK** > TXAPELKETA APOTZAGAN

# "Ikusgarria da autoak iraultzeko puntuan daudela ikustea, mugan ibiltzea"

**X.U.** > ESKORIATZA

Zapatuan egingo dute, Eskoriatzako Apotzaga auzoan, 4Cuattro4 Txapelketa (15:00etan hasita). AP-1 autobideko hondakindegia aprobetxatu dute 4x4 ibilgailuendako zonak egiteko: "Ez da abiadurazko proba, zonak ahalik eta ondoen igarotzea da helburua, baina zailtasunak izango dituzte horretarako: zuloak, maldak, lokatza...", esan digu Ibon Aranburuzabalak.

**OÑATIKOAK ESKORIATZAN**

Eskoriatza eta inguruetako zaleak antolatzaile lanetan ibiliko direnez, Oñatiko pilotuak izango dira ibarreko ordezkariak. Horrez gain, kanpotik ere jende asko etorriko da. "Proba ikusgarria izango da, autoak iraultzeko puntuan egoten dira-eta, mugan ibiliko dira".

Hala, zona bakoitzean puntu gehien eskuratu duen pilotuak irabaziko du.



**MUGAN** Irudian iazko txapelketako zonetako bat, 4x4 ibilgailua erabat inklinatuta. JOSETXO ARANTZABAL



# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## IGELTSEROAK

**DE LA TORRE IGELTSEROTZA**
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

**G. IZCUE IRURZUN**
Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak…
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

**LEIHATEK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

**DAVILA MARGOAK**
Aretxabaleta
• Margoak orokorrean
San Migel 7, 3d.
Tel.: 646 22 41 09

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.



**> KANTARI**
Karaoke ikuskizunerako entseguak hasi dira **> 45**




**> TXIOKA.NET**
Twitterren ibiltzen diren euskal herritarren bilgunea **> 45**

**> ASIER SALA**
Arrasateko musikazalea, 14 urterekin hasi zen herriko Enboskada taldean jotzen. Egun musika proiektu asko ditu esku artean. Gitarra eskolak ere ematen ditu **> 50**



# Aramaio, ipuinen paradisua

Euskal Herri osotik etorriko dira kontalariak bihar, zapatua, Aramaiora

Hainbat kontaketa era: ipuin poteoa, ipuin kontsultorioak, ipuin musikatuak...

Kontalarien esanetan, Aramaio toki ezin hobea da ipuinen erreinu bilakatzeko

**AITZIBER ARANBURUZABALA** > ARAMAIO
Euskal Herriko kontalarien erreinu bilakatuko da bihar, zapatua, Aramaio. Herriko hainbat txokotan izango dira kontalariak eta era askotan kontatuko dituzte istorioak.

Iaz Getxon egin zuten *Getxo kontari* lehen ipuin topaketaren arrakastaren ondoren, Aramaio herri aproposa iruditu zitzaien antolatzaileei jaialdiaren bigarren edizioa egiteko. "Batetik, herri txiki baten egin nahi genuelako, horietan istorioek bizirik diraute-eta; eta, bestetik, hasieratik sekulako harrera ona jaso dugulako udaletxe zein herritarrengandik", azaldu du Itziar Rekalde ipuin kontalaria eta antolaketa taldekoak. Hain zuzen, biharkoari, *Bazen behin Aramaion* izena jarri diote.

Urteroko jarraipena eman nahi dioten jaialdi ibiltaria da. Nagusiki bi helburu ditu: batetik, kontalarien arteko harremana sendotzea; eta bestetik, narrazioa publiko guztiei zabaltzea.

**30 KONTALARITIK GORA**
Euskal Herri osotik etorriko dira kontalariak eta euskaraz zein gazteleraz kontatuko dituzte istorioak. "23 kontalarik eman dugu hitza egun osoan Aramaion izateko, baina badakigu beste hainbat egunean zehar agertuko direla. Haiek kalean izango dira; beraz, inprobisazioarentzako ere lekua izango da egitarauan", gaineratu du Rekaldek.

Kontalarien zerrenda luze horretan, izen batzuk beste batzuk baino ezagunagoak egingo zaizkigu, ibilbide eta adin askotarikoak aurkituko ditugu-eta: "Izen batzuk esatekotan, aitzindariak aipatuko nituzke: Koldo Amestoy, Pello Añorga, Antton




KARTELA *Bazen behin Aramaion* kontalarien topaketa bihar Aramaion. RAKEL URIBE



VIRGINIA IMAZ Bergarako ipuin kontalaria iazko *Getxo kontari* topaketan. BEGOÑA GOMEZ, KANDELEN ARGIPEAN TALDEKOA

## Aramaio, ipuinen paradisua

(43. orrialdetik dator)

Irusta, Jose Mari Carrere eta Virginia Imaz, beste batzuren artean", azaldu du kontalariak.

Jaialdiaren antolaketari dagokionez hauxe adierazi du Rekaldek: "Maiatzean heldu genion bete-betean egitaraua osatzeari. Hiru lagunek izan dugu ardura handiena: Iñaki Carretero, Jose Mari Carrere eta nik neuk; baina gainontzeko kontalarien laguntza izan dugu, noski!".

**EGUN OSOKO EGITARAUA**

Ekitaldiz betetako eguna prestatu dute biharko. Hala, jaiaren aurkezpen ofizialaren ostean, *Aramaio magikoa* mintzaldiak zabalduko du goizeko hamaiketan egitaraua. Aramaioko historian adituak diren herriko bi ikerlarik egingo dute, udaletxeko aretoan.

Herriko hainbat txokotan jarraituko du ondoren jaiak, bazkalordua bitartean. Istorioak entzuteko era ezberdinak izango dira: musikaz lagunduak, pertsonalizatuak, ipuin poteoan...

Arratsaldean, berriz, tokian toki, herriko txoko bakoitzari dagozkion ipuinak kontatuko dizkiote, afalordua bitartean. "Jaia, euskaldunok ohi dugun moduan amaituko dugu, hau da, mahaiaren bueltan, ipuin afari herrikoiarekin. Afarian izango diren guztiak animatu nahi ditugu istorioak kontatzera", gaineratu du Rekalde kontalariak. Aipatutako herri afaria eskolan izango da.

**GUZTIONTZAKO ISTORIOAK**

Era guztietako entzuleak harrapatu nahi ditu biharko jaialdiak; horregatik, bada, askotariko zaletasunak hartu dituzte kontuan antolatzaileek.

Musikazaleek txalaparta, gitarra, adar eta dultzainaren laguntzarekin entzungo dituzte istorioak.

Poteozaleak, taberna eta elkarteetan zehar ibiliko dira trikitilari baten laguntzarekin istorioak entzuten.

Ipuin pertsonalizatuak nahiago dituenak ipuin kontsultorioak izango ditu aukeran. Behar duenaren araberako istorioa eskatu ahal izango dio hurbiltzen den guztiak kontalariari: barre egiteko, estresa kentzeko, beldurrak kentzeko...

Haurrak ere, nola ez, kontuan izan dituzte antolatzaileek: "Haurrentzako prestatu dugun tailerrean, ipuinekin zerikusia duten ekintzak antolatu ditugu: marrazkien eta jolasen bitartez, besteak beste. Horrez gain, haurrentzako aproposak diren ipuinak ere kontatuko ditugu; Sastiña baselizan, hain justu, txikienentzako ipuinak entzungo dira", azaldu du antolatzaileak.

Horra hor, bada, biharko gonbidapena: egunerokotasunetik ihes egiteko paradisu bihurtuko da bihar Aramaio.

### EKITALDIEN TOKIAK

**> TABERNAK ETA ELKARTEAK**
Gai askotariko istorioak kontatuko dituzte taberna eta elkarteetan zehar egingo duten poteoan.

**> UDALETXEKO ARKUPEA**
Kontalarien erronda egingo dute. Kontalariek, txandaka, ipuin laburrak kontatuko dituzte.

**> BIRIBILGUNEA**
Ipuin kontsultorioa izango da. Bakarka entzuteko edo ipuin pertsonalizatuak entzuteko bidea, Nardeaga kaleko biribilgunean.

**> ERREKAKO ZUBIA**
Urarekin eta errekarekin lotutako ipuinak kontatuko dituzte.

**> SASTIÑA BASERRRIA**
Haurrentzako aproposak diren istorioak kontatuko dituzte.

**>SANTA ANA BASELIZA**
San Antonioren irudia dagoen baselizan amodiozko istorioak entzuteko aukera izango da .

**>PARKEA**
Haurrentzako tailerra izango da herriko parkean. Txatxilipurdi elkarteak ere esku hartuko du.

**>ELIZAKO ESKILERETAN**
Ipuin laburren erronda egingo dute kontalariek, txandaka.

**> KANPOSANTU ZAHARRA**
Misteriozko eta beldurrezko istorioak entzuteko aukera.



IEFPS Aretxabaleta GLHBI

*Etxebarri auzoa, z/g*
*Tel.:943 79 79 00 / 943 77 09 55*
*E-mail: ia@iaretxabaleta.com*
*Web orria: www.iaretxabaleta.com*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Bi baldintza hauek betetzen badituzu, erraza da lan egiten duzun bitartean "Erizain laguntzaile" titulu ofiziala ateratzea**

Gutxienez 21 urte izatea edo 2 urteko lan esperientzia eta

Honako ikasketaren bat gaindituta izatea:

- **2.BBB**
- **LH1**
- **EE2**
- **DBH**

*Etor zaitez IEFPS ARETXABALETA GLHBIra eta informatu*
*Matrikulazio epea irailaren 28an bukatzen da.*

**ANTZERKIA** > ESTREINALDIA EUSKAL HERRIAN

# 'Bang, bang y somos historia' antzezlana gaur Espaloian

ETB2ko 'Mi querido Klikowsky' telesaileko protagonistak idatzitako eta zuzendutako lana

**O.E.** > BERGARA
*Bang, bang y somos historia* izeneko antzezlana aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, Elgetako Espaloia kafe antzokian. Argentinako antzezlana da eta Elgetan egingo dute Euskal Herriko estreinaldia.

**UMOREA**
ETB2ko *Mi querido Klikowsky* telesaileko protagonistak, Martin Gervasonik, idatzi eta zuzendu duen antzezlana da. Taldekoek diote umorea dutela gustuko eta antzezlan horrek ere umorea du, baina baita hausnarketa ere. Ikus-entzuleak kontuan hartuko dituen lana da.

Antzezlan horrekin hasiko du ikasturte berria Espaloiak. Datozen hilabeteetarako lotuta dituzten ikuskizunen artean daude: Yllana taldearen *Pagagnini* antzezlana, Leo Bassi eta Ruper Ordorikaren kontzertua.

**ZINEMA** > KIMUAK PROGRAMAK 10 URTE

# Asier Altunaren 'Topeka', 12 labur onenen artean

Irailaren 26an Donostiako Zinemaldian botako dituzte labur guztiak

**O.E.** > BERGARA
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sortu eta Euskadiko Filmategiak kudeatzen duen Kimuak programak 10 urte bete ditu aurten. Urteurren hori dela eta, Kimuak-en egon diren 12 labur onenak hautatu dituzte. Eta 12 horien artean dago Asier Altuna bergararrak zuzendutako *Topeka* laburra. Besteen artean daude, adibidez: Koldo Almandozen *Belarra*, Nacho Vigalondoren *7:35 de la mañana*, Jose Mari Goenagaren *Sintonía* eta Borja Cobeagaren *Eramos pocos*.

Aukeratutako laburrak irailaren 26an botako dituzte Donostiako Zinemaldian, Euskal Zinemaren Egunean. Laburren DVD berezi bat ere argitaratuko dute.

Asier Altunak 2002an aurkeztu zuen *Topeka*, eta hamar sari baino gehiago irabazi ditu dialogorik gabeko lan horrek.



**FILMA** *Topeka* filmaren irudi bat. GOIENKARIA

> HEZKUNTZA

### Idazle Eskolak bosgarren aldiz eskainiko du graduondokoa Bergarako UNED ikastetxean

Idazle Eskolak bosgarren aldiz eskainiko du idazketa literarioaren eta idazketa profesionalaren graduondokoa. 2003-2004 ikasturtean hasi ziren Idazle Eskola izeneko egitasmoa irakasten UNEDen, eta arrakasta izan duenez, 2007-2008 ikasturtekoa bosgarren aldia izango da. Ikasturte honetan ere zapatu goizetan izango dira eskolak, Bergarako UNEDen, 09:00etatik 13:30era. Hala ere, ikastordu presentzialak ez ezik, ikastordu telematikoak ere emango dituzte. 300 orduko egitasmoa da eta bi mailatan emango dute. Anjel Lertxundi, Edorta Jimenez, Tere Irastortza eta Fito Rodriguez dira irakasleetako batzuk. Graduondoko hori Hezkuntza Sailak homologatua dago.



**BERGARA** Aste honetan Bergaran izan dira entseguak; irudian dauden neskek martitzenean entseatu zuten. EDU MENDIBIL

**IKUSKIZUNA** > IBARREKO UME ETA GAZTETXOAK KANTARI

# 'Debagoienean kantari' karaoke ikuskizuneko entseguak hasita daude

Zortzi ikuskizun egingo dituzte guztira eta lehenengoa urriaren 20an izango da, Oñatin; GOITBk azarotik aurrera emango ditu telebistan

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Hasita daude *Debagoienean kantari* karaoke ikuskizuneko entseguak. Ibarreko 570 ume eta gaztetxok uda izan dute tokatu zaien kanta ikasteko eta irailaren hasiera ezkero koreografia prestatzen ari dira entseguetan.

**ENTSEGUAK**
Gehienez lau laguneko taldeak egin dituzte ume eta gaztetxoek. Batzuk kantuaz gain koreografia ere prestatu dute udan eta beste batzuek, ordea, entseguetan lantzeko utzi dute. Horretarako, Maite Albes dantzari arrasatearraren laguntza dute artista gazteek. Ume kantarien ideia garatzen ahalegintzen da Albes, eta horretan laguntzen die. Dantzan eskarmentu handia du Maite Albesek; Arrasateko eta Madrilgo hainbat dantza ikuskizunetan hartu du parte.

Aretxabaletan eta Eskoriatzan irailaren hasieran egin dituzten entseguak. Aste honetan Bergaran egin dituzte, datorrenean oñatiarren txanda izango da eta Arrasateko gatetxoena ondorengoa. Talde bakoitzak 45 minutu izaten ditu kantuari dagokion dantza prestatzeko.

**EUSKAL KANTUAK**
Estilo askotario kantuak kantako dituzte ibarreko ume eta gaztetxoek, hala nola ska, rocka, folka eta metala. Abesti guztiak euskal kantuak dira, euskal taldeek abestu dituztenak. Horien artean daude, besteak beste, Kortatu, Oskorri, Skalariak, Gozategi, Hertzainak, Latzen eta Egan taldeenak. Abesti horiek CD batean sartu dituzte eta horietako bana eman zaie umeei, tokatutako kantua ikasteko udan. Oñatiko Amaia Txintxurretak grabatu ditu kantuok eta hura izango da zuzeneko ikuskizunetako aurkezlea. Bestalde, Txus Arriaran bergararrak eta Domentx Ucin soraluzetarrak *Kantari* izeneko kantua egin dute eta hori ume guztiek abestuko dute.

**IKUSKIZUNAK**
*Debagoienean kantari* ikuskizuneko lehen zuzenekoak urriaren 20an eta 21ean egingo dituzte, Oñatiko gaztelekuan. Hurrengo biak Bergarako Jam aretoan izango dira, Arrasateko Amaian beste bi egingo dituzte eta azken biak Eskoriatzako Huhezi fakultateko areto batean. Ikuskizunak irekiak izango dira. GOITBk grabatu egingo ditu eta azarotik aurrera emango ditu telebistan.



**KOROSTI INMOBILIARIA**
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Ibargarai 74 $m^2$. Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua.
- Masterreka 92 $m^2$. Ondo.
- Osintxu 80 $m^2$. Berritua.
- Angiozar. Bi solairu. Berritzeko.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua.
- San Pedro 65 $m^2$. Prezio ona.
- Iraburu 84 $m^2$. Terrazarekin.
- Zubieta 60 $m^2$. Prezio ona.
- Masterreka 92 $m^2$. Prezio ona.
- Zubiaurre 70 $m^2$. Berritua.
- Zabalotegi 70 $m^2$. Prezio oso ona.

**Antzuola:**
- Buztinzuri 76 $m^2$. Prezio ona.
- Antigua 72 $m^2$. Oso ondo.

**Elgeta:**
- San Roke 90 $m^2$. Berritua.
- Salbador 90 $m^2$. Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

**DEBA GARAIA INMOBILIARIA**
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Koldo Elizalde, 107 $m^2$
- Bidekurutzeta, 200 $m^2$, aukera ona
- Zabalotegi, 80 $m^2$, ondo
- San Anton Abad, 75 $m^2$, oso ondo
- Bidekurutzeta, 60 $m^2$, oso ondo
- Zubiaurre, 60 $m^2$, aukera ona
- Zubieta, 65 $m^2$, oso eguzkitsua
- Irizar pasealekua, 92 $m^2$, oso ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$,ondo
- Artekale, 62 $m^2$ oso ondo
- Aranerreka, 87 $m^2$, ondo
- Ortuibar, 100 $m^2$, ia berria
- Mugertza, 60 $m^2$, berria
- Masterrekan etxebizitzak 3 logelakoak eta duplexak
- Ibarra, 130 $m^2$, aukera ona

**SORALUZE**
- Gabolatz, 65 $m^2$, oso ondo

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01** sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.**
**PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ARRASATE**

**INGELESEKO IRAKASLEAK BEHAR DIRA ARRASATERAKO.**
**Bidali zure cv-a ondorengo helbidera:**
**MONDRAGON LINGUA,**
**Araba etorbidea 4, 20500 ARRASATE**
**edo svazquez@mondragonlingua.com helbidera**

**ARRASATE**

**Merkatuan ondo kokatua dagoen enpresak hainbat alorretan lan egiteko 23 pertsona behar ditu.**
**Eskatzen da:**
- Arduratsua izatea.
- Adin nagusikoa izatea.
- Ikasteko gertu egotea.

**685 73 21 27 (Monika)**

**ARRASATE**

**Esperientziadun sukaldaria behar da astelehenetik ostiralera arratsaldez lan egiteko. Eskolako ordutegian deitu.**

**607 63 37 79**

**ARRASATE**

**Bi etxebizitza salgai**

| | |
|---|---|
| • Estreinatzeke | • Estreinatzeke |
| • Larrea plazan | • Larrea plazan |
| • Sukalde hornitua, 80 m2 gutxi gorabehera | • Sukalde hornitua, 120 m2 gutxi gorabehera |
| • Prezioa: 237.400 euro | • Prezioa: 297.500 euro |

**617 33 63 11**

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuolan.** Ibarre auzoan etxebizitza salgai. 82 metro koadro. 628 93 31 87.

**Arrasate.** Etxea salgai Grupo San Juanen. 70 m2, eguzkitsua, igogailua, ganbara eta sotoa. 619 25 46 69.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai, Otalora 2, azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Arrasate.** Hiru logela. Altzariekin. 273.460 euro. 943 77 09 39. 943 77 09 39.

**Arrasate.** Zerrajera kalean. 110 metro koadro. Hego-mendebaldera begira. 945 15 40 22.

**Bergara.** 50 metro koadro. Berriztatuta eta berogailuarekin. 180.000 euro, negoziagarriak. 635 71 04 55.

**Bergara.** Aranerrekan (Bolu) etxebizitza salgai. 75 m2, 3 gela, egongela, 2 bainugela, sukaldea, terraza, ganbara eta berokuntza zentrala. 665 71 48 30.

**Bergara.** Barrenkalea 16an. 76 metro koadro, bi logela. Guztiz berritua. 629 38 29 96.

**Bergara.** Baserria salgai. Berriztatuta. Bi solairu ditu eta tailerra azpialdean. 300.000 euro. 660 04 58 60.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzariekin. Bizi izatera sartzeko gertu. Prezio interesgarria. 628 26 65 77.

**Bergara.** Erdialdean etxebizitza salgai. Eguzkitsua. 90 metro koadro. Bizitzera sartzeko gertu. Ia guztiz jantzita. 685 72 40 30.

**Bergara.** Etxea salgai Zubiaurren. Berrituta, berogailuarekin eta ganbararekin. 619 41 39 72.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Aranerrekan. 75 metro koadro. Hiru logela, egongela, bainugela, komuna, sukaldea, balkoia eta trastelekua. Berokuntza zentrala. 665 71 48 30.

**Bergara.** Etxebizitza salgai. Duplexa egiteko aukera ematen duen ganbara handiarekin. Erdialdean dago eta oso eguzkitsua da. Berritua. Prezio interesgarria. 669 70 49 36.

**BERGARA**

**Depor tabernak zerbitzariak behar ditu.**

**629 26 88 51**

**DEBAGOIENA**

**Ikasketa zentroak ingeles irakaslea behar du Oñati eta Bergararako**

**943 76 26 29**

**BERGARA**

**Hamaika tabernak sukaldari laguntzailea behar du.**

**943 03 45 85**
**669 36 65 79**

**Bergara.** Masterrekan. Hiru logela eta egongela ditu. 630 32 15 07 edo 943 76 50 26.

**Bergara.** Masterrekan. Hiru logela eta egongela ditu. 630 32 15 07 edo 943 76 50 26.

**Elgeta.** Hiru logela eta ganbara. 138.232 euro. Deitu telefono honetara: 645 71 76 25.

**Elorrio.** Duplexa salgai. Herri erdialdean. 96m2. 3 logela, estudioa, 2 bainu, sukaldea eta egongela, trastelekua, garaje itxia, igogailua, gas naturaleko kalefakzioa... Prezio negoziagarria: 320.000 euro. 615 79 69 40 edo 615 79 69 37.

**Ezkarai.** Kanpin pribatuan egurrezko etxea salgai. Partzelarekin eta txokoarekin. Igerilekua eta tenis pista. Deitu telefono honetara: 685 70 17 92.

**Logela** bakarreko apartamentua salgai Arrasaten, Arimazubin. Terrazarekin eta ganbararekin (estudioa jartzeko aukera). Guztiz berritua eta prezio ezin hobean. Bizitzera sartzeko prest. Deitu telefono honetara: 687 83 97 37.

**Oñati.** 100 m2 erabilgarriko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 676 39 36 93.

**Oñati.** Duplexa salgai eraikitzen ari diren etxebizitzetan. Zubibarri kalean. Lehenengo eta bigarren solairuak. Garajea ere bai. Deitu telefono honetara: 670 85 85 41.

**Oñati.** Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. 90 m2. Hiru logela, sukaldea, bi komun, estudioa, bi balkoi, garajea eta ganbara, dena jantzita. 324.546 euro. Telefonoa: 943 71 60 56 edo 606 96 16 13.

**Oñati.** San Lorentzo auzoan etxea salgai. Hiru logela, bi bainugela, ganbara eta garajea. 656 74 80 47.

**Oñatin** etxebizitza salgai, Zubillaga auzoan. 79 m2. Hiru logela, sukaldea, egongela, bainugela bat eta ganbara. Oso egoera onean eta berritua. Deitu telefono honetara: 697 57 77 44 edo 635 71 41 39.

### 102. EROSI

**Arrasaten** etxea erosi nahi dut, prezio egokian. Deitu telefono honetara: 606 03 80 18.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Antzuola** Antigua kalean dagoen etxebizitza ematen dut errentan. Gauean deitu. 943 76 21 06.

**Arrasate.** Bi logelako etxea errentan erdialdean. Telefon: 605 75 54 52.

**Arrasate.** Etxea alokatzen da erdialdean. Lau logela. Telefono: 630 54 57 38.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan ematen da ikasleendako, Grupo San Juanen. Lau lagunendako lekua. Iluntzean deitu. Telefono: 945 44 52 81.

**Bergara.** Arrizuriaga 13. Euskaldunei. Lau logela. Deitu telefono honetara: 943 76 43 49.

**Bergara.** Ubera auzoan etxebizitza errentan ematen da. Urtarril hasiera arte. 150 metro koadro. Guztiz jantzita. Telefono: 685 72 83 27.

**Donostian.** Bi ikaslerentzako etxebizitza alokagai Donostia erdialdean 2007/2008 ikasturterako. Deitu telefono honetara: 620 06 35 92.

**Oñati.** Bi logelako etxebizitza Olakua auzoan, ikasturtean zehar bakar-bakarrik. Telefonoa: 660 40 06 75.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxea hartu nahi dut errentan. Bi lagunendako adinakoa. 630 32 23 70 edo 943 25 05 01.

**Bergara.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan. Nahiko da bi logeladuna. 669 64 76 28.

**Debagoiena.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu telefono honetara: 627 81 45 51.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aramaio.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu. 699 28 99 06.

**Arrasate.** Bi pertsona euskaldun behar dira Arrasate erdialdean dagoen etxebizitza osatzeko. Deitu telefono honetara: 615 76 40 71.

**Arrasate.** Lagun bat behar da etxea osatzeko. Urritik aurrera. Hilean 180 euro + gastuak. Iñaki. Deitu telefono honetara: 636 89 07 74.

**Arrasate.** Logela bat errentan Erguinen. Neska ikasle edo langileentzat. Deitu telefono honetara: 650 96 23 08.

**Arrasaten.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Oso merke. Unibertsitatetik oso gertu. Deitu telefono honetara: 677 83 47 29.

**Oñati.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Telefonoa: 617 14 39 41.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garajea alokagai daukat Uribe auzoan. Deitu telefono honetara: 625 28 72 06.

**Arrasate.** Garajea salgai Uarkapen. 12 metro koadro. Telefonoa: 609 44 61 92.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Bustinzuri kalean. 638 89 78 76.

**Arrasate.** Garaje itxia errentan Kontzezinon. Deitu telefono honetara: 660 96 90 45.

**Arrasate.** Garaje plaza bat (marraduna) errentan Kontzezinon. Deitu telefono honetara: 655 71 81 84.

**Arrasate.** Garajea alokatzeko daukat Uarkapen. Deitu telefono honetara: 675 71 59 92.

**Arrasate.** Uarkapen garajea errentan ematen da. Telefonoa: 680 77 64 05.

**Bergara.** Ibargarai kalean. Telefonoa: 943 76 74 19.

**Bergara.** Ibargarai kalean garajea errentan ematen da. Telefonoa: 627 90 74 48.

**Bergara.** San Antonio kalean garajea errentan. 21 m2. 652 74 81 82 edo 943 79 13 52.

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Autokarabana gordetzeko lokala errentan hartuko nuke. 665 72 02 53.

**Bergaran edo Arrasaten** hartuko genuke. Deitu telefono honetara: 607 31 85 60.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aerobik** irakaslea behar dugu Aramaion. Urte osorako. 665 72 62 83.

**Aretxabaleta.** Pertsona bat behar dugu haurrak zaintzeko. 635 75 72 57.

**Arrasate.** Hiru urteko umea zaintzeko pertsona euskalduna behar da Zigarrolan. Telefonoa: 686 02 56 25.

**Arrasate.** Umea zaintzeko emakumea behar da. 17:00etatik aurrera deitu. 606 71 83 68 edo 669 64 44 12.

**Bergara** Gizonezkoa gertu lantegian, lorezain edo garbiketa lanetan jarduteko. 699 15 33 16.

**Debagoiena** Gizona gertu zerbitzari moduan, sukaldean edota umeak edo nagusiak zaintzen lan egiteko. Deitu telefono honetara: 659 37 41 95.

**Emakumea** gertu tabernak garbitu edo umeak zaintzeko, Aretxabaletan. 636 59 40 35.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakumea gertu arratsaldez orduka lan egiteko. 636 91 92 83.

**Arrasate.** Garbiketa lanetarako edo adineko pertsonak zaintzeko emakumea gertu, egunez (orduka) zein gauez. 636 91 93 81.

**Arrasate.** Ingeles eskolak ematen ditut. Maila guztiak. 609 94 90 01.

**Arrasate.** Umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko emakumea prest. Arratsaldeetan orduka egingo nuke lan. Esperientziaduna. 679 27 06 26.

**Arrasate.** Umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko emakumea prest. Esperientziaduna. Orduka egingo nuke lan. Paperekin. 650 62 12 94.

**Bergara.** Emakume euskalduna gertu etxeko lanetarako edo umeak zein nagusiak zaintzeko. 943 76 04 18.

**Bergara.** Etxez etxeko ile apaintzaile zerbitzua eskaintzen dut. 699 26 95 74 edo 648 87 53 27.

**Bergara.** Neska bat gertu lanerako, orduka. 610 84 94 85.

**Bergara.** Orduka adineko pertsonak zaintzeko gertu. Telefonoa: 943 76 45 81.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko nahiz haurrak edo adinekoak zaintzeko, baita gauez ere. 696 23 51 47.

**Debagoiena.** Emakume bat gertu garbitasun lanak egiteko edo gauetan lan egiteko. 619 22 48 99.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 659 37 41 95.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbitasun lanak egiteko 17:00etatik aurrera edo gauetan. 619 92 40 86.

**Debagoiena.** Emakumea gertu jatetxeetan eguneko menua eta karta zerbitzatzeko. 652 75 95 64 edo 652 76 21 63.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egingo nituzte. 628 52 34 06.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu asteburuetan lan egiteko. 605 71 09 07.

**Debagoiena.** Zerbitzari edo garbitzaile egingo nuke lan. Telefonoa: 639 08 79 94.

**Emakume** euskalduna edozein lanetarako gertu. 659 82 75 18.

**Praktikak egiteko** estetika zentro baten bila nabil. Telefonoa: 692 71 49 84.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Bergara.** Ingeles eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Telefonoa: 618 91 32 89.

**Bergara.** Ingelesko eskola partikularrak ematen ditut. 660 05 50 32.

**Goi mailako ingeniari** industrialak klase partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH, matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana** salgai. Mclouis 650. Bidaiatzeko eta lotarako 7 leku. Bost urte. Beti garajean. Egoera oso onean. 35.000 euro. 695 71 46 88.

**BMW** F 650 GS. 2005ekoa, 15.600 km, ABS, Warning, Topcase maletategia. Egoera oso onean. 6.300 euro. Telefonoa: 656 71 96 57.

**Citroen Xantia.** 1994. urtekoa. Egoera onean. 2.000 euro. 652 74 81 48.

**Jeep Cherokee** 2.1 PD autoa salgai. Oso ondo dago. 3.500 euro. Deitu telefono honetara: 655 45 07 25.

**KTM-SX250.** 2005ekoa. 4.500 euro. Egoera onean. Telefonoa: 665 71 74 89.

**Megane Coupe** 1.6. Gasolinazkoa. 95 ZP. 1997koa. 161.000 kilometro. 3.000 euro. Telefonoa: 665 71 48 30.

**Opel** Astra ISUZU 1700 TD. 114.500 km. Egoera onean. 606 94 35 50 edo 617 13 17 51.

**Seat Alhambra** monobolumena salgai. 130 ZP. Zazpi lagunentzako. Egoera onean. Telefonoa: 653 71 04 56.

**Suzuki ES 500** motorra salgai. Oso egoera onean, 19.000 km, 2003koa. Deitu arratsaldez. Telefonoa: 630 77 50 71.

**Trialeko motorra** salgai. Beta Tekno 1998. 250 ZP. 1.900 euro. 699 37 15 11.

**Volkswagen California** furgoneta zuria salgai. 102 zaldi tdi. 116.000 km. 2000 urtekoa. Egoera onean. 615 72 37 74.

**Volkswagen Sharan.** 1.800 cc. 1999koa. Oso egoera onean. 6.500 euro. 645 73 97 69.

**Yamaha SR** salgai. 250 cc. Beltza. 900 euro. 645 73 97 69.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Errepideko bizikleta** salgai, Zeus etxekoa, 56 neurrikoa. Shimano 105. Egoera onean dago. 400 euro. 667 08 93 09.

**Eskusoinuak** salgai. Bat handia, tekladuna eta bestea txikia, botoiduna. 652 72 01 15.

**Izozkailua.** Hiru kaxoi. Indesit markakoa. Berria. 637 52 89 83 edo 943 76 35 37.

**Kronometro profesionala** salgai. Berria. 125 euro. (Nerea). 943 79 68 18.

**Ume-kotxea** salgai, bikiendako. Combi Twin marka, saskiarekin. Bi hamaka, kapotarekin eta burbuilarekin bakoitza; bi kuko Creatis markakoak (0+ taldeentzat), burbuilekin. Zakuak kukoarentzat eta zakuak aulkiarentzat. 943 79 17 29.

**Zaldi bat** salgai. Arabiar arrazakoa. Bi urte ditu. Paperak ditu. Deitu telefono honetara: 647 64 02 81.

### 804. HARTU

**Binilo-diskoak** hartuko nituzke. Erosteko aukera ere badago, diskoen arabera. Deitu telefono honetara: 650 88 12 35.

### 806. GALDU

**Arrasate.** Autoko giltzak galdu nituen Grupo San Juan eta Iturriotz kaleen artean. Bi giltza eta urrutirako mandoa daude. 636 28 00 07.

**Bergara.** Bartzelona taldeko saskibaloiko baloia galdu nuen Espoloian. Izena eta telefonoa idatzita ditu. Deitu telefono honetara:943 76 00 99.

### 807. AURKITU

**Erloju bat** aurkitu nuen abuztuaren erdialdean Uribarri Ganboan. Inskripzio bat dauka. 669 65 48 87.

# LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak

## IKUS-ENTZUNEZKO TEKNIKARIA behar du

**Baldintzak:**
- Euskaraz jakitea.
- Errealizazio, irudi edo soinu teknikari tituluduna izatea, gutxienez..

**Baloratuko da:**
- Esperientzia izatea..
- Informatikako programak erabiltzen jakitea.
- Atzerriko hizkuntzak jakitea.
- Goi mailako titulazioa izatea

## KAZETARIA behar du

**Baldintzak:**
- Euskaraz jakitea.
- Idazten trebea izatea.

**Baloratuko da:**
- Kazetari edo antzeko titulua izatea.
- Esperientzia izatea.
- Informatikako programak erabiltzen jakitea.
- Atzerritako hizkuntzak jakitea.
- Kamera aurrean aritzeko dohainak edukitzea.

## IDAZKARI-HARRERAGILEA behar du

**Baldintzak:**
- Euskaraz jakitea.
- Idazten trebea izatea.
- Harremanetarako trebea izatea.

**Baloratuko da:**
- Erdi mailako titulua izatea.
- Esperientzia izatea.
- Informatikako programak erabiltzen jakitea.
- Atzerriko hizkuntzak jakitea.

Interesatuok bidali curriculuma,
2007ko irailaren 24a baino lehen, ondoko helbidera:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
edo admi@goiena.com

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



**Rosa Mari Larrañaga** eta **Pedro Garitano** 1962ko irailaren 27an ezkondu ziren. Urrezko ezteiak ospatzeko bost urte falta diren arren, erabaki dute ospakizuna orain egitea. Hala ere, bost urte barru berriro ere elkartzeko ahaleginak egingo dituzte. Zorionak!



**Pascual Vitoria** eta **Mari Lourdes Bolinaga** orain dela 50 urte ezkondu ziren, Arrasaten, abuztuaren 3an. Eztei bidaian Frantziako Tolosan eta Lourdesen egon ziren. 50 urte geroago, eguna ospatzeko bazkaria egin zuten, ezteitarta eta guzti.



**Oscar Teheran** eta **Jasone Larrañaga** bergararrak bihar, irailaren 22an, ezkonduko dira Elosun. Familiakoek eta lagunek egun zoriontsua ospatzea opa dizue. Zorionak, bikote, eta muxu handi bat familiakoen eta lagunen partetik!



Aramaioko **Oscar Leibar** eta Bergarako **Eva Martinez** bihar ezkonduko dira Bergaran. Bazkaria Bergarako Lasa jatetxean ospatuko dute. Eztei bidaian Ameriketako Estatu Batuetara eta Polinesiara joango dira. Zorionak eta muxu handi bat, lagunen partetik!



Arrasateko **Gustavo** eta Aretxabaletako **Vanessa** bihar, irailak 22, ezkonduko dira Untzillako San Pedro elizan. Ospakizuna Oñatiko Etxe-Aundi jatetxean egingo dute eta eztei-bidaian Argentina eta Txilera joango dira. Zorionak, bikote!

MEZA

## Isabel Asensio Lorite

Arrasaten hil zen 2007ko abuztuaren 22an.



Haren arimaren aldeko meza zapatuan,
irailaren 22an, 19:00etan,
Arrasateko San Juan Batailatzailearen parrokian.
Familia eta lagun guztiak gonbidatzen ditugu;
aldez aurretik mila esker, guztioi.
—
*Ama maitea, beti egongo zara gurekin.*

Senarra Jose Iglesias, alabak Maribel, Pili eta M. Luisa.
Arrasaten, 2007ko irailaren 21ean.

URTEURRENA

## Iban Elejalde Ayastuy



Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 23an,
12:00etan,
Aramaioko San Martin Deunaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Idoia Leniz Azkarate



Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 23an,
13:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Pilar Altube Uribetxebarria

'Korueta'

Arrasaten hil zen 2007ko irailaren 11n, 93 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.
—
*Goian Bego*

Arrasaten, 2007ko irailaren 21ean.

ESKELA

## Manu Herrero Lainez

Almerian istripuz hil zen 2007ko irailaren 16an, 50 urte zituela.



*Mendiko irteeretan beti gurekin txo.*

Nahikari peña.
Bergaran, 2007ko irailaren 21ean.

ESKELA

## Manu Herrero Lainez

Almerian istripuz hil zen 2007ko irailaren 16an, 50 urte zituela.



*Betira arte, txo.*

Zure lagunak.
Bergaran, 2007ko irailaren 21ean.

ESKELA

## Vicente Aranzabal Lascurain



GIPUZKOA Autoak S.L. - **Giauto**
Zuzendaritza eta lankide guztiak.

Elgoibarren, 2007ko irailaren 21ean.

ESKELA

## Vicente Aranzabal Lascurain

(Talleres OLA S.L.en bazkide)



***Talleres Ola, s.l.***
Batzordeko Bazkideak.

Bergaran, 2007ko irailaren 21ean.

Babeslea:
OROILORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak
*Momentu txar horietan sortzen diren galdera, kezka eta arazo guztiei aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da*
Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Petatxua · * Irudiko fruitua · EH-ko mendialdea · Gela handia · Juduen festa handia · Juntagailua · Oso-oso garbi · Uranioa · Ogi egileak · Alderdi karlista · Moreak · Basapiztia mota · Ate, hitz elkarketan · Haurra · Oxigenoa · Letoniako hiriburua · Izutia · Gaitz mota · Iodoa · Interjekzioa · Aluminioa · 100 m2 · Eguzkia · Nafarroako ibaia · Bokala · Arlo

GOIENKARIA

## umore giroan



Kike Amonarriz

**TUTTI ATHLETI!**

Bi tolosar hauek, asteburua pasatzera Bilbora joan dira. Gaua iritsi eta Tutti Athleti! bertoko jatetxe italiarrera sartu dira.

Zerbitzariak karta eman eta ez dute denbora luzerik behar izan aukeraketa egiteko:

- Nik spagettoak eta nire adiskideak ravioloak.

- Oso ongi. Dena dela, ez gaizki hartu, baina...–esan die zerbitzariak edukazio handizez da spagetto eta raviolo esaten, spagetti eta ravioli baizik.

- Oso ongi, orain esadazu non dauden komunik, kaki egin nahi nuke eta.

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | 7 | | | | 3 | 8 | | |
| | | 4 | | 5 | | | | |
| | | 8 | | | | | 9 | |
| | | | 3 | 7 | | | | |
| 2 | | 1 | | 9 | | 3 | | 7 |
| | | | | 1 | 5 | | | |
| | 4 | | | | | 2 | | |
| | | | | 3 | | 5 | | |
| | 8 | 2 | 7 | | | | 6 | |

## hieroglifoa

Non irakurri duzu hori ?




## hizki salda

5 euskal idazleren izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| P | C | A | U | Z | A | R | A | S |
| I | R | B | I | C | H | K | M | L |
| A | E | A | H | A | A | O | R | I |
| R | T | U | T | E | N | O | I | T |
| R | I | D | U | X | K | E | N | S |
| E | N | F | M | A | A | S | O | I |
| S | O | G | F | N | I | G | O | R |
| P | S | M | E | O | T | O | A | A |
| E | Q | G | F | A | D | R | O | B |

## soluzioak



**Jeroglifikoa:** Liburuan.
Li + Buruan

## bono fotoa



## Nola du izena argazkiko etxeak dauden auzoak?

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ........................................

IZEN-DEITURAK ........................................
TELEFONOA........................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Wip detergentea**
(32 garbiketa) eta oparia:
Neutrex (2l) + Mistol baxera garbitzekoa (800 ml)

**9,29 €**

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Antzuolako **KARMELE SUKIA**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Antzuolan.**


Aurrezki Mistoa
EUSKADIKO KUTXA
Goza ezazu inbertsio honen zapore bikoitzaz
Inberti ezazu arriskatu barik 3.000 eurotik gora
INBERTSIO ERDIA
%6ko UTB
6 hilerako epe finkoan
BESTE ERDIA
EUROSTOXX-aren
%100ko
BALIO HANDITZEA
2 URTEKO EPERAKO GORDAILUA
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**Asier Sala** > Musikaria

# "Debagoienean beste leku batzuetan baino musika talde gehiago dago"

Asier Sala arrasatearra musikazalea da; 14 urte zituela hasi zen Enboskada taldean gitarra jotzen eta ordutik hona taula gainean ikusi dugu. Orain, gainera, beste talde bat sortu du lagun batzuekin: The Motherfuckers. Bestalde, gitarra irakaslea ere bada Sala; Lazkao musika dendan ibiltzen da eskolak ematen. Horrez gain, Irudi eta Soinu ikasketak egin ditu Gasteizen.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

**Arrasateko Lazkano musika dendan elkartu gara Asier Salarekin; bertan ematen ditu gitarra eskolak Salak, eta gustuko duen tokia da. Enboskada punk-oi! taldearen gorabeherez eta etorkizuneko proiektuez berba egin dugu Salarekin.**

**Enboskada taldearekin taula gainean ikusten zaitugu. Zer moduz moldatzen zara?**

Kontzertuetan jendearekin harreman zuzena duzu; hortaz, ikusleak zuk zer egingo eta nola egingo zain egoten dira. Bestalde, ez daude zure esku kontzertuaren nondik norakoak. Taldean beste sei lagun gara; hortaz, denok ondo aritu behar dugu.

Esan daiteke orain ohituta nagoela taula gainean egotera; baina, batzuetan, gauza berriak egiten ditugunean, adibidez, urduritasuna sartzen zait.

**Nola gogoratzen duzu lehenengo kontzertua?**

Elgetan jo genuen; Kañeria 13, Arkada eta beste talde batekin. Lagun mordoa joan zen gu ikustera; jo genuen tabernan edari mordoa saldu zuten. Baina gero esan zigutenaren arabera, beldur pixka bat ere pasa zuten; ikusleak ondo pasatzera joan ziren eta izugarrizko zarata atera zuten.

Hasierako kontzertuetan urduri egon nintzen, baina, gehienetan, ikuslearen jarreraren arabera izaten da. Jendea ondo pasatzen ari bada, zu ere distraitu egiten zara. Baina ikusleak geldi eta isilik badaude, urduri jartzen naiz. Danbakan, adibidez, hori gertatu zitzaigun: hura ez zen gure giroa, jendea geldi zegoen, begira. Normalean, gure kontzertuetara jendea ondo pasatzera etortzen da.

**Debagoienean musika talde eskaintza zabala dago.**

Bai, nire ustez, gurean beste leku batzuetan baino musika talde gehiago daude; gainera, estilo ezberdin askotako taldeak dira. Guk, adibidez, Udalak utzitako lokaletan entseatzen dugu, eta horrek ere garrantzia du; izan ere, Uarkape atzean 40 taldek entseatzen dugu.

Oñatin ere Udalak utzitako lokaletan ari dira musika taldeak; nik uste dut lokalak dauden herrietan jende gehiago mugitzen dela musikaren inguruan.

Bestalde, Debagoienean musika eskaintza zabala dago. Bai gaztetxeetan eta bai musika lokaletan kontzertu asko ematen dira.










ARANTZAZU EZKIBEL

PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 25 urte. **Ikasketak?** Telekomunikazio eta Informatika zikloa eta Irudia eta Soinua. **Zaletasunak?** Gitarra jotzea eta kontzertuetara joatea. **Gorroto duzu zer edo zer?** Jende faltsua. **Gomendatzeko moduko film bat?** *En la cuerda floja*, James Mangoldena. **Musikari bat?** Joe Strummer. **Inoiz ahaztuko ez duzun bidaia?** Ez dakit; oraindik ez dut nire ametsetako bidaia egin. **Amets bat?** Jamaikara joan gurako nuke; horixe izan daiteke inoiz ahaztuko ez dudan bidaia bat.

Aste bukaera guztietan dago zer entzuna; gainera, jendeak ohitura hartu du aste bukaeratan kontzertuetara joateko.

**Azkenaldian kontzertu gutxi eman dituzue Enboskadakoek. Zertan ari zarete?**

Bai, orain kontzertuei dagokienez geldi gaudela esan daiteke. Lokalean ari gara grabazio txiki bat egiten; asmoa da guk geuk grabatutako maketa egitea. Zortzi abesti izango ditu eta azarorako atera gurako genuke. Gure kontzertuetan jarriko dugu saltzen lan berria.

Horrez gain, lagun talde bat beste proiektu batean sartu gara: The Motherfuckers. Aurrez ezagunak gara; hortaz, ideia batzuk komunean ditugunez, zerbait berria egitea pentsatu dugu. Orain, proiektuak funtzionatzen duen ikusi behar dugu; zortzi abesti ari gara grabatzen.

**Gainera, gitarra eskolak ematen dituzu.**

Bai, Lazkano musika dendan ari naiz. Gitarra ikasi gura duen gaztetxo mordoa dago; baina horiek ez dute ohiko akademia batera joan gura. Azken batean, eurek entzuten duten musika estiloa da gitarrarekin ikasi gura dutena. Hala, Lazkano dendakoek eskaini zidaten ea gitarra irakasle izan gura nuen, eta halaxe hasi nintzen.

**Nolako esperientzia da gaztetxoei eskolak ematea?**

Esperientzia berria da, baina polita ere bai. Orain arte, niretako jo izan dut; eta orain, beste batzuek gura dutenaren arabera ari naiz. Gaztetxoek gustuko duten abestiak irakasteko eskatzen didate; hala, abestien doinuak ateratzen ibiltzen naiz.

Egia esan, nik ez dut irakasle izateko ikasi, baina orain arteko esperientzia oso polita izan da.

**Irudi eta Soinu ikasketak egin dituzu Gasteizen. Nola aukeratu zenituen ikasketa horiek?**

Lehenengo, Arrasaten, Telekomunikazio eta Informatika modulua egin nuen. Baina beti izan dut gustuko soinuaren inguruko lana; hortaz, Gasteizera joan nintzen Irudia eta Soinua ikastera. Orain arte, Canal Gasteizen eta GOITBn ibili naiz kameralari, baina nik nahiago dut soinuarekin erlazioa duen zerbaitetan lan egin; grabazio estudio batean, adibidez, gustura arituko nintzateke lanean.




'TXIOKA.NET' Euskal Herriko erabiltzaileendako komunikazio tresna bat da. GOIENKARIA

**INTERNET** > 'TXIOKA.NET'

# 'Txioka.net' sortu dute, Euskal Herriko twitter erabiltzaileak batzeko

Norbera une jakin baten zer egiten dabilen jakinarazteko, ekitaldiak edo bestelakoak gomendatzeko... balio du ''Txioka.net'-ek, euskaraz

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Twitter komunikazio tresna gero eta hedatuago dago Interneten; horri esker, momentu oro, norberak zer egiten dabilen jakinaraz diezaieke bere zerrendako beste erabiltzaileei. Eta horri microblogging ere deitzen zaio. Horrela, lagun sarean informazioa elkarrekin trukatzeko tresna bihurtu da twiterra.

Bada, orain, euskal internautek *Txioka.net*-en bidez egin dezakete hori guztia. Webgune horren bitartez, norberak interesgarri jotzen dituen gauzak, zer egiten dabilen, gomendatu nahi dituen gauzak edo ekitaldiak jakinarazteko aukera dauka; gainera, sarean *Txioka.net* erabiltzen duten besteek irakurri eta parte hartzeko aukera izango dute; eta sakelakotik ere jaso ahal izango da. Hori guztia, euskaraz, berau baita *Txioka.net*-eko hizkuntza nagusia.

**LOTURAK SORTZEKO**

Webgunearen egileen esanetan, "twiterrean ibiltzen diren euskal herritarrak biltzen saiatzen gara, hauen arteko elkar ezagutza bultzatzea eta ekitaldien berri ematea sare honen barnean. Ez du sare zentralizatu bat izan nahi; loturak sortzeko gune bat izateko izaerarekin jaio da, ondoren nork bere sarea sortzeko aukera izan dezan".

Komunitatean parte hartzea oso erraza da. Horretarako, nork bere twiterreko kontuan *Txioka.net* lagun bezala gehitu behar du, *www.txioka.net* webgunean agertzen den lotura jarraituta. Era berean, sakelako telefonoaren bidez ere parte har daiteke *Txioka.net*-en.

**MARITXU KAJOIREN BERRI**

Webgunean bertan parte hartzeko bi aukera nagusi daude: batetik, blog txiki bat balitz bezala, norberak momentuan zer dabilen egiten idatz dezake, beste erabiltzaileei jakinarazteko; eta, bestetik, ekitaldien berri eman dezake. Horiek mapa baten kokatzeko aukera dago. Hala, esate baterako, Arrasateko Maritxu Kajoi jaiaren ekitaldia gehituta dago.

## teknologia berriak

> KAMERAK

### Hasselblad H3D II kamerak aurreko modeloak baino aukera gutxi batzuk gehiago ditu

H3D II kamera berriak 39 megapixeleko CCD sentsorea du, aurreko modeloak zekarrena. Bere tamaina 48x36 da, merkatuko handiena, orain arte. Aurreko modeloarekiko ezberdin egiten duena LCD pantaila berria da. Modelo berriak hiru hazbete ditu.

Argazkiak 5.422x7.212 pixeleko erresoluzioan ateratzen ditu; gainera, dakarren GPSari esker, informazio geografikoa lotzen dio argazkiari, etiketa bidez.

Salneurria 21.000 euro eta 27.000 euro artean dago, modeloaren arabera.



Gorputza aurreko modeloaren antzekoa da, baina botoi batzuk lekuz aldatu dizkiote.

> SAKELAKOAK

### Samsung SGH-i450, teklatu irristakorrarekin

Azkenaldian, Samsung enpresak berrikuntza ugari atera ditu. Azken belaunaldiko eskaintzak eta diseinu berriak dituzte modeloek. Azken aurkezpena Samsung SGH-i450 telefonoa izan da.

Sakelakoentzako Symbian sistema eragilea erabiltzen du. 2.3 hazbeteko TFT (240 x 320) pantaila du, bi megapixeleko argazki kamera, aurrealdean bideo-deiak egiteko kamera eta microSD erretena, eta soinu fitxategi ezberdinak erreproduzitzeko aukera.




Samsungen sakelakoak teklatu irristakorra du, eta antz handia du Nokia N95arekin.

> TEKLATUA

### A1Pro, eskuizkribu-ezagutza optikoa duen teklatua

Teklatu arrunt bat bezala da. USB bidez konektatzen da ordenagailura. Goiko aldean multimedia teklak ditu. Baina besteekiko ezberdin egiten duena eskuinaldean zenbakizko teklatuaren ordez pantaila txiki bat duela da. Pantaila horrek eskuizkribu-ezagutza optikoa du. Segurtasunerako erabil daiteke, baina baita bertan idazteko ere. Pantailan idatzitakoa testura pasatzeko aukera ematen du, dakarren sofwarearekin. Salneurria 18 euro da.



Zenbakizko teklatuaren ordez, pantaila txiki bat du. Segurtasun kontuetarako eta bertan idazteko balio du.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn /aiastui /arantxa /aretxargi /argi-plastik /arregi /atai /azkarate /bastida /briz-aseguruak /BZ-sistemas
/bolusukaldeak /denetik /dragon-oriental /dukiena /ego /ekilore /ekin /elejalde /ezkutuorly /galgorri /gallastegi /ganesha
/garaia /gertu /gorkataxi /gurea /guztizeder /hamaika /itxaseder /irudisport /ixaun /jracing /joseba /lamaino-etxeberri
/lorelan /korozabaleta /markiegi /maulanda /mayte /merkeopari /multiopticas /ohiak /ogizun /okipark /otzeta /pando
/perfipar /puerta-ingles /richimaier /tabernaberri /udalaitz /urdeki /urbieta /urko /vitoria /zainduz /ziripot

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten



**berriak**

> PROGRAMAZIOA

### Oñatira iritsiko dira laster 'Debagoienean kantari'-ko entseguak

Lehenengo Eskoriatzan hasi ziren, gero Aretxabaletan, orain Bergaran dihardute entseatzen eta laster Oñatira iritsiko dira. Datorren astean, hain zuzen, Oñatin hasiko dituzte *Kantari*-ko entseguak. Umeek ikasiko dute egokitu zaien abestia dantzatzen eta interpretatzen. Irakasle lanetan dihardute Maite Albesek eta Arantxa Ugartek. Esan bezala, datorren astean, *Kantari* Oñatin.

> PROGRAMAZIOA

### Aranzadiko ikasleen grabazioa ikusgai 'Zu kazetari' saioan

Bergarako Aranzadi ikastolako ikasleek mahoigintzaren gainean egindako erreportajea ikusteko aukera izango duzue. Ekoizleen helburua da ehungintzari bizitza eskaini dion jendeari omenaldia egitea. Bergaran mahoia ekoizten zuteneko irudiak ikusiko dituzue, eta herriko errealitatean nola eragin zuen ikusteko aukera paregabea eskainiko dizue GOITBk: biztanleriaren igoera eta abar.

> ARRASATE IRRATIA

### Datorren astean, Zinemaldiaren gaineko jarraipena

Atzo, eguena, abiarazi zuten Zinemaldiaren aurtengo edizioa, 55.a. Hori horrela, Arrasate Irratiak ere bat egin du Zinemaldiarekin eta datorren astean egunero-egunero joko dugu Donostia aldera. Imanol Gallego kazetaria hantxe izango dugu lehenengo lerroan, Zinemaldiaren gaineko berri zuzen eta freskoak gure uhinetara helarazteko. Arrasatetik Donostiara joango gara, beraz, datorren astean.

> ARRASATE IRRATIA

### Udal kontuak, obrak, etorkinak eta beste, gure irratian

Irailean han beheko kostalde ingurura iristen dabiltzan etorkin kopuru handia ikusita, Arrasate Irratiak ere landu gura du errealitate hori. Arritxu Barruso kazetari bergararrak Ceutan jardun zuen lanean gure ibarrera etorri baino lehen eta han izandako bizipenak eta egoeraren laztasuna deskribatuko dizkigu. Bestalde, Udalean sortzen diren albisteak, kaleko obrak eta bestelakoak ere protagonista izango dira irratian.

**'ZAHARRAK BERRI'** > EGUAZTENA, 20:15

# Astero egingo dute zozketa 'Zaharrak berri' saioan

Astero zozketatuko da zerbait saio berrian, eta Kutxaren Urrezko Zerbitzuko bezeroek deitu ahal izango dute

**GOIENKARIA** > ARRASATE
Datorren asteko *Zaharrak berri* saioan ere izango duzue zer ikusirik. Besteak beste, gaur bertan alzheimerraren eguna izanik, Iñaki Agiriano medikuak gaixotasun horren gainean jardungo du. Betiko moduan, Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak ere emango ditu elikaduraren gaineko aholkuak.

Bestalde, gogora ezazue saio bakoitzean Kutxako Urrezko Zerbitzuak babestuta zozketa bat izango dela. Zozketan parte hartzeko 943 00 08 34 telefonora deitu besterik ez duzue. Anima zaitezte, beraz, eta deitu!



**AITZIBER ARANBURUZABALA** *Zaharrak berri* aurkezten. GOIENKARIA

**'IKASTURTE HASIERA'** > ASTELEHENA, 21:47

# Julen Iriondok ekoiztutako erreportajeak emitituko dira hamabostean behin

**GOIENKARIA** > ARRASATE
Hamabostean behin emitituko dira GOITBn hemendik aurrera erreportaje saioak. Julen Iriondo oñatiar gaztea izango da erreportajeak egingo dituena, eta saio bakoitzean gai desberdin batekin etorriko zaizue hura. Datorren astean ikusiko duzue lehenengoa, eta ikasturte hasiera izango da gaia. Hala, Debagoieneko ikastetxe desberdinetan jasotako dinamika, metodologia eta hezkuntza ereduak izango dituzue ikusgai. Julen Iriondok Arrasateko Erguin auzoko Herri Eskolatik irakaskuntzarako metodologia berezia emango du ezagutzera. Gainera, Bergarako Aranzadi ikastolako 2 eta 3 urteko haurren gelan, egokitzapen sistema lana ikusiko duzue. Azkenik, Bergarako San Martin ikastetxetik etorriko zaizkizue berriak. Izan ere, bertako mailegu sistema ezagutu ahal izango duzue; liburu eta materialen berrerabilpen hori gurasoei oso lagungarri gerta dakieke.

Hurrengo saioa Lope de Agirre pertsonaia tirabiratsuaren gainekoa izango da.

**telebegi**

**Edorta Arana** > www.goiena.net/blogak/hamaika

## Jirous

Denok inguruan dugun lakoxe lankide informatikari trebe horrek pasa zidan *Heroes* telesailaren lehen denboraldi osoa, AEBetako telebistan emititu berri. Egun gutxian ikusi nituen kapitulu guztiak eta agian horregatik diot diodana: ikusterraza bezain sinplea da, pertsonaia ñoñoak ditu eta ongiaren eta gaizkiaren borroka horren inguruan antolatzen den trama ahulegia suertatzen da. Hori bai, erritmoa du, modernoa omen den komikietako estetika erabiltzen du, argiztaketa berezia du eta, guztiaren gainetik, egunerokotik libratuko gintuzten ahalmen bereziak dituzten pertsonaiak ageri zaizkigu.

Nork ez luke nahiko denboraren iraupenarekin jokatu ahal izatea, zauriak segundotan sendatzeko modua edukitzea edota ingurukoen pentsamenduak entzuneko abileziaz dohaitua izatea? Serieak errealitatetik ihes egiteko aukera eskaintzen du. Estatu Batuetan sekulako arrakasta lortu omen du eta hori, betikoa, ez dakizu ona ala txarra den. Gazteleraz aritzen den ETB2 emititzen hasiko da segituan eta ikusiko dugu zelako oihartzuna daukan gazteen artean. Beraiei zuzendua da.

**arrasate irratia**

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Koldo Amestoy ipuin kontalaria, *Danbaka.com* eta *Kantari* saioetako musika kontuak, hirugarren adinekoen gainekoak, Zinemaldia eta beste, asteko errepasoan.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Donostiako Aquariumera bisita
Ilunpean
Zaharrak Berri
Kantaka
Elkarrizketak
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31 *irratia@goiena.com*)
**11:55** Arrasateko albisteak, titularretan.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Uda Giroan! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.

**GOITBko programazioa**

**Egubakoitza, 21**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Berbaire. **14:15** Musikantoi. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ikusten. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Eltze beroa **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**San Martinak 07. **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea . **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Erreportajea. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Kirolari. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 22**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**Klipa. **12:30** Erreportaia **13:00** Eltze beroa **13:30** San Martinak 07. **14:00** Berbaire. **14:30** Musikantoi. **15:00** Teknopolis. **15:30**Klipa. .**16:00** Kirolari. **16:30** Illunpean. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00**Erreportajea. **19:30**Klip@. **20:00**Ur eta lur. **20:30**Erreportajea. **21:00**Ikusten. **21:30** Berbaire. **22:00**Astekoak. **22:15**Klip@. **22:30**Ilunpean. **23:00**Erreportajea. **23:30**Musikantoi. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 23**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. **11:00**Kirolari. **11:30**Musikantoi. **12:00**Ur eta lur. **12:30**Klipa.**13:00**Eltze beroa. **13:15**Klip@. **13:30**Erreportajea. **14:00**Ikusten. **14:30**Ilunpean. **15:00** Berbaire.**15:30** Marrazki bizidunak. **18:00**San Martinak 07. **19:00**Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea.**21:00** Berbaire. **21:30**Musikantoi. **22:00** Erreportajea. **23:00** Teknopolis.**23:30**Ilunpean-.**00:00** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 24**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Teknopolis. **14:15**Ikusten. **14:45**Berriak. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Klip@.**16:15**Kirolari. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ur eta Lur. 1**8:15**Eltze beroa. **18:45**Berriak. **19:15** Musikantoi. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ikusmira. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena,25**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Horry. **13:45** Gaurkoak. **13:47**Erreportajea.**14:45**Berriak. **15:15**Eltze beroa **15:45** Gaurkoak. **15:47** Harmaillatik. **16:15**Ikusmira **16:45**Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean .**18:15**Klip@. **18:45**Berriak. **19:15** Harmaillatik. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Horry **20:45** Berriak. **21:15**Berbaire. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea **22:15**Harmaillatik. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Musikantoi. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena,26**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15**Erreportajea. **14:45**Berriak. **15:15**Ur eta lur **15:45** Gaurkoak. **15:47**Klip@. **16:15** Eltze beroa. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Harmaillatik. 1**8:15**Eltze beroa. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15** Zaharrak berri. . **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Erreportajea. **22:15**Teknopolis. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ur eta lur. **00:15**Emisio amaiera

**Eguena,27**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Zaharrak berri. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Marazki bizidunak. **14:15**Ikusmira. **14:45**Berriak. **15:15**Eltze beroa. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Erreportajea. **16:45** Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Eltze beroa. 1**8:15**Teknopolis. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Horry. **20:45** Berriak. **21:15**Berbaire. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Erreportajea. **22:15**Musikantoi. **22:45**Berriak. **23:15**Ur eta lur. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ilunpean. **00:15**Emisio amaiera

# Jatetxe Gida




## Azpeitxi jatetxea

Aranerreka 13 / BERGARA
943 76 55 00

**Eskaintza**
- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

**Berezitasuna**
- Arraina eta haragia parrillan

**Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.**



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

**Eskaintza**
- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Astelehenetan itxita**



## Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

**Txinatar jatetxea**

**Eskaintza**
- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

**Eguneko menua eta karta**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

**Astelehenetan itxita**



## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15
www.larrinetxe.com

**Eskaintza**
- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

**Berezitasunak**
- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

**Martitzenetan itxita**



## Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

**Eskaintza**
- Menua
- Afari informalak



## Torrekua

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

**Berezitasunak**
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak



## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**

# Irailak 21-28

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

## Ospakizuna



OÑATI
**> San Migel jaietako danborrada egingo dute umeek bihar, zapatua**
Urteroko ohiturari jarraituz, San Migel jaien atariko danborrada egingo dute Oñatiko umeek. Bihar, zapatua, izango da, 18:30ean. Ohiko ibilbidea egingo dute eta Foru plazan bukatuko da danborrada.

## Ipuin kontakizunak



ARAMAIO
**> Bihar, zapatua, 30 bat ipuin kontalarik emanaldia egingo dute**
*Bazen behin Aramaion* izena du topaketak. 11:00etan hasi eta gauera arteko emanaldiak egingo dituzte Euskal Herri osotik etorritako ipuin kontalariek herriko kaleetan. Ume zein nagusiendako saioak izango dira.

## Antzerkia



ELGETA
**> 'Bang, bang y somos historia' izeneko antzezlana gaur Espaloia antzokian**
Bang Bang taldeak erakutsiko du helburuak edozein medio justifikatzen duela. Tarantino, *Los tres chiflados* eta Blues Brothers-en arteko nahasketa da. 1998an Argentinan estreinatu zuten, eta entzute handia lortu.

# Musika

OÑATI
**> Oñatiko Musika Bandak emanaldia egingo du**
Lau obra egingo ditu musika bandak: *Lorencin Mendoza*, Pascual Marquinarena; *Pique Dame*, Suppetena; *Sabeldans*, Khachaturianena eta *El baile Luis Alonso*, Gimenezena.
Etzi, domeka, 13:00etan, Foruen enparantzan.

ARRASATE
**> DJ saioa egongo da 3.60 aretoan**
Loren Educative Rec disko jartzaileak hartuko du parte.
Bihar, zapatua, 03:00etan.

# Antzerkia

ARRASATE
**> 'Lapur zuloa' antzezlana Kanpingags taldearekin**
Komedia beltz eta samur gisa definitzen dute egileek. Aurpegi ezagun ugarik hartzen du parte antzezlan horretan.
Etzi, domeka, 19:30ean, Amaia antzokian.

ARRASATE
**> 'Bertso-raperoak' obra Arizmendiko antzerki taldearekin**
Arizmendiko guraso eta irakasleek osatutako taldeak egingo du emanaldia.
Hilaren 28an, 20:00etan, Amaia antzokian.

# Hitzaldiak

DEBAGOIENA
**> Preso sozialen gaineko hiru hitzaldi antolatu dituzte**
Lehenengoa astelehenean izango da Oñati parrokiako lokalean, 18:30ean, eta Jose Ramon Treviño Caritaseko kideak egingo du berba. Bigarrena martitzenean izango da, Aretxabaletako parrokiako egoitzan, 18:00etan. Berba egingo du Arantza Azkue Martuteneko espetxean kolaboratzen duen mojak eta honako gaia landuko du: *¿Esta responsabilizada la sociedad ante los problemas del colectivo de presos?* Hirugarren hitzaldia izango da Arrasateko san Andres elizako lokalean, hilaren 26an, 18:00etan. Han jardungo dute espetxeaz eta osasunaz.
Arrasateko artzapezgoko espetxepastoralak antolatu ditu.

ELGETA
**> Pentsamendu positiboaz mintzatuko dira**
Elgetako Erretiratuen Elkarteak, Kutxa eta Nazaret Zentroaren babesarekin. Hizlaria Elena Iraolagoitia izango da.
Hilaren 24an, astelehena, 17:00etan, udaletxean.

ARETXABALETA
**> Pentsioen gaineko berbaldia erretiratuendako**
Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunen elkarteak eta Kutxak antolatu dute.
Hilaren 25ean, 17:00etan, Basotxon.

# Erakusketak

BERGARA
**> Ageriko 34. Pintura Lehiaketako lanak ikusgai**
Bergarako Artisten Elkarteak antolatu zuen aurreko aste bukaeran ageriko margo lehiaketa. Orain, lanok ikusgai daude.
Kultura etxean hilaren 22ra arte.

ARRASATE
**> Ingurumenari lotutako bi erakusketa, Kulturaten**
Alde batetik, *Eskolako Agenda 21 Arrasate: 06-07 ikasturteko esperientzia* delako erakusketa ikusi ahalko da. Bestetik, *Bizikleta-bideen proposamenak Arrasate eta inguruetan*.
Biak ala biak, hilaren 30era arte.

URRETXU
**> Ricardo Azkargortaren margo erakusketa**
Bergararrak *Basati* izeneko erakusketa du ikusgai Juan de Lizarazu aretoan.
Hilaren 30era arte.

OÑATI
**> Pintura tailerreko ikasleen lanak ikusgai**
Astelehenetik domekara egongo dira ikusgai, 18:30-20:30.
Hilaren 28ra arte, kultura etxean.

PROPOSAMENA

OÑATI
**> Nazioarteko artzain txakurren trebetasun lehiaketa**
Urteroko hitzordu bihurtu da Oñatin etzi, domeka, jokatuko duten nazioarteko artzain txakurren lehiaketa. Izan ere, domekakoa 48. aldia izango da. Hantxe batuko dira Euskal Herriko txakur eta artzain hoberenak eta baita Katalunia eta Frantziakoak ere. Guztira, hain justu, hamabi artzainek hartuko dute parte. Debagoienetik, Jesus Mari Plazaola arrasatearrak jardungo du.
Etzi, domeka, 11:00etan, Santa Luzia zelaian.



BERGARA
**> Idoia Azkarate bergarararren erakusketa**
Teknika mistoa erabilita egindako margolanak erakusten ditu Bergarako margolariak. Erakusketa dinamiko eta freskoa da Idoia Azkaraterena.
Nahikari tabernan, hil bukaera arte.

# Lehiaketak

DEBAGOIENA
**> Azken egunak 'Gomendatzen dizut' sariketan parte hartzeko**
Sariak bi kategoriatan banatzen dira: 12 eta 17 urte arteko gazteek iPoda edo argazki kamera jasoko dute sari gisa. 18 eta 34 artekoek, berriz, iPoda edo gustuko oporralditxoa. Partehartzeko eraman gomendioak Arrasate edo Bergarako Gazte Bulegoetara edo bidali *gzerbitzua@euskalnet.net* helbidera.
Hilaren 30era arte aurkez daitezke gomendioak.

ARETXABALETA
**> Oporretako Argazkien Lehiaketa deitu du Urbaltz tabernak**
Parte hartzeko, udako oporretan ateratako argazki bat aukeratu, 18x24 cm-ko neurrian inprimatu eta Urbaltz tabernara eroan behar da. Argazki bakoitzeko 2 euro ordaindu behar dira. Irabazlearen izena irailaren 28an emango dute aditzera. Saria da bi lagunendako afaria.
Irailaren 23a baino lehen.

# Ikastaroak

ARETXABALETA
**> Dantza egipziarrak ikasteko aukera Jaiki taldearekin**
Urriaren 3an hasiko dira eskolak eta Gabonak bitartean iraungo dute. Eguaztenero izango dira, 19:00etatik 20:30era, Kurtzebarri eskolan. Prezioa da 35 euro langileendako eta 25 gainerakoendako.
Izenematea Aretxabaletako Azkena tabernan eta Arrasateko Tatoo dendan.

ELGETA
**> Biodantzaren gaineko klase irekia antolatu dute, doan**
Elena Subijana psikologo eta biodantza irakasleak emango ditu eskolak. Urriaren 4an izango da, 19:15etik 21:00etara, herri eskolan.
Informazio gehiagorako deitu: 606 63 61 99 (Ana Sousa) eta 699 85 80 26 (Elena Subijana).

ARETXABALETA
**> Askotariko eskulan ikastaroak Tril emakume taldearekin**
Eskulan ikastaroa urriaren 9an hasiko da. Rosa del Aguilar izango da irakaslea. Eskolak martitzenetan izango dira, 18:00-20:00. Bestalde, gantxillo, parch-

word, puntu eta brodatu ikastaroa ere egongo da, urriaren 10etik aurrera. Eskolak Blanca Pereak emango ditu, eguaztenetan, 18:00-20:00. Ikastaroon prezioa da 25 euro bazkideendako eta 50 gainerakoendako.

Batean zein bestean izena emateko epea da urriaren 2tik 8ra, Loramendiin.

ESKORIATZA

**> Helduendako pintura ikastaroa kultura etxean**

Urriaren 7an hasiko da, taldea osatuz gero. Hiru hilabeteko ikastaroak izango dira: urriaren 6tik abenduaren 22ra; urtarrilaren 12tik martxoaren 28ra eta apirilaren 5etik ekainaren 21era. Eskolak izango dira zapatuetan, 14:30- 17:30. Prezioa da 30 euro. Izena emateko azken eguna da irailaren 28a.

Informazio gehiago: 943 71 46 88.

BERGARA

**> Dantza garaikideko ikastaroa egingo dute urrian**

Kirol Zerbitzuak antolatu du. Urriaren 5ean hasi eta abendura arte. Egubakoitzetan izango dira eskolak, 18:30-20:30, Agorrosinen. Irakaslea Saioa Ibañez izango da. Prezioari dagokionez, erroldatuek 15 euro ordaindu beharko dute hileko; gainerakoek, 20. Izenemateen artean zozketa egingo dute; bergararrek lehentasuna izango dute.

Izena emateko jo Kirol Zerbitzura.

ARETXABALETA

**> Yoga ikastaroa Aredhana eskolarekin**

Martitzen eta eguenetan izango dira eskolak, 10:00etan, 17:00etan eta 20:00etan.

Izenematea: 616 96 57 95.

ARRASATE

**> Yoga ikastaroak emango dituzte Txindoki dorrean**

Astelehen eta eguaztenetan 09:30etan eta 11:00etan emango dituzte eskolak; martitzen eta eguenetan, berriz, 19:15ean eta 20:45ean. Bañez Doktorea 1.

Izena emateko deitu: 635 71 06 16 (Maite) eta 943 78 31 26 (Ana).

# Bestelakoak

ELGETA

**> Lambretta eta Vespa motorren II. topaketa**

Egun osoko egitaraua prestatu dute. 10:00-13:00 motorren kontzentrazioa izango da plazan; 13:00etan, irteera egingo dute motorrek; 14:30ean bazkaria izango da eta 17:00etan, trebetasun probak izango dira, Salbador kalean.

Etzi, domeka.

BERGARA

**> Aroztegi erakusketa aretoa erabiltzeko eskaera epea zabalik**

Aroztegin euren lana erakutsi nahi dutenek urriaren 16ra arteko –13:00ak arte– epea dute eskaerak aurkezteko. Eskaerei sarrera eman behar zaie udaletxeko sarrera erregistroan. Baldintzak eta eskaera orriak udaletxean eta kultura etxean eskura daitezke.

Izenematea hilaren 16ra arte.

# Zinema



## Un corazon invencible **

**Zuzendaria:** Michael Witerbottom.
**Aktoreak:** Angelina Jolie, Dan Futterman.
AEB. 2007.
100 min.

Un *corazon invencible* Pakistanen 2002. urtean gertatutako bahiketa tragiko baten kronika da. Bahitutako pertsona, Daniel Pearl, Ameriketako Estatu Batuetako kazetari bat zen, eta egun haietan gertatutakoaren zurrunbiloa Michael Winterbottom zuzendariak ekarri digu film bihurtuta.

Zuzendariak narratzaile gisa kazetariaren emaztea erabiltzen du, eta filmatzeko erari dagokionez, kamera asko mugitzen du. Kamera lepoan hartuta, alde batera eta bestera doa eta muntaia planoen mozketa lehorrak dokumentalen tonua ematen dio *Un corazon invencible* film amerikarrari.

Datu asko ematen ditu zuzendariak filmean, pertsonaia eta talde desberdin asko (kontsulatua, egunkariko zuzendaria, polizia, Pakistaneko talde desberdinak...) agertzen eta aipatzen dira, eta modu horretan, ikusleak egoeraren konplexutasuna nabaritzea lortzen du.

Winterbottom zuzendariak sentsazionalismotik ihes egiten du, gertatutakoa errealismoz azaldu nahi du; baina ahalegin horretan akats bat sortzen da: istorioa benetan gertatutakoa denez, ikusleak badaki zer gertatu zen, eta horrela, agian, garrantzi handiegia ematen zaio ikerketa prozesu guztiari. Horrekin guztiarekin, bigarren plano baten geratzen da emaztearen sentipenen azalpena.

Filmaren bukaerako zatian zerbait gehiago heltzen zaizkigu Marianew Pearlen sentimenduak eta buruan dituen oroimenak. Hala eta guztiz ere, azkenean kronika txukun baina nahiko ezagun baten aurrean egotearen sentsazioa geratzen zaigu.

**Antonio Zabala**

### ARRASATE
**AMAIA ANTZOKIA**

**Harry Potter y la orden del Fenix**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

### OÑATI
**KULTURA ETXEA**

**Next**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### EIBAR
**UNZAGA**

**El club de los suicidas**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:30.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**Salir pitando**
17:30, 20:00, 22:30.

**Chanson D'amour**
17:30, 20:00, 22:30.

**Transilvania**
17:30, 20:00, 22:30.

**La jungla de cristal 4.0**
17:00, 19:45, 22:30.

**Bratz**
17:00.

**Casate conmigo**
17:30, 22:30.

**La carta esferica**
20:00.

**La hora fria**
19:45, 22:30.

**Hairspray**
17:00, 19:45, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**¿Y tu quien eres?**
17:30, 20:00, 22:30.

**Los testigos**
17:30, 20:10, 22:30.

**Un corazon invencible**
18:00, 20:15, 22:30.

**Voces inocentes**
18:00, 20:15, 22:30.

**Fraulein**
16:00, 20:15, 22:30.

**Tocar el cielo**
20:00, 22:30.

**Movida bajo el mar**
17:30.

**Conversaciones con mi jardinero**
17:30, 20:00, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Disturbia**
12:15, 15:40, 17:50, 20:10, 22:30, 00:40.

**Sin reservas**
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

**Guardianes del dia**
12:15, 16:10, 18:45, 21:30, 00:10.

**Salir pitando**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00. 22:00, 00:00.

**Hairspray**
17:45, 20:00, 22:15, 00:30.

**Os declaro marido y marido**
12:15, 15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

**Casate conmigo**
18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

**Cabeza de muerte**
19:50, 21:50, 23:50.

**La jungla de cristal 4.0**
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**Movida bajo el mar**
12:15, 16:15, 18:15.

**Death proof**
19:40, 21:55, 00:05.

**La ultima legion**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30.

**Caotica Ana**
22:40, 00:50.

**Wolf creek**
22:30, 00:30.

**El ultimatum de Bourne**
18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**Sigo como Dios**
12:15, 15:45.

**El club de los suicidas**
20:20, 22:20, 00:20.

**Papa canguro**
12:15, 16:05.

**Locos por el surf**
12:15, 16:20, 18:20.

**Los 4 fantasticos y Silver Surfer**
12:15, 15:40, 17:40.

**Harry Potter V**
12:15, 15:50.

**Ratatouille**
12:15, 15:55, 16:10, 20:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**Sin reservas**
15:50, 16:05, 20:20, 22:40, 01:00.

**Guardianes del dia**
16:30, 19:15, 22:00, 01:00.

**Salir Pintado**
16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**Disturbia**
17:00, 19:30, 22:30, 01:00.

**Y tu quien eres**
16:15, 18:20, 20:30, 22:35, 00:45.

**Os declaro marido y marido**
16:30, 19:00, 22:05.

**Hairspray**
17:15, 20:00, 22:30, 01:00.

**Cabeza de muerte**
20:00, 22:20, 00:30.

**Un corazon invencible**
18:00, 20:20, 22:45.

**La jungla 4.0**
16:10, 19:10, 20:05, 22:10, 22:40, 01:00.

**Los ojos del mal**
20:30, 22:30.

**Movida bajo el mar**
16:15.

**La carta esferica**
16:00, 18:15.

**Sigo como Dios**
15:50, 18:00.

**La ultima legion**
16:00, 18:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Ratatouille *******
AEB, 2007. Zuzendaria: Brad Bird. Marrazki bizidunak.
110 min.
Remy sagu mokofina da, eta ez da konformatzen zaborrontzietako jakiekin. Parisko jatetxe onenetako baten chefa izan nahi du.

**Amor y otros desastres**
Erresuma Batua, 2006.
Zuzendaria: Alek Keshishian.
Aktoreak: Brittany Murphy, Matthew Rhys, Orlando Bloom, Gwyneth Paltrow.
90 min.
Bere lagun onenei bikotekidea aurkitzen iaioa da Emily Jackson *Jacks*. Baina besteei maitasun kontuetan laguntzen dien arren, ezagutuko ote du bere maitasun handia, agertzen denean?

**Bratz: La Película**
AEB, 2007. Zuzendaria: Sean McNamara. Aktoreak: Nathalia Ramos, Janel Parrish.
110 min.
Yasmin, Jade, Sasha eta Cloe betiko lagun minak dira. Institutuan hasten direnean, arazoak izango dituzte, ikasgelako neska zaharrago batek ezarritako arauak ez betetzeagatik. Euren lagun taldea osatuko dute, hari aurre egiteko.

**El ultimatum de Bourne *****
AEB, 2007. Zuzendaria: Paul Greengrass. Aktoreak: Matt Damon, Julia Stiles, Joan Allen.
111 min.
Bi kazetari desagertu egingo dira CIA ikertzen ari direnean. Jason Bournek ikerketa horrekin jarraituko du, iragana argitu nahian eta erakundearekin zorrak kitatu nahian jarraituko du Bournek ikerketarekin.

**Locos por el surf *****
AEB, 2007. Zuzendaria: Chris Buck. Animazioko filma.
85 min.
Pinguino batek lehiaketa ikusgarri eta arriskutsu batean parte hartu behar du. Pinguinoen Munduko Surf Txapelketan, hain justu ere. Cody Maverick pinguino gaztetxoarendako lehen txapelketa profesionala izango da. Nola jardungo du txapelketan? Zer ekarriko diotxapelektan parte hartzeak?

**Caotica Ana *****
Espainia 2007. Zuzendaria: Julio Medem. Manuela Velles, Bebe, Asier Newman.
120 min.
An 18 urteko margolaria, artea ikastera joango da Madrilera. Pertsona baikor eta alaia da, baina hipnosi baten ondoren, bizitza aldatuko zaio. Ezagutzen ez dituen beste emakume batzuk agertuko zaizkio; guztiak 22 urterekin hil ziren, eta Anaren inkontzientean daude. Erantzun bila hasiko da.

**La Jungla 4.0**
AEB, 2007. Zuzendaria: Len Wiseman. Aktoreak: Bruce Willis, Timothy Olyphant, Justin Long.
129 min.
Uztailaren 4a, Ameriketako Estatu Batuetan. Ziber erasotzaile batzuek AEBetako sistema informatikoa suntsitu eta blokeatuko dute, kaosa sorraraziz. Thomas Gabriel gaiztoak plan perfektua duela uste du, baina John McClane polizia beteranoak gauzak zail jarriko dizkio.

**nire aukera**



**Jose Riviere**
Debagoieneko erretiratuen elkarteko lehendakaria

## Aste bukaeran, gosaria tabernan

Egubakoitz arratsaldea Abaroa erretiratuen elkartean ematen du Jose Rivierek –hango idazkaria da–. Zazpiak aldera handik irten eta "*kaskajo* eguna denez, txikiteoa egiten dut lagunekin". Horren ostean, egunerako paseoa egitera joaten da.

Aste bukaeran etxetik kanpo gosaltzea du gustuko eta zapatu goizean Monte tabernan egiten du hori. Gero, Abaroa elkartera joan eta egiteko dituenak egin eta gero, lagunekin txikiteoa egiten du. Bazkaldu eta gero paseoa egitea du gustuko. Domeka "zapatuaren antzekoa" izaten dela esan du.

**Erretiratzea pagotxa da. Beti egin nahi izan duzun hori egiteko aukera ematen dizu.**
Uste dut erretiroa dela askatasunaren sinonimo. Erretiroa hartu aurretik, lotura gehiago dituzu; azken batean, betebehar asko daude. Erretiroa hartzean egitekoak ere asko izaten dira, baina gustuz egiten diren horietakoak dira.

**Denbora gehiegi libre izatea ere ez da, baina, ona. Ala bai?**
Ez. Erretiratu eta gero ere aurkitu behar dira zereginak, paseatzeaz gain. Burua lanean izan behar da, beti.

**Zer ez die eskaintzen Debagoieneko erretiratuei?**
Garraio publikorako txartelen prezio egokia, garestia da beste bailara batzuekin alderatuta. Hori batetik, eta bestetik, oraindik ere badira hainbat erretiratuen egoitza ez dutenak beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzen. Abaroaren kasuan, nahiko ondo dago; orain, gainera, berria egingo dute. Baina beste batzuk ez daude horren ondo.

**Aitona-amonak biloben zaindari bilakatu dira.**
Gaur egungo gizartean normala da. Etxebizitzen prezioekin gazteak hipotekatuta daude.

Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2007-09-21

# Erretiratuak irratiko uhinetan

**BERRIKETAK** 'San Joxepeko berriketak' du izena Bergarako erretiratuek Txapa Irrati librean duten irratsaioak

**BAKARRA** Debagoieneko irrati libre bakarra da Txapa Irratia eta 1984a ezkero emititzen du egunero, 24 orduz

**IRRATSAIOAK** Domekan batzarra egingo dute, eta nahi duenak bere irratsaioa proposa dezake

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Txapa Irratikoek proposatuta hasi ziren Bergarako erretiratuak irratsaioa egiten. *San Joxepeko berriketak* du izena programak eta hileko lehenengo astelehen arratsaldean emititzen dute. "Datorren hilean, gainera, hamabostaldi kulturala egingo dugu San Joxepe elkartean eta Txapa Irratia bisitan etorriko zaigu. Beraz, urrian, denbora gutxian bi aldiz izango dute gure berri Txapako entzuleek", dio Luis Larrañagak, San Joxepeko irrati esatarietako batek.

Martxoan hasi ziren euren irratsaioa egiten, eta, hasieran mikrofonoen aurrean egoteari errespetu handia bazioten ere, egun trankilago joaten direla dio Larrañagak. Lauzpabost lagun joaten dira. "Geuk antolatu ditugun ekintzen berri ematen dugu eta guri dagozkigun kontuak ere aipatzen ditugu. Baina hilero programa antzerakoak egin barik, aldatzea gustatzen zaizu eta horregatik saiatzen gara zerbait ezberdina eramaten irratsaio bakoitzera. Batzuk, adibidez, lehengo kontuak kontatzera gonbidatzen ditugu". Kalean ere behin baino gehiagotan esan diete euren programa entzun dutela, eta pozik daude San Joxepeko irrati esatariak.

**IRRATI LIBRE BAKARRA**

Debagoieneko irrati libre bakarra da Bergarako Txapa Irratia. Gaztetxetik emititzen du egunero 24 orduz, "baina sortu zenetik, 1984tik, beste bi egoitza ere izan ditu: Artekalean lehena, sindikatu baten bulegoan, eta Zabalotegiko lokalean bestea", dio Lander Juaristik, Txapako esatariak. "Irrati librea gara eta gure filosofiaren barruan sartzen da edozeini eskaintzea irratsaio bat. Egun 15 bat gabiltza, denak boluntarioak, eta programak mota guztietakoak dira. Orain Info 7ko albistegiak ere emititzen ditugu", dio Juaristik. Domekan, gainera, batzarra dute 19:30ean gaztetxean, ikasturte berriko *parrilla* osatzeko, eta "herriko elkarte denak daude gonbidatuta".




**TXAPA** San Joxepeko irrati esatariak Lander Juaristi Txapa Irratiko kazetariarekin. TXOMIN MADINA

---

**ahobero**

## "Orain badut aitzakia bat lehen baino zapata pare gehiago erosteko"

**Imelda Marcos** > Filipinasko presidente ohiaren emaztea

Aitzakiarik gabe ere dozena bat zapata baino gehiago zituen Imelda Marcosek. Irudi horretxekin jarraituko dute askok lotzen Ferdinand Marcos Filipinasko presidente ohiaren emaztea. Orain medikuak aholkatu ei dio hemendik aurrera ortopediako oinetakoak erosteko. Hankak zuzentzeko ote?

---

**iturri onetik**

## Paint-ball egiteko tokia zabalduko dute datorren astean Arrasaten, Bedoñan

Paint-ball egiteko lursaila prestatu dute Arrasateko Bedoña auzoan, ur depositu aren ondoan. Astebete barru zabalduko dute. Iker Garai Bedoñako auzotarrak prestatu du lursail hori eta dagoeneko bukatzear ditu lan eta tramite guztiak.

Hiru zatitan banatu du lursaila eta laster egongo da edozein lagun koadrilak eta taldek elkarri pilotak botatzen erabiltzeko moduan.

---

**piperrautsa**

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

## Ez dakit, ez dakit

Debagoienak, gehienetan, liluratu egiten nau. Seguruenik, kanpotik bertaratua izateak aukera ematen dit begi bereziz ikusteko. Etxenike fisikari eta gizon handiari entzun berri diot hitzaldi bikaina, eta han ondoko esaldi-txantxa hau: "Einsteinen ekuazio famatuak (E=mc2) adierazten duena da E=MCC. Pentsa zer nolako energia dagoen kooperatibetan, nahiz ez dakidan beraiek jabetzen diren".

Nik ere energia itzela ikusten dut Debagoienean. Baina batzuetan ez dakit zergatik indar horri hainbeste traba sortzen zaizkion, ez dadin eragile izan. Mankomunitatearen kargu banaketak eman dit zer pentsa. Gehiengo berriari erantzuten dio, nola ez. Baina eragileago izango zen kolore gehiago hartu izan balitu. Ez da hasiera ona, ez dakit.

---

**ai, ene!**



## Superrak izan gura dutenendako pertxa

Supermanen trajea eskegitzeko ez ezik, superrak izan gura dutenen arropak eskegitzeko ere balio du pertxa gorri horrek.

http://www.boingboing.net






*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51